

## Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados / Titres publiés:

1. *Bertsolari txapelketa 1982*. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.  
*Iparragirre*. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.  
*Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006)*. 2006
4. MIQUEL GROS I LLADÓS  
*Recuperación del Euskera en Navarra*. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Sustapen Batzordea  
*Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz*. 2007
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/  
EUSKALTZAINDIA  
*Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Corpus Batzordea  
*Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. 2008
8. MIQUEL GROS I LLADÓS  
*El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009)*. 2009
9. ERRAMUN BAKOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS  
*Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord*. 2010
10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA  
*Ikastola mugimendua. Dabilen berria*. 2010
11. MIKEL ZALBIDE  
*Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. 2010
12. JÜJE EYXEBARNE  
*Gramatika emendakinak. Zuberoko euskaraz*. 2010
13. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA  
*El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010*. 2011
14. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Corpus Batzordea  
*Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. 2011
15. ERRAMUN BAKOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS  
*Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord*. 2012
16. PAULA KASARES  
*Euskaldun bazi Nafarroan. Euskararen belaunetaz belauneko jarraipena eta bizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. 2013
17. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
*Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa. Euskaltzaindiaren XXI. Jagon jardunaldia*. 2017

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itxaropenak eta testuingurua ere.

Euskaltzaindiaren Jagon Saileko JAGON bildumak euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



Euskaltzaindia  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Académie de la Langue Basque

Laguntzaileak:



# Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa



Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa



EUSKALTZAINDIA

Jagon Sailaren Sustapen batzordeak urtero antolatzen ditu jardunaldiak euskararen egoeraren nondik norakoak aztertzeko.

2016an, Euskal Konfederazioarekin batera, euskararen egoeraz Ipar Euskal Herrian gogoetatzea deliberatu zuen.

Hizkuntza politika publikoa 2006an hasi zen egituratzen Euskararen Erakunde Publikoarekin. Halarik ere, gerotik, euskal hiztunen ehunkoa eta euskararen erabilera ttipituz doa. Egoera hori irauleraz ez bada ere, baitezpadakoa da instituzio maila guztiak hizkuntza politika berri ausartean engaia daitezen. Euskal Elkargoaren sortzea hizkuntza politika berri hori garatzeko parada izan daiteke.

Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak gizarte eragilei eta erakunde kideei hitza eman diete, testuinguru berri horretan euskararen geroa nola irudikatzen duten azal dezaten.

EUSKAL ELKARGOAREN SORTZEA ETA EUSKARAREN GEROA  
EUSKALTZAINDIAREN XXI. JAGON JARDUNALDIA

2016ko azaroaren 19a

Prestatzailea: Jean-Baptiste Coyos



EUSKAL ELKARGOAREN SORTZEA  
ETA EUSKARAREN GEROA

EUSKALTZAINDIAREN  
XXI. JAGON JARDUNALDIA



EUSKALTZAINDIA

BILBO

2017

Argitalpen honen fitxa katalogifikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Hizkuntza-orrasketa: Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beratu transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Azaleko irudia: Iñaki Mendizabal Elordi

Diseinua: Ikeder, SL.

Aurreinprimatzea: Fotocomposición IPAR, S.Coop.

Inprimatzea: Grafo, S.A.

ISBN: 978-84-948489-0-2

Lege-gordailua: BI-508-2018

# EUSKAL ELKARGOAREN SORTZEA ETA EUSKARAREN GEROA

Prestatzailea: Jean-Baptiste Coyos



## AURKIBIDEA

Egunaren egitaraua / Programme de la journée . . . . .	9
<b>Aitzinsolasa: Geroa euskaldunago</b> <i>Sagrario Aleman, Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeko burua . . . . .</i>	11
<b>Agurra eta jardunaldiaren aurkezpena</b> <i>Jean-Baptiste «Battittu» Coyos, Euskaltzaindiaren Jagon sailburua . . . . .</i>	13
<b>Euskararen estatusa: legezko koadroa eta aukerak</b> <i>Argitxu Etxandi, Kontseilua . . . . .</i>	15
<b>Euskararen corpusa: Euskaltzaindia eta Ipar Euskal Herria</b> <i>Jean-Baptiste Battittu Coyos, Euskaltzaindiaren Jagon sailburua . . . . .</i>	31
<b>Hizkuntza politikaren erronkak</b> <i>Aines Dufau, Marie-Andrée Ouret eta Sébastien Castet, Euskal Konfederazioa . . . . .</i>	43
<b>Erakundeen arteko harremanak eta euskararen etorkizuna Iparraldean</b> <i>Mathieu Bergé, Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria . . . . .</i>	51
<b>Ipar Euskal Herrian, euskararentzako erronka berriak</b> <i>Allande Socarros, Zuberoako Herri Alkargoko euskara arduraduna . . . . .</i>	61
<b>Euskaltzaindiak Euskal Herriko Garapen Kontseiluari</b> <i>Xarles Videgain, Euskaltzainburuordea eta Iparraldeko ordezkaria . . . . .</i>	67
<b>Euskaltzaindiaren eta Euskal Konfederazioaren adierazpenaren aurkezpena:</b> <b>Euskararen biziberritzea indartzeko aukera historikoa</b> <i>Erramun Osa, Sustapen batzordearen idazkaria . . . . .</i>	81
<b>Euskaltzaindiaren eta Euskal Konfederazioaren adierazpena, Ipar Euskal Herrian euskara galzoritik atera eta indarberritzeko-bidean parartzeko . . . . .</b>	83
<b>I. eranskina</b> <b>Ipar Euskal Herriko udalerrien egituraketa administratibo berriaren izenez . . . . .</b>	87





# EGUNAREN EGITARAUA / PROGRAMME DE LA JOURNÉE

2016ko azaroaren 19 / 19 novembre 2016

## GOIZEKO SAIOA / SÉANCE DU MATIN

09:30-09:45

---

Agurra eta XXI. Jagon Jardunaldiaren aurkezpena  
*Accueil et présentation du colloque*

Hizlariak / *Intervenants* :

- Jean-René ETCHEGARAY, Baionako auzapeza / Maire de Bayonne
- Battittu COYOS, EUSKALTAINDIA
- Mainer HEGI, EUSKAL KONFEDERAZIOA

09:45-10:45

---

Euskararen estatusa. Legezko koadroa eta aukerak  
*Statut de la langue basque. Cadre légal et opportunités*

Hizlaria / *Intervenante* : Argitxu ETXANDI, KONTSEILUA

Eztabaida / *Débat*

Moderatzailea / *Modératrice* : Sagrario ALEMAN, EUSKALTAINDIA

10:45-11:00

---

Atsedena / *Pause*

11:00-12:15

---

Hizkuntza politikaren erronkak / *Enjeux de la politique linguistique*

Hizlariak / *Intervenants* :

- Bernadette SOULÉ, EEP-OPLB : Estatuak eginiko EEPren 2016ko ebaluazio txostenaren aurkezpena / *Présentation du rapport d'évaluation 2016 de l'OPLB fait par l'Etat*
- Aines DUFAU, EUSKAL KONFEDERAZIOA : Hizkuntzaren transmisioa / *Transmission de la langue*
- Marie-Andrée OURET, EUSKAL KONFEDERAZIOA : Hizkuntzaren erabilera / *Usage de la langue*
- Sébastien CASTET, EUSKAL KONFEDERAZIOA : Motibazioa / *Motivation*
- Battittu COYOS, EUSKALTAINDIA: Hizkuntzaren corpusa / *Corpus de la langue*

Eztabaida / *Débat*

Moderatzailea / *Modératrice* : Pantxika MAITIA, ALDUDARRAK BIDEO

10

## ARRATSALDEKO SAIOA / SÉANCE DE L'APRÈS-MIDI

14:00-16:00

---

**Mahai-ingurua: Biharko hizkuntza politikaren antolaketa**  
*Table ronde : Organisation de la politique linguistique de demain*

Hizlariak / *Intervenants* :

- Mathieu BERGÉ, EEPren lehendakaria / *Président de l'OPLB*
- J.-Claude IRIART, EKAHASren lehendakaria / *Président du SISCB*
- Allande Socartos, XIBEROAKO HERRI ALKARGOKO euskara arduraduna / *Chargé de la langue basque à la COMMUNAUTE DE COMMUNES DE SOULE*
- Paxkal INDO, EUSKAL KONFEDERAZIOA
- Xarles VIDEGAIN, EUSKALTZAINDIA

**Eztabaida / Débat**

Moderatzailea / *Modérateur* : Jojo BIDART, EUSKAL IRRATIAK

16:00-16:15

---

**Aldarrikapen testuaren irakurketa / Lecture d'une déclaration commune**

Izenpetzaileak / *Signataires* : EUSKALTZAINDIA & EUSKAL KONFEDERAZIOA

Irakurleak / *Lecteurs* : Xarles VIDEGAIN & Mainer HEGI



Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak antolatuturik  
*Organisé par Euskaltzaindia et Euskal Konfederazioa*

Baionako Herriko Etxearen laguntzarekin  
*Avec le soutien de la Ville de Bayonne*



# AINTZINSOLASA

## Geroa euskaldunago

Hemen dituzu Euskaltzaindiko Sustapen batzordeak, 2016ko azaroan, Baionan egindako Jagon jardunaldiko txostenak. Jagon Saileko Sustapen batzordearen egitekoa da, besteak beste, euskararen estatusari buruz gogoeta egitea, eta horren harira, urtero, jardunaldia antolatzen du euskalgintzan ari diren taldeekin edota herri erakundeekin batean.

2016an Ipar Euskal Herri osoa bere baitan hartuko zuen erakunde berri baten sorrera onartu zuen Parisek. Ez Ipar Euskal Herrian aspalditik, behin eta berriz, hainbat herritako etxek eta herritarrek aldarrikatzen zuten Departamendua, baina bai Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa biltzen dituen lurralde erakundeak.

Erakunde horrek Ipar Euskal Herrian, arlo askotan, bide berriak irekitzeko parada eskaini zezakeela ikusi zuten bertako indar politikoek, jendeek, erakundeek eta hautetsiek. Euskararendako eta euskal hiztunendako ere mesedegarria izan daiteke, tresna egokia izaten ahal da, sortu berria den erakundeak.

Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak elkarrekin antolatu zuten, bada, erakunde horren sorrerak ekarri zuen itxaropen giroan, Euskal Elkargoak egin beharreko hizkuntza politikaren inguruan aritzeko jardunaldia. Erakunde horri, euskaraz, Euskal Elkargoa deitzeko erabakia ere jardunaldi horren prestaketa lanetan hartu zuten Euskal Konfederazioa osatzen duten euskalgintzako taldeen eta Euskaltzaindiaren artean.

Jardunaldian parte hartzera gonbidatuak izan ziren, euskararen eremuan lanean ari diren gizarte eragileez gain, instituzio publikoetako arduradunak ere. Eta hain zuzen ere, jardunaldi horretan hizkuntza politikaz beren iritzia eman zuten horien txostenak dituzue hemen irakurgai. Ez daude guztienak, bai gehienenak, ez han esan zituzten era berberean, geroztik moldatuak eta osatuak izan baitira. Egitarauan ageri den mahai-inguruan esandakoak ez dira ageri hemen jasoak; bai, ordea, mahai-inguru horretan mintzatu ziren zenbaiten artikulatuak, liburu honetan argitaratzeko idatzi dituztenak.

Ipar Euskal Herrian 2006an hasi zen egituratzen hizkuntza politika publikoa, nolabait. Berriki arte, ordea, Ipar Euskal Herrian instituzio bakar baten ordezkari

herri elkargo izateak ez zuen laguntzen hizkuntza politika bakarra eta indartsua egiten. Hizkuntza politika berria definitzeko eta garatzeko instituzioa dugu Euskal Elkargoa. Aukera izaten ahal da. Lurraldeko berezko hizkuntza berreskuratu nahi izanez gero, babes juridikoa behar du hizkuntza horrek. Hemen irakurriko dituzun idatzi horietan denak bat datoz horretan. Eta luze edo laburrago Estatu frantsesean tokiko hizkuntzei aplikatzen zaien legeria aztertzen dute, eta euskararen ofizialtasuna, epe motzera erdiestea zail ikusten dutena, edo gutxieneko aitortza juridikoa eskatzen dute.

Nafarroako edo EAeko euskararen legeetan agertzen den gisa, Ipar Euskal Herrian ere Euskaltzaindiak euskararen kalitateari eta arauetara buruzko aholku emaile ofiziala behar luke.

Hizkuntza politika egiten duen eragile bakoitzaren artikulazioa, eskumenak eta egitekoak ere zehazten dituzte. Adostasuna eta elkarrekin norabide berean lanean ari ziteza beharrezkoa baita normalizazioan aitzinatzen.

Legeak eskaintzen dituen zirrikituez eta aukerez baliatu eta neurri egokiak hartzeaz ere ari dira. Oraingo egoera soziolinguistikoa kontuan izanik, lehenetsunez eta epe motzean, hainbat arlotan hartu beharreko neurriak aipatzen dituzte ezagutzan, motibazioan eta erabileran eraginen dutenak.

Hausnarketarako bidea ematen digun gogoeta eta proposamen franko badugu idatzi horietan.

Euskal Elkargoak urte bat bete du, sailak antolatzen hasiak dira eta hizkuntza politikako lehendakariordea izendatua dute. Lanean ari bitez, eta Euskal Elkargoak sortu zuen itxaropena egitate bihur bezate, orain arte euskararen berreskurapenean buru-belarri aritu direnekin batean.

Bide on.

Sagrario Aleman  
Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeko burua

## AGURRA ETA JARDUNALDIAREN AURKEZPENA

Euskararen sustatzea, erabileraren zabaltzea, hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta hiztunen eskubideak zaintzea, horiek dira Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren egin-kizun nagusiak.

Ildo honetan, aspaldidanik, Jagon Sailaren Sustapen batzordeak, urtero, euskararen egoeraren nondik norakoak aztertzeko, Jagon jardunaldia antolatzen du. Aurtengo jardunaldi hau hogeita batgarrena da.

2008an, adibidez, «Euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideak» izenburua izan zuen Jagon jardunaldiak, 2009an «Euskara eta etorkinak» eta 2010ean «Gazteak, Aisialdia eta Euskara». Ondotik, beste ikuspegi bat hartuz, lurraldeka antolatu zituen jardunaldiak. Honela, 2012an Ipar Euskal Herrian izan zen, Baionako fakultatean. Azkenik iaz, erabilera eremu bat hartuz, beste alor biziki erabakigarri dena hautatu zuen Sustapen batzordeak: komunikabideak, euskararen sustapenean.

Aurten, Euskal Konfederazioarekin batera, euskararen egoeraz eta geroaz Ipar Euskal Herrian gogoetatzea deliberatu du Euskaltzaindiak.

Zergatik orain?

Euskararen alde euskal elkarteek aspaldidanik egiten zuten lana kontuan hartuz, 2006an hizkuntza politika publikoa egituratzen hasi zen Ipar Euskal Herria eta geroztik Euskararen Erakunde Publikoak politika hori eramaten du. Halarik ere, aitzinamendu batzuk izan badira ere, inkesta soziolinguistikoek euskal hiztunen kopurua eta euskararen erabilera ttipitzen segitzen ari direla erakusten dute.

Egoera hori iraulezina ez da, baina baitezpadakoa da instituzio maila guziak hizkuntza politika berri ausartean engaia daitezen. Datorren urtariletik goiti, Euskal Elkargoaren sortzearekin, hizkuntza politika berri hori garatzen hasteko garai ezin egokiagoa dugu.

Hortakotz, egun, Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak gizarte eragileei eta erakunde kideei hitza ematen diete garai berri horretan euskararen geroa nola irudikatzen duten azal dezaten, euskara indarberritzeko eginbeharrak zoin diren erran dezaten. Lurralde kolektibitateen papera zoin izan daitekeen eta horien artean Euskal Elkargoarena.

Jean-Baptiste «Battittu» Coyos  
Euskaltzaindiaren Jagon sailburua



Jean-René Etxegarai, Baionako auzapeza, eta Mainer Hegi, Euskal Konfederaziokoa, XXI. Jagon jardunaldia irekitzen ari

# EUSKARAREN ESTATUSA: LEGEZKO KOADROA ETA AUKERAK

Argitxu Etxandi  
Kontseilua

*Anai-arrebak, entzun ene abo-otsa:  
izaite bat ez daike bezur hutsez osa;  
herria da gorputza, hizkuntza bibotza;  
bertzetik berextean bitarik bakotxa,  
izaite horrendako segurra bil botza.*

Xalbador

## I. HIZKUNTZAREN ESTATUS JURIDIKOA

Kontseiluaren ustez, gogoan ukan behar da hizkuntza politika eraginkorra plantan jartzeko funtsezko lau osagai behar direla<sup>1</sup>:

1. Lehenik eta behin, hizkuntza politika egokiak inbertsioak egitea eskatzen du. Eta ez da uste izan behar euskarak kostu bat gehiago suposatzen duenik, baizik eta ondoko belaunaldiei begira egiten den inbertsio bat dela, herriaren kohesioa bermatzeko beharrezkoa dena.
2. Horrez gain, hizkuntza politika eraginkorra planifikatua da. Jakin behar da noraino heldu nahi den eta horretarako nondik hasi behar den, eta zein diren hurrengo pausoak. Erran daiteke hori nolazpait jadanik egiten dela hobe-kuntza kontratuen bidez Herri eta Herri Elkargoetan, Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) eskutik; bederen, abiapuntu bat da.
3. Bestalde, Paul Bilbaok dioenez, «hizkuntza bat berreskuratuko da, baldin eta hori nahi duen komunitate bat badago atzean»<sup>2</sup>. Euskaraz bizi nahi duen herriaren gogo funtsezkoa da eragile publikoen akuilatzeke.
4. Azkenik, euskal gizarteak bere lurraldeko berezko hizkuntza berreskuratu nahi badu, babes juridikoa eskuratu beharko du, hori gabe, beti zalantzak sortzen baitira praktikan, eta euskararen babesa ez baita loteslea. Babes ju-

---

<sup>1</sup> P. Bilbao, «Gaur sentitu ditugun emozioa, poza eta determinazioa baliatuko ditugu aldaketa eragiteko», Kontseilua 2015-04-25.

<sup>2</sup> *Op. cit.*



ridiko horrek euskaldun bakoitzari euskaraz bizitzeko eskubidea bermatu beharko lioke.

Azken puntu hori da eskas preseski Ipar Euskal herrian, eta zutabe hori gabe, nekez sendotu daitezke beste hiru zutabeak. Lehenik, labur-labur oroitaraziko da zein den orain arteko lege koadroa eta ondotik, lurralde erreformak osatzen duen lege koadroa azalduko da.

## I.I. Indarrean dagoen lege koadroa

Estatu frantsesean ez da tokiko hizkuntzei buruzko lege berezirik, baina bada tokiko hizkuntzei aplikatzen zaien legeria bat. Lege multzo honek euskararen normalizaziora hurbiltzen ahalbidetu dezake berez, baina babes juridiko sendorik gabe, egoera beti hauskor gelditzen da.

Konstituzioaren 2. artikuluan agertzen da: «*La langue de la République est le français*»<sup>3</sup>. Horri gehitu zitzaion 2008an 75-I artikulua, honakoa aitortuz: «*Les langues régionales font partie du patrimoine de la France*». Konstituzioaren bi artikulua horiek konbinatuz gero, ulertzen dugu tokiko hizkuntzak ere Frantziako hizkuntzak direla —eta funtsean, Gobernuak badu Frantziako hizkuntzen ordezkari bat<sup>4</sup>—.

Konstituzio frantsesari 2. artikulua gehitu zitzaion preseski 1994ko Toubon legea<sup>5</sup> integratzeko gisan. Toubon legea hartua izan zen garaian, globalizazioaren hedapenaren testuinguruan, nolazpait frantsesa babesteko ingelesaren parean. Orduan, lege horren bidez, frantsesari toki bat segurtatu nahi da bizitza publikoan oro har, eta hainbat dokumentu eta jarduera publikotan. Toubon legearen 21. artikuluan agertzen da «*les dispositions de la présente loi s'appliquent sans préjudice de la législation et de la réglementation relatives aux langues régionales de France et ne s'opposent pas à leur usage*»<sup>6</sup>, erran nahi baita, Toubon legeak ez ditu tokiko hizkuntzak baztertzen; tolerantzia izpiritu bat du agerian uzten.

Dena den, erran behar da Toubon legeak hogeit hamar urte pasa dituela jadanik, eta zuzenbide doktrinaren parte baten iritziz<sup>7</sup>, testuak gaurkotatua galdu du, ez da gehiago arras errealitateari egokitua, ez baitezpada arrazoi ideologiko batzuenatik, baizik eta arrazoi tekniko batzuenatik. Izan ere, kontuan hartu behar da hogeit hamar urtez gauzak anitz aldatu direla, bereziki komunikazio euskarriak, eta numerizazioa garatu dela. Globalizazioaren testuinguruan, bereziki Internet eta sareetan, zaila ala ezinezkoa bilakatu da frantsesaren presentziaren segurtatzea, eleaniztasuna baita nagusi.

<sup>3</sup> Konstituzio frantsesa, 2. art: «Frantsesa da Errepublikaren hizkuntza».

<sup>4</sup> Délégation générale à la langue française et aux langues de France (DGLFLF).

<sup>5</sup> Loi n.º 94-665 du 4 août 1994 relative à l'emploi de la langue française.

<sup>6</sup> Lege honen xedapenak aplikatzen dira Frantziako eskualde hizkuntzari aplikatzen zaion legeria kaltetu gabe, eta haien erabilera trabatuta gabe.

<sup>7</sup> F. BOUGUETTAYA, La « *Loi Toubon* » appliquée à l'Internet », RLDI 2014, n.º 110.

Gainera, Toubon legea arlo publikora mugatzen zen gehienbat. Eta hori ere anitz aldatu da hogeitaz urtez, liberalizazioak pribatizazio fenomenoaren indartu duelako eta, horren ondorioz, arlo publikoa eta pribatuaren arteko muga anitz lausotu delako<sup>8</sup>.

Dena den, Toubon legearen izpirituaren baitan, frantsesaren presentzia segurtatuz gero, beste hizkuntza batzuk —eta bereziki tokiko hizkuntzak— erabiltzen ahal direla. Horrek aukera anitz irekirik uzten ditu, jakina.

Izpiritu berean, usu sektore publikoa begiratu ohi da; alta, preseski legeak gehien arautzen duen arloa da. Sektore pribatua aldiz liberalizatua da. Izenak berak erakusten duen bezala, askatasun anitz uzten du. Enpresetan bada egitekoa, eta borondatea ukanez gero, hizkuntza politika ausarta garatzen ahal da. Horretan laguntzen ahal ditu Bai Euskarari Ziuertagiriaren entitate pribatuak, bide orri bat proposatuz, euskara normalizatzeko pausoak eman ditzaten<sup>9</sup>.

Toubon legea pixka bat zaharkitua den bezala, frantsesa ez den hizkuntza baten eskakizuna baztertzea ere zaharkitua da, Europar Batasunaren legeriaren baitan. Izan ere, Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Kartaren 22. artikulua aitortzen du Europar Batasunak kultura, erlijio eta hizkuntza aniztasuna errespetatzen dituela. Aniztasun horren izenean, garrantzitsutzat hartzen du gutxiengo nazionalen eta hizkuntza gutxituen babesa; eta bereziki, kontuan hartzen da ofizialak ez diren hizkuntzen bazterketak Europar Batasunean barneko hizkuntza aniztasuna trabatzen ahal lukeela. Europako erakundeek aitortza hori egitera bultzatzen dute: berrikitan, Europako Kontseiluak ere bere aldetik Espainiar Estatuari gomendatu dio bere tokiko hizkuntzen garapenaren alde lan egitea, tokiko hizkuntzei estatus ofiziala eskainiz auzoko Autonomia Erkidegoetan ere, adibidez euskarari Nafarroako Foru Komunitatean<sup>10</sup>.

Era berean, Europar Batasuneko legeriaren baitan, frantsesaren hizkuntza eskakizuna eskatzea zorroztasun gehiegirekin ezinezkoa da, Europar Batasuneko merkatu libroa traba lezakeelako. Zentzu berean, zorroztasun gehiegirekin baztertzea frantsesa ez den hizkuntza baten eskakizuna ezinezkoa da. Jakina, arau horrek balio du sektore publikoan, zein pribatuan. Europar Batasuneko Justizia Auzitegia beti saiatzeko da egiaztatzen hizkuntza eskakizunak langileen zirkulazio librea ez duela trabatzen<sup>11</sup>. Horrek erakusten du ez dela hain erraza frantsesa ez den hizkuntza eskakizunaren baztertzea kontratazio publikoan.

Alsaziako lurraldearen kasuan, arau hauek nabari egiten dira, kontratazioan usu ez baita soilik frantsesa eskatzen, baizik eta frantsesa eta alsaziera edo alemana, zirkulazio librearen beharrei erantzuteko hain justu. Horregatik, *Alsace bilingue* federazioak proposatzen du alsazieraren gaitasun profesionala eskualdeko formakuntza planaren lehenta-

<sup>8</sup> Publiko-pribatu partaidetzak anitz garatu dira.

<sup>9</sup> <http://www.baieuskarari.eus/>

<sup>10</sup> Council of Europe- Recommendation CM/RecChL (2016) On the application of the European Charter for Regional or Minority Languages by Spain- Adopted by the Committee of Ministers on 20 January 2016 at the 1245th meeting of the Ministers' Deputies.

<sup>11</sup> Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak zeharkako diskriminazioaren kontzeptua garatu du, atzeritarrei bertakoei baino trataera hobea egiten zaien kasuen adierazteko: « *l'effet paradoxal consistant en ce que le traitement réservé aux ressortissants d'un État membre de l'Union européenne est moins favorable que celui dont bénéficient ceux des autres États, en application des règles communautaires* ».

sunetan jartzea, erranez : « *La maîtrise professionnelle de la langue régionale doit constituer une priorité dans le programme régional de formation professionnelle*<sup>12</sup>. *Les institutions de formation professionnelle veillent à l'acquisition de compétences de qualité en langue régionale* ». Euskal Herrian ere antzeko sistema bat proposa daiteke, jakina. Eskualdeak duenez formakuntzen karta orokorra definitzen<sup>13</sup>, harekin hitzartu beharko litzateke Euskal Elkargoa.

Horrez gain, elebitasunaren federazioak honakoa aitortzen du : « *Dans le respect du droit applicable et des prérogatives reconnues à la langue française, les collectivités territoriales et institutions locales peuvent établir un véritable statut de la langue régionale. Une telle définition est un préalable nécessaire de la politique globale régionale de promotion de cette langue. Les collectivités sont appelées à affirmer ce statut sous la forme d'une délibération formelle*<sup>14</sup> ».

Horiek horrela, Alsaziaren kasuak argi uzten du alsaziera benetako gaitasun profesionala bihurtu dela, mugaz gaindiko lan merkatuan integratzeko funtsezko tresna.

Alsaziaz gain, Korsikari ere so egin beharko litzaioke, dudarik gabe. Hain zuzen ere, Korsikako Lurralde Biltzarrak Korsikeraren Ituna onartu zuen 2005eko uztailearen lehenean<sup>15</sup>. Izan ere, testu horretan balio bat eskaintzen zaio korsikerari eta momentu berean, ez du legea urratzen, elebitasun parekatuan oinarritzen baita<sup>16</sup>. Bestalde, aintzat hartzen du Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertetsala, eta bereziki 8. artikulua, zeinetan aitortzen den hizkuntza komunitate orok bere hizkuntzaren transmisioa segurtatu eta sendotzeko behar diren baliabideak eskuratzen ahal dituela. Horiek horrela, ondorioztatzen da:

- Batetik, korsikera Korsikako hizkuntza naturala dela bizitza sozioekonomikoan zein espazio publikoan, frantsesaren ondoan.
- Bestetik, uharteko biztanle orok eskubidea duela korsikeraren ikasteko, horrek kohesio soziala laguntzen duelakoan.

Horrez gain, zehar-lerrokotasuna ere aitortzen zaio bertako hizkuntzari, erranez bere tokia atzeman behar duela bizitzaren arlo guztietan. Azpimarratu behar da ere korsikera lehenestea aipatzen dela toponimian. Halere, bukatzen da elebitasunaren printzipioa aitzinean emanez.

Erran gabe doa, beste eskualdeetako eredu horiek lagungarriak izan dakizkiguke, dudarik gabe, euskararen estatusa definitzeko momentuan. Momentu aproposa orain da noski, Ipar Euskal Herriak lurralde osorako hizkuntza politika baten definitzeko parada duelako.

Hori dela eta, komeni da aztertzea lurralde erreforma berriak zer berrikuntza ekartzen duen hizkuntza politikari begira.

<sup>12</sup> Bertako hizkuntzaren gaitasun profesionala Eskualdeko Formazio Plangintzaren lehenetsunean jarri behar da.

<sup>13</sup> *Contrat de plan régional de développement des formations et de l'orientation professionnelles (CPRDFOP)*.

<sup>14</sup> Indarrean dagoen legeria eta frantsesaren tokia errespetatzen diren ber, lurralde erakundeek zein tokiko erakundeek, benetako estatus bat definitu dezaketeko bertako hizkuntzarentzat. Hizkuntza horren sustapenerako Eskualde politika globala definitu ahal izateko funtsezko oinarria litzateke funtsean. Erakundeei dagokie delako estatusaren definitzea delibero bidez.

<sup>15</sup> *Charte de la langue corse*.

<sup>16</sup> *Bilinguisme paritaire français-corse*.

## I.2. Lurralde erreformaren ekarpena

Nahiz eta legeak pista interesgarri batzuk ireki, euskalgintzak ez luke bere barnean gatibu egon behar, desbideratzen ahalko baliteke oinarrizko helburutik; baka-rrik jakin behar du lege hori behar bezala baliatzen, bere helburuetara egokitzeotan, erran nahi baita, baldin eta aukera ematen badu euskara normalizazio bidean jartzeko Euskal Elkargoaren baitan.

Lehenbailehen, ohartarazi beharko litzateke orokorrean, eskualde hizkuntzen garapenak nolazpait deszentralizazioaren bidea segitu duela. Hori argiki ikusten da Kaledonia Berrian, 80ko hamarkada bukaeran Matignon akordioekin deszentraliza-zio prozesua azkarra bizi izan baitute<sup>17</sup>, eta zenbait urte berantago (2003an), kanak hizkuntzaren ezagutza bat garatzen hasi baita, bereziki mundu akademikotik<sup>18</sup>. Era berean, 2008an Konstituzioan gehitu zelarik artikulua eskualde hizkuntzak Fran-tziaren ondare gisa izendatzeko, lurralde kolektibitateen atalean (XII. tituluan) jarri zen<sup>19</sup>. Alta, jartzen ahal zitekeen 2. artikulua ondoan, baina tokiko erakundeei lo-tzeko hautua egin da, eta hori deigarria da.

Lehenik eta behin, erreforma interesgarria da agerian ematen duelako kon-zeptu berri bat, orain arte Frantziak erabili ohi ez zuena: kultur eskubideen erres-petua. Izan ere, NOTRe legeak, bere I03. artikuluan aitortzen du Estatuak, beste lurralde erakundeekin batera, kultur eskubideen errespetuaren ardura duela. Kul-tur eskubideen kontzeptua ulertzeko, komeni da hiztegi frantsesak eskaintzen duen definizioari so egitea<sup>20</sup>: « *les droits culturels visent à garantir à chacun la liberté de vivre son identité culturelle, comprise comme “ l'ensemble des références culturelles par lesquelles une personne, seule ou en commun, se définit, se constitue, communique et entend être reconnue dans sa dignité”* »<sup>21</sup>. Itxura guztien arabera, definizioa arras lausoa denez, hizkuntzari ere aplikatzen ahal zaio. Hortaz, argi da hizkuntz eskubideak kultur eskubideen parte bezala sail-katzen direla.

Horretarako, NOTRe legea 2005eko UNESCOren adierazpenean ere oina-rritzen da. Adierazpen honen 2. 3. artikuluan agertzen da : « *La protection et la pro-motion de la diversité des expressions culturelles impliquent la reconnaissance de l'égalité de dignité et du respect de toutes les cultures, y compris celles des personnes appartenant aux minorités et celles des peuples autochtones* »<sup>22</sup>.

Horrez gain, 8. artikuluan agertzen da alde batek diagnostikatzen ahal duela bere lurraldean adierazpen kultural batzuk desagertzeko zorian direla eta mehatxu baten menpe, eta horren ondorioz, urgentziazko begiratze bat behar dutela. Hori

<sup>17</sup> Eta Nouméako akordioak 1998an, jarraipenean.

<sup>18</sup> Adibidez 28 hizkuntza identifikatzen dira, inkestak egiten dira. . .

<sup>19</sup> Konstituzio frantsesaren 75-I. artikuluan.

<sup>20</sup> Hizkuntz eskubideei buruzko 2007ko Friburgo adierazpena. Doktrinaren arabera, defi-nizio honetan oinarritu beharko litzateke NOTRe legearen I03. artikulua ulertzeko eta aplika-tzeko.

<sup>21</sup> Hizkuntz eskubideen helburua da bakoitzaren nortasun kulturean errespetatua, hots, nor-berak bere duintasunean ezagutua izateko beharrezko dituen erreferentzia kulturen errespetua.

<sup>22</sup> Kultur adierazpenen aniztasunaren sustapen eta babesak suposatzen du kultura guztiek duinta-sun bera dutela, herri gutxituen ala bertako herrien kulturak barne.

dela eta, beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzakete adierazpen kulturalak babesteko eta zaintzeko gisan.

Artikulu hau biziki baliosa izan daiteke euskararen kasuan, hizkuntz eskubideei aterki juridiko bat eskaintzen dielako zeharka. Halere, lege honen praktika ezagutu aitzin, komeni da aztertzea zein aukera diren Euskal Elkargoak euskarari gutxieneko aitortza eskaini diezaion bere estatusetan.

Izan ere, babes juridikoa da hizkuntza politikaren oinarria. Euskara hizkuntza ofiziala izendatzen duen legerik ez denez Ipar Euskal Herrian, oraingo lege koadrotik haratago joateko, gogoan ukan behar da beti erabiltzen ahal dela esperimendazioa. Aukera hori jadanik irekirik zen, baina lurralde erreformak zabaldu du.

Esperimentazio eskubideak aukera emanen luke lege estatus ezberdina aplikatzeko euskarari, eragiten dituen berezitasunei egokitzeko asmoz, Korsikan egina izan den bezala neurri batzuen inguruan. Era berean, esperimentazioaren bidez, elkargoak bere gain hartzen ahalko litzuzke orain arte Estatuak ala beste lurralde erakunde batek obratzen dituen eskumenak.

Hain zuzen ere, Konstituzioaren 72 al 4 artikulua lurralde erakundeei legea ala erregelamendua gainditzea ahalbidetzen die<sup>23</sup>, esperimentazio gisa, eta epe jakin baterako, salbu askatasun publiko baten egikaritzaren funtsezko baldintzak ala konstituzioak bermatzen duen eskubide bat tratatuko balira<sup>24</sup>.

Artikulu honen bidez, lurralde erakunde batek araua elaboratzen ahal du, koadro orokorretik kanpo. Baina esperimentazio mekanismoak beste berezitasun bat du: aukera ematen du sortutako araua pertsona kategoria jakin bati ala soilik lurraldearen zati bati aplikatzeko.

Gero, lege baten bidez zehaztu da Konstituzioan agertzen den esperimentazio eskubidearen mekanismoa<sup>25</sup>. Lurralde erakundeen arteko taldeei ere irekia zaie aukera hau eta beraz HELEP batek esperimentazio eskubidea ukaiten ahal du.

Erran behar da anitzentzat esperimentazioa tokiko autonomiaren seinale dela eta dimentsio sinboliko azkarra duela; adibidez, arazoak sortzen ahal ditu Estatu eta Errepublikak bat eta zatiezinen defendatzaileen baitan. Baina kasu guziz, epaile konstituzionalak, epaile administratiboak bezala, oroitarazi du hainbat aldiz posible zela trataera ezberdindu aplikatzea objektiboki bi egoera ezberdin direlarik, eta interes orokorraren izenean justifikatzen bada.

Prozeduraren aldetik: printzipioz, lehenik lege bat behar da, esperimentazioa antolatzeko arlo jakin batean. Gero, lurralde erakunde batek, bere biltzarrean bozkatu ondotik, galdegiten ahal du esperimentazio lege hori aplikatua izatea bere lurraldean. Baina lurralde erreforma berriak, eta MAPTAM<sup>26</sup> legeak preseski, aukera

<sup>23</sup> « Eskumen lekualdaketa esperimentazioa » deitu zion EAJ-k «Euskararen lurralde estatutu baten alde » dokumentuan (2016).

<sup>24</sup> Printzipio honek bi salbuespen ditu.

<sup>25</sup> *Loi organique du 1er août 2003*. Azpimarra daiteke lege honek ez duela hitzez hitz berriz hartzen konstituzio legean erabili zen formula; izan ere, honetan agertzen zen « *les collectivités territoriales ou leurs groupements* » eta lege organikoan berriz soilik « *les collectivités territoriales* ». Baina zalantza izanez gero, konstituzio legeak du gaina hartzen, jakina, beraz arauak balio du udal talde batentzat, hau da, HELEP batentzat.

<sup>26</sup> Loi MAPTAM du 27, CGCT, art. L. IIII-9-I.

bat gehitu du: lurralde erakundeek posible dute ezberdinki antolatzea, beren berezitasunen arabera, Konstituzioaren 72. artikuluan oinarritu gabe ere (erran nahi baita, ez da legebiltzarretik pasatu beharrik). Lurralde gobernantza itunaren<sup>27</sup> koadroan, lurralde erakundeek beren artean delegazioak egiten ahalko dituzte, legeak esleitzen dizkien kompetentzietan. Horretarako, gune berezi bat sortzen du legeak: Jardun Publikorako Lurralde Konferentzia<sup>28</sup>. Hor, estatua eta lurralde erakundeak gehi beren taldeak —erran nahi baita HELEP— biltzen dira, eta lurralde erakundeek eskatzen ahal dute Estatuaren gain diren gaitasun batzuen kudeaketa eskuratzeari<sup>29</sup>.

Behin hizkuntzaren babes juridikoa jorratu eta, aztertuko dira lurralde erreforma berriak irekitzen dituen beste aukerak, hizkuntza politika burujabearen garapenari begira. Hain zuzen ere, NOTRe legeak aukera ematen du tokiko hizkuntza tokitik kudeatzeko, Ipar Euskal Herriko lurralde osoan.

Izan ere, lurralde erreformaren izpiritua da lurralde erakundeen berezitzea *chef de file* edo gidari batzuk izendatuz; hori pentsatua izan da bereziki eskualdea eta departamenduaren kasuan, bikoizkeriak saihesteko.

Lehenik eta behin, oroitarazi behar da hizkuntza politika eskumen partekatua dela, NOTRe legearen 104. artikuluan<sup>30</sup> honela agertzen den bezala: «*Kultura, kirol, turismo, eskualdeko bizkuntzen sustapen eta herri bezkuntza arloetako eskumenak herri departamendu, eskualde eta estatutu bereziko elkargoen artean partekatua dira . . .*».

Hizkuntza politika, beraz, eskumen partekatua da, eragile ezberdinen artean: HELEPa noski, Estatua, Akitania Berria eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua.

Erreforma horren beste abantaila da hizkuntza politika bat definitzen ahalko dela Ipar Euskal Herriko lurralde osoan, honek ukanen baitu aitortza juridikoa. Horretarako, Herriko Etxeek behar dute erabaki hizkuntza politika lurralde osoko politika publikoa dela, ala termino juridikoa erabiltzeko, interes komunitarioa<sup>31</sup> duela. Interes komunitarioaren nozioa erabilia da Herriko Etxeen eta HELEPen arteko gaitasun banaketa egin ahal izateko, erran nahi baita, gaitasun jakin bat obratzen dutelarik bai herriko etxeek, baita herri elkargoek ere; baina azpimarratu behar da bien arteko muga oraindik estua dela. Errate baterako, interes komunitarioko kirol eta kultur mailako ekipamenduen kasuan, gaitasuna biena da, bai Herriko Etxeena, baita HELEPena ere; orduan preseski finkatu behar da zeinek gaitasunaren zein zati bere gain hartuko duen. Interes komunitarioaren izenean justifikatzen ahal da herriko etxeek herri elkargoari gaitasun batzuen transferitzea. Arazoa da legeak ez duela finkatzen zer den interes komunitarioa eta zer ez; hutsune juridiko bat da nolazpait.

<sup>27</sup> *Pacte de gouvernance territoriale.*

<sup>28</sup> *Conférence territoriale de l'action publique.* Egitura honen kide dira : Eskualde Kontseiluko lehendakaria, Departamendu Kontseiluetako lehendakariak, 30.000 biztanletik gorako HELEPetako lehendakariak, 30.000 biztanle baino gutxiagoko HELEPentzat ordezkari bat, udal kategoria bakoitzeko ordezkari bat (30.000 biztanletik gora dutenak, 3.500 eta 30.000 biztanle artekoak eta 3.500 biztanle baino gutxiago dituztenak).

<sup>29</sup> 2004ko lege batek lurralde erakunde eta HELEPei gaitasun berriak eskuratzeko aukera ematen die; baina aukera hori gutxi erabilia izan da praktikan.

<sup>30</sup> Lurralde elkargoen kode orokorreko L. IIII-4 artikulua.

<sup>31</sup> CGCT, L. 5214-16 eta L. 5216-5, L. 5215-20 eta L. 5217-2.

Dena dela, kontzeptua lausoa izaki, malgutasun anitz uzten du herri eta herri elkargoaren banaketa egiteko<sup>32</sup>.

Teknikoki, legeria berriaren baitan, desagertzen da gaitasun orokorreko klausula departamendu eta eskualdeentzat<sup>33</sup>. Orain arte erabiltzen zen klausula honen bidez, lurralde erakunde orori aukera ematen zitzaion gai oroz jabetzeko. Doktrina juridikoak kontsideratzen zuen horrek usu egoera nahaskorra sortzen zuela, eta ez genekien zuzen nor zertaz arduratu behar zen, nahiz eta halere ardatz orokor batzuei jarraitzen zen. Lege berriaren baitan, *chef de file* edo gidaritzaren kontzeptua berria agertzen da<sup>34</sup>; eta da gaitasun orokorraren klausularen ahuleziari erantzuteko tresna bat: orain, lurralde erakunde batek, argiki, gidaritzaren hartu behar du arlo jakin batean. Espero da horrek erraztuko duela politika publikoen kudeaketa.

Gidaritzaren horrek balioko du hizkuntza politika definitzeko garaian, baita kudeaketarako ere, jardun publikoa koordinatzeko ala eskumen delegazioak adosteko.

HELEPak hizkuntza politikaren gidaritzaren hartuko balu, hizkuntza politika burujabe baten definitzen ahalko luke, tokian egin tokiko hizkuntzarentzat<sup>35</sup>.

Bestalde, komeni da aztertzea HELEPak zein eskumen kudeatuko dituen eta non kokatzen den hizkuntza politika.

Euskal Elkargoaren sorrera prestatzen ari den Gidaritzaren Batzordeak, bere lehen azpi batzordean —erran nahi baita, «antolakuntza instituzionala, administrazioa eta eskumenak» deitu batzordean—, eskumenen definitzeko asmoa du. Egia da legeak izendatzen dituela gaitasunak, baina aldi berean askatasun anitz uzten die lurralde erakundeei haien artean bakoitzaren funtzioa adostu ahal izan dezaten; hots, hitzarmen sistema da lehenesten.

Legez, hiru eskumen mota ezberdintzen dira: derrigorrezkoak, hautazkoak<sup>36</sup> eta eskatutakoak<sup>37</sup>; hizkuntza politika —kultura politika bezala— azken multzo honetan sartzen da. Baina aldi berean, hizkuntza politika zehar-lerroko eskumena da, hots, berezko eskumena izateaz gain, lotua da beste eskumen batzuei, izan derrigorrezko eskumenei (garapen ekonomikoa, espazioaren antolaketa,...) ala hautazko eskumenei (kultur eta kirol arloko ekipamenduak, interes komunitarioko jardun soziala, haurtzaindegiak...).

Pirinio Atlantikoetako prefetaren 2016ko uztailaren 13ko agiriak zerrendatzen ditu orain arte herri eta herri elkargoetan obratzen diren eskatutako eskumenak. Ondotik, zehazten du, Euskal Elkargoak, 2017ko urtarrilaren 1etik goiti, bi urte ukatzen dituela eskumen horien obratzeko. Epe horretan, Euskal Elkargoak erabakitzen

<sup>32</sup> Konpetentzia bat transferitu eta, bi urte berantago ez bada interes komunitarioa definitua, orduan Herriko Etxeek konpetentzia osoa obratuko dute.

<sup>33</sup> Herriko etxeek atxiki dute: beraz lurralde interesak (ala interes komunitarioak HELEParen kasuan) justifikatzen badu, Herriko Etxeek eragiten ahalko dute arlo guztietan (betiere beren gaitasunen baitan).

<sup>34</sup> V. DONIER, « Les clairs-obscur de la nouvelle répartition des compétences », AJDA 2011 p. 92.

<sup>35</sup> Herriek gidaritzaren ukaiten ahal dute bereziki hiru arlo orokorretan: hurbileko zerbitzu publikoak, tokiko garapena eta espazioaren antolaketa.

<sup>36</sup> *Compétences optionnelles.*

<sup>37</sup> *Compétences facultatives.*

ahalko du gaitasun hori berriz herriei itzultzea ala orain arteko herri elkargoei (sindikatu mistoak bilakatuko direnak).

Bestalde, derrigorrezko eta hautazko gaitasunez gain, HELEP batek kompetentzia gehigarriak<sup>38</sup> ukaiten ahal ditu, Konstituzioaren baitako esperimentazio bidez baliatuz. Korsikaren kasuan adibidez, 2003ko lege baten bidez, Estatuak hainbat eskumen transferitu zizkion:

- Goi mailako hezkuntzaren arloan, behar diren bastimenduen eraikuntza.
- Kultur ekintza batzuk (erakustokiak, ondarea, monumentu historikoen babesa, Estatuarenak diren eraikuntzen kasuan salbu).
- Tokiko hezkuntza erakunde publikoekin batera, Korsikak Formazioaren Aurreikuspenarako Eskema egiten du<sup>39</sup>, baita Estatuarengandik esleituak diren baliabideen jarraipena ere<sup>40</sup>.
- Kirolaren arloko eskumen batzuk ere bereganatu zituen.

Horrela, Korsikari trataera berezi bat egiten zaio. Egia da normalean Estatu frantsesak nekez onartzen duela hori, Errepublikaren baloreen kontrakoa delakoan; baina kasu honetan, jurisprudentziaren arabera, gaitasun transferentzia hori objektiboki justifika daiteke. Hain zuzen ere, Kontseilu Konstituzionalak transferentzia legerari buruz erabaki bat hartu zuen 2002ko urtarrilaren 17an<sup>41</sup>. Honakoa aitortu zuen: ikusiz Korsikako lurraldearen berezitasunak maila geografiko zein ekonomikoan, eta ikusiz transferitutako eskumenez ez dutela deus ikusteko askatasun publikoan plantan jartzeko funtsezko baldintzekin, aplikatzen den trataera ezberdinak —Korsikako eta Estatu frantseseko beste herritarren artean— ez du berdintasunaren printzipioa urratzen. Hots, jurisprudentzia konstituzionalak berdintasunaren printzipioa du aplikatzen, egoera beraren parean trataera bera aplikatuz, eta egoera ezberdinen parean, trataera ezberdina aplikatuz<sup>42</sup>.

Orduan, lurralde erakundeen arteko hierarkia lausotzen denez, lehenago aipatu bezala, lurralde erakundeek hitzarmenak egin behar dituzte gaitasun jakin baten kudeaketa adosteko eta bakoitzaren funtzioak banatzeko; hori egiten da Jardun Publikorako Lurralde Konferentzian. Ipar Euskal Herriaren kasuan, HELEPak ere negoziaketa horietan parte hartzen ahalko du —baita herriko etxe batzuek ere— hizkuntza politikaren inguruko gaitasunen kudeaketa argitzeko.

Mekanismo berri horrek aukerak irekitzen ditu hizkuntza politika ahal bezainbat tokitik eraikitzeko. Baina aldi berean mehatxuak ere sortzen ahal ditu: arriskua liteke, hizkuntza politika gaitasun partekatua denez, eragile bakoitzak bere ardura

<sup>38</sup> *Compétences supplémentaires.*

<sup>39</sup> *Schéma prévisionnel des formations.*

<sup>40</sup> CGCT. Art. R. 4422-3I : « c) *Des relations avec les établissements publics locaux d'enseignement pour l'élaboration du schéma prévisionnel des formations ainsi que du suivi de la mise en œuvre des moyens alloués par l'Etat.* »

<sup>41</sup> Conseil constitutionnel, 17 janv. 2002 : n.º 2001-454 DC : « *Eu égard aux caractéristiques géographiques et économiques de la Corse, à son statut particulier au sein de la République et au fait qu'aucune de ces compétences n'intéresse les conditions essentielles de mise en œuvre des libertés publiques, les différences de traitement qui résulteraient de ces dispositions entre les personnes résidant en Corse et celles résidant sur le reste du territoire national ne seraient pas constitutives d'une atteinte au principe d'égalité.* »

<sup>42</sup> Kontua da jakin behar dela egoera ezberdina identifikatzen ala onartzen.



uztea edo ez serioски hartzea; politikak eragin anitz du konfigurazio berri honetan, jakina. Arazoak saihesteko, ahal den neurrian, ongi definitu beharko da aitzinetik eragile bakoitzaren funtzioa:

### *Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)*

EEP izanen da, dudarik gabe, beste lurralde erakundeekin eta Estatuarekin so-lastatzeko eta hitzartzeko esparrua. Euskal elkargoak baldin badu hizkuntza politi-karen gidaritza nagusia, EEPren baitan adostuko dira kudeaketa kontuak. Izan ere, NOTRe legean agertzen da egitura berezi batean adostu behar direla eskumenen ku-deaketari lotuak diren aferak, baita delegazio eta transferentziak ere. Egitura hori da Jardun publikorako Lurralde konferentzia<sup>43</sup>. Horretan bildu behar dira egitura ez-berdinak: Estatua, eskualdea, departamendua, herriak. Funtsean, Ipar Euskal Herria-ren kasuan, EEPk jadanik biltzen ditu eragile horiek, hots, ez da gauza berria. Beraz funtzio banaketa rol hori betetzen ahalko du, betiere eskumenen kudeaketari begira, jakinez egitura politikoak duela politika orokorra definituko, erran nahi baita, Euskal Elkargoak.

EEP osatzen duten Euskal Kulturaren aldeko Herrien arteko Sindikatuak txos-ten bat osatu zuen 2015ean prospekzio lan bat plazaratuz, elkargo bakarraren sor-tzeari begira. Txostenak bereziki deskribatzen zuen euskararen politika publikoa-ren orain arteko ibilbidea eta aurrera begirako pausoei buruzko gogoeta, beharretatik abiatuz. Txostenean agertzen da<sup>44</sup> EEPk behatze funtzio bat bete beharko lukeela, bereziki hiru kasutan:

- a) Batetik, erakunde bakoitzak dituen eskumenen aplikatzeari buruz.
- b) Bestetik, Frantziako beste lurraldeetan lurralde hizkuntzei buruz egiten di-ren aitzinamenduak aztertze.
- c) Euskararen egoera soziolinguistikoa aztertze.

Komeni da ildo hauen aztertzea banaka. Lehen ildoari begira, zalantzak sor-tzen dira: suposatzen da EEPren rola litekeela bere baitako lurralde erakundeen esku-menon aplikazioa zaintzea; ez ote da hori gidaritza duen erakunde publikoaren fun-tzioa?

Bigarren ildoak beste eskualdeen azterketari lotua da. Estatua EEPren kide de-nez, egia da zilegitasuna duela bere eremuko beste lurralde hizkuntzen kasua azter-tzeko, esperientzia interesgarrien arteko trukaketa eraikitzailea eginez. Azterketa so-ziolinguistikoa aldiz, HELEP batek egiten ahal du berez, diagnostiko gisa; ez du baitezpada eskatzen beste lurralde erakundeen esku sartzea.

Era berean, Sindikatuaren txostenean agertzen da EEPk lurralde kontratuaren berrikusteari buruzko eztabaida «elikatzen» ahalko lukeela. Egia da EEPk balukeela rol bat jokatzeko maila horretan, legearen arabera, ikusiz Estatua lurralde kontratua-

---

<sup>43</sup> *Conférence territoriale de l'action publique.*

<sup>44</sup> I2. orrialdean.

ren partaide dela<sup>45</sup>. Izan ere, lurralde kontratuaren partaideak, EEPren partaideak dira —Garapen Kontseilua kenduta—. Orduan egia da EEPk akuilu lana egiten ahal duela maila horretan.



Argitxu Etxandiren hitzaldia publiko zabalaren aitzinean

### *Euskalgintza*

Berrantolaketa prozesu horretan, dudarik gabe, euskalgintzaren tokia ere zehaztu beharko da, partaide publikoetatik at, partaide pribatuek ere elikatzen dituztelako politika publikoak. Funtsean, horretarako sortu zuen Estatu frantsesak Garapen Kontseilua, herritarrei hitza emateko, afera publikoetan parte har zezaten. Euskalgintzak ere badu bere tokia egituraketa horretan, beraz.

Erran daiteke hizkuntza politikaren demokratizazioa dela jokoan nolabait, ez bada garatu nahi gainerik heldu den politika publiko bat, baizik eta tokitik abia-

<sup>45</sup> Lurralde kontratuaren sinatzaileak:

- Estatu.
- Akitaniako Eskualde Kontseilua.
- Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra.
- IO herri elkargoak eta Herriko Etxeak.
- Garapen Kontseilua.

tzen den egitasmo kolektibo bat. Izan ere, jakin behar da doktrina juridikoaren parte batek leporatzen diola erreformari ez bururaino joan izana. Hain zuzen ere, koadro administrazio berriaren baitan, HELEPak agertzen dira tokiko interlokutore bezala, anitz indartzen da figura gisa, baina horren truke ez zaio ezagutza demokratikorik aitortzen momentuko, herritarrek ez dituztelako ordezkariak hautatzen, zeharka salbu.

Hori dela eta, hizkuntza politikaren demokratizazioa izanen da erronka handia. Euskalgintzaren tokiaren zaintzeko beharra testuinguru horretan kokatu behar da, dudarik gabe. Esperientzia interesgarria litzateke ordezkariak zuzena antolatzea, jakina, Euskal Elkargoaren euskara batzordearen bidez; funtsean, jadanik hala egiten da Baionan eta Miarritzen, euskalgintzak parte hartzen baitu euskara batzordeetan.

Azkenik, Euskal Elkargoaren esparrutik at, mugaz bestaldera ere komeni da begiratzea<sup>46</sup>, teoria soziolinguistikoen arabera, hizkuntza komunitatea lehenbailehen trinkotu behar baita edozein hizkuntza gutxitu berreskuratu nahi bada.

Alsaziaren kasua oso deigarria da zentzu horretan. Izan ere, 90eko hamarkadan, mugaz gaindiko «enplegu merkatua» panan gelditu zen alsazieraren gaitasunak behera egin baitzuen.

Teoria hori praktikara eramanez, argi da Ipar Euskal Herriaren kasuan hizkuntza politika ez dela soilik Euskal Elkargoaren afera, eta Euskal Elkargotik at, loturak egin behar direla Hego Euskal Herriarekin. Maila horretan, Euskal Elkargoa ez litzateke zerotik abiatuko, jadanik garatu direlako hainbat esperientzia orain arte.

Lehenik, EEPk badu hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin. Juridikoki, HELEP batek hitzarmenak izenpetzen ahal ditu mugaz bestaldeko lurralde erakunde batekin<sup>47</sup>. Eta politikoki, Euskal Elkargoa subjektu politiko bat bilakatzen da. Horrek erran nahi du juridikoki zein politikoki gai izanen dela lankidetzak adosteko hainbat arlotan.

Gainera, HELEParen aitzin-figurazio tailerren arabera, aurreikusten da Euskal Elkargoak mugaz gaindiko lankidetzak eramatea<sup>48</sup>. Noski, Eusko Jaurlaritzaz gain, Nafarroako Foru Komunitateak baluke bere tokia hitzarmen horretan.

Beste esperientzia batzuk ere garatu dira: adibidez, Bidasoa-Txingudi partzuegoaren eta Bortzirien artean Sareuska deitu euskararen sarea osatu da<sup>49</sup>.

Baina horretarako, Euskal Elkargoak estrategia komuna ukan behar du mugaz bestaldeko instituzioekin, hau da, lankidetzak ez da mugatzen diru laguntzetara, helburu komunak definitu behar dira harreman sendoa eraiki nahi bada.

Europa mailan ere esperientzia interesgarriak garatu dira zentzu horretan. Adibidez Alemania, Belgika eta Herbehereen arteko egitasmo mugan, EUREGIO euroeskualdean, CaroLingua proiektua sortu dute, mugaz gaindiko lankidetzaren garatzeko xedez, eta horretarako, mugaz gaindiko estrategia linguistiko batean oinarritu

<sup>46</sup> Ikus Euskadi-Akitaniaren hizkuntza eta formakuntza plana.

<sup>47</sup> CGCT, art. L. 1115-1.

<sup>48</sup> *Ateliers d'approfondissement de l'hypothèse EPCI Pays Basque.*

<sup>49</sup> <http://www.espaces-transfrontaliers.org/ressources/projets/projects/project/show/reseau-transfrontalier-langue-basque-sareuska/>

dira. Horrela, mugaz bi aldeetako 6I ikastetxe epe luzeko trukaketa batean sartzen dira, bakoitzaren hizkuntzaren ikasteko asmoarekin. Koordinaketa zentro eta kudeaketa zerbitzu zentralizatu baten inguruan antolatzen dira, eta lurralde bakoitzaren akademia arduradunek parte hartzen dute.

Hor ere, mugaz gaindiko lankidetzaren kasuan, gaitasunak kudeatzen ahal dira Jardun Publikorako Lurralde Konferentzian, mugaz bestaldeko partaideekin batera.

## 2. KOADRO JURIDIKO EGOKIA FINKATU ARTE LEGEAREN BAITAN HAR DAITEZKEEN NEURRIAK

Lurralde erreformaren ezarpenak denbora hartuko baitu, gogoan ukan behar da anarthean badela egitekoa, zain egon gabe ere. Hain zuzen ere, Frantziako hizkuntza legeria ez da hori baino gehiago aldatuko dagoeneko, eta kasu guztiz ezin da gehiago beha egon, anarthean, hizkuntzaren galerak segituko bailuke.

Babes juridikoa garrantzitsua izanik ere, lege eta estatusik gabe ere euskaraz bizitzeko neurriak har daitezke, dudarik gabe. Izan ere, hautetsien borondatean oinarritzen da hizkuntza-politika, haiek dute baldintzatzen.

Konstatazio horretatik abiatuz, Kontseiluak Larrunalde metodoa zabaldu zuen duela hainbat urte: dokumentu batean bildu ziren orain arte Ipar Euskal Herriko hainbat Herriko Etxetan hizkuntza politika mailan hartu izan diren neurri ausarteanak. Metodo horrek balio izan du legeak baimentzen duenaren baitan urrunago joateko, baita lege koadro bat beharrezkoa dela azpimarratzeko ere.

Funtsean, orain arteko legeriaren arabera, argi ikusten da aukera batzuk direla hizkuntza politika baten garatzeko, nahiz euskara ez den hizkuntza ofizial gisa izendatua oraindik.

Hain zuzen ere, Larrunaldeko Herriko Etxeak euskaraz bizitzeko aukera eskaintzen dio hiztun orori. Herriko Etxeak, hizkuntz eskubideak bermatzeko neurriak hartu ditu. Egia da oraindik hutsune anitz badela Larrunalderen hizkuntza politikan. Baina, hala ere, deliberoak hartu ditu euskararen presentzia segurtatzeko, bai hizkuntza-paisaian, bai komunikazioan, bai langileen formakuntzan ala kontratazio berrietan<sup>50</sup>.

Jakin badakigu aitortza juridikoak sortzen duela segurtasuna, eta hizkuntz eskubideen bermea segurtatzen duela. Izan ere, kontuan hartu behar da gauza bat dela hizkuntza politika definitzea eta obratzea, baina beste gauza bat dela norberaren hizkuntz eskubideen errespetua.

Lehenik, Larrunaldeko Herriko Etxeak bere ordenantza juridikoa landu du. Inportantzia handia du horrek, hor finkatzen ahal baitira behin betiko hizkuntza politikaren oinarritzko printzipioak. Ez bada hala egiten, hautetsi eta teknikariak usu egoera lauso batean jartzen dira, eta arriskua da ez argi izatea zer egiten ahal den eta

<sup>50</sup> <http://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2015/05/Larrunaldeko-Herriko-Etxean-eta-herriean-euskararen-erabilera-normalizatzeko-arauak.-DELIBEROA-20080122.pdf>

zer ez. Zentzu horretan, interesgarria liteke begiratzea zein den Frantziako beste lurraldeetan garatu den ordenantza juridikoa tokiko hizkuntzari dagokionez.

Bestalde, Larrunalde euskara zerbitzua du, eta hautetsiek eta euskalgintzak osatzen dute euskara batzordea. Esparru horretan, euskara plana egina du, lehentasuneko zerbitzuak finkatuz eta formakuntza planifikatuz.

Baliabideen aldetik, Herriko Etxeak euskarari esleitzen dion aurrekontua %1etik hurbil da; ez da aski jakina, baina denak ez dira hein horretara heltzen. Euskararentzako esleitzen duen diru moltsan, euskalgintzari emandako diru laguntzak sartzen dira eta euskalgintzari prestatzen dizkion egoitzak ere. Horrez gain, herritarak euskara ikasten bultzatzeko bekak eskaintzen ditu Herriko Etxeak.

Herri honetan gainera, baliabideak ongi kudeatzen dira, langileak kontratatzerakoan euskalduna hartuz, hautagaiek gaitasun berak dituzten ber. Horrela, dirua eta denbora aurrezten dira eta diru hori euskararen aldeko beste zerbaitean inbertitzen ahal da; ez balu horrela egiten, langileak euskalduntzen xahutuko luke dirutza hori.

Orduan, Larrunalden, herriko langileekin harreman guziak euskaraz egiten ahal dira, izan harreran, hirigintza zerbitzuan ala kultura zerbitzuan. Azken finean, biziki gutxi dira oraindik euskaldunak ez diren langileak, eta horiek ere euskalduntzeko plana abiatua dute, lan denboran, eta Herriko Etxeak diruztaturik.

Larrunaldeko haurrek euskarazko harrera jasotzen ahal dute haurtzaindegian, eta handitzerakoan kirola eta aisiak ere euskaraz egiten ahal dituzte, ala hein bate-raino bederen. Izan ere, kirol hezitzaile ibiltari euskalduna bermatzen die Ikastolako haurrei zein eskola elebidunetako haurrei.

Herriko Etxeaz gain, zerbitzu pribatuetan ere euskarazko harrera garatu da Larrunalden, izan saltegitan, medikuan edo hainbat elkartetan. Herriko Etxeak entitate horiek diruz laguntzen ditu, eta horrela, Bai Euskarari ziurtagiria<sup>51</sup> eskuratzen ahal dute. Hautu hori eginez, ziurtagiriak laguntzen ahalko ditu entitate horiek bide orri bat egiten, euskarazko zerbitzua eskaini hala izan dezaten, eta itzulpen batzuk ere egiten dituzte.

Seinaletikari begira, euskaraz dira Larrunaldeko karriken izenak, barne seinale-tika, eta komunikazioa, euskara hutsean ala euskara lehenetsiz, keinu azkar bat igo-rriz, euskaraz bizi nahi duten herritarrei.

Jakina, Larrunalde ez da egiazko herria. Baina bere hizkuntza-politika erreala izan daiteke, gaur egun indarrean dagoen legerian oinarrituz. Kontseiluak, Iparraldeko herriko etxeen hizkuntza-politiken 3. neurketa egin zuen 2013. urte bukaeran. Horrela, Larrunaldeko hizkuntza-politika, Herriko Etxe horiek hartu neurri egokiak bateratuz osatu zuten.

Azken finean, Larrunalde erakusten duena da Herriko Etxe guztiak jada indarrean dituzten neurri egoki guzti horiek bideratzen balituzte, hizkuntza-politika egoki bat obratuko litzatekeela. Noski ez liteke aski, baina gaur egun herri bakoitzak bere aldetik eramaten duenarena baino hobetagoa liteke beti.

Larrunalde sistemak aukera ematen digu errazki identifikatzeko zein diren ofi-zialtasuna gabe hartzen ahal diren neurriak.

<sup>51</sup> [www.baieuskarari.eus](http://www.baieuskarari.eus).

Zehaztu behar da Larrunalden bi neurri mota hartu izan direla: sustapen neurriak eta berme neurriak. Sustapen neurriak usu diru laguntzak dira; hau da, mugatuak dira, baldintzatuak eta haien iraunkortasuna ez da segurtatua. Berme neurrien bidez, aldiz, euskaldunen hizkuntz eskubideak segurtatzen dira. Adibidez, berme neurria izan daiteke langile euskalduna kontratatzea, ala ordenantza juridikoan hizkuntza politikaren gutxieneko koadro baten definitzea.

Adibidez, Herriko Etxe batek ala Herri Elkargo batek garatzen ahal du hizkuntza politika bat, baina ez du erran nahi herritarrak aldizkaria euskaraz jasoko duenik ala tramiteak idazkariarekin euskaraz egiten ahalko direnik. EEPk badu partaidetza Baionako ospitalearekin, baina ez du erran nahi bihar pazientea euskaraz artatua izanen denik automatikoki.

Behin Larrunaldeko neurriak bete eta, azken etapa izaten ahalko liteke euskararen ofizialtasunaren aitortza. Baina hori kokatu behar da estrategia orokor baten baitan, erakutsiz hainbat etapa gainditu direla horretara iritsi arte, eta Herriko Etxeen artean kontzertazio ala lankidetza estua garatu dela.

Laburbiltzeko, hiru ideia nagusi atxikiko dira:

Euskal Elkargoa baliatzen ahalko da hizkuntza politika eredugarriaren bidean jartzeko eta euskararen gutxieneko aitortza juridiko baten eskaintzeko, Frantziako beste eskualdeetan egin den bezala.

Euskal Elkargoa izan beharko da hizkuntza politikaren gidaria; horrek emanen dio aukera hizkuntza politika burujabe baten definitzeko. EEP hor izanen da hizkuntza politika horren obratzeko eta lurralde erakundeen funtzio banaketa antolatzeko.

Bukatzeko, antolakuntza berri horren emaitzen zain egon gabe ere, bada zer egin ikusiz orain arteko esperientzia. Hori da Larrunalde esperientziak erakutsi izan duena: aitortza juridikoa eta hizkuntza politika bateratu eta burujabea lortu arte, posible da neurriak hartzea anartean, hainbat arlotan.

## BIBLIOGRAFIA

Convention sur la protection et la promotion de la diversité des expressions culturelles, UNESCO 2005.

Loi n.º 94-665 du 4 août 1994 relative à l'emploi de la langue française, NOR : MCCX9400007L.

Loi n.º 2014-58 du 27 janvier 2014 de modernisation de l'action publique territoriale et d'affirmation des métropoles, NOR: RDXI1306287L.

Loi n.º 2015-991 du 7 août 2015 portant nouvelle organisation territoriale de la République (*NOTRe*), JORF n.º 0182 du 8 août 2015, p. 13705.

Conseil constitutionnel, décision 2001-454 DC du 17 janvier 2002, Journal officiel du 23 janvier 2002, p. I526.

Arrêté portant création de la Communauté d'agglomération du Pays Basque issue de la fusion de la Communauté d'agglomération Côte basque-Adour, de la Communauté d'agglomération Sud Pays Basque, de la Communauté de communes d'Amikuze, de la Communauté de communes d'Iholdi-Ostibarre, de la Communauté de communes de Garazi-Baigorri, de la Communauté de communes de Soule-Xiberoa, de la Communauté de communes du pays d'Hasparren, de

la Communauté de communes du Pays de Bidache, de la Communauté de communes Errobi, de la Communauté de communes Nive-Adour, Recueil des actes administratifs spécial, n.º 64-2016-01, du 13 juillet 2016.

F. BOUGUETTAYA, « La Loi Toubon appliquée à l'Internet », RLDI 2014, n.º 110.

F. CROUZATIER-DURAND, « L'expérimentation locale (loi organique du 1.º août 2003) », RFDA 2004 p. 2A.

V. DONIER, « Les clairs-obscur de la nouvelle répartition des compétences », AJDA 2011 p. 92.

J.-P. PASTOREL, « Les nouvelles compétences de la Collectivité territoriale de Corse », RFDA 2002, p. 685.

Les politiques langue et culture basques au regard de la nouvelle gouvernance pays basque, Syndicat intercommunal pour le soutien à la culture basque 2015.

Une nouvelle politique linguistique et culturelle pour l'Alsace - Contribution aux Assises de la langue et de la culture régionales 19 juin 2014, Fédération Alsace bilingue, Editions Allewil Verlag.

# EUSKARAREN CORPUSA: EUSKALTZAINDIA ETA IPAR EUSKAL HERRIA

Jean-Baptiste *Battittu* Coyos  
Euskaltzaindiaren Jagon sailburua

*Ezin-bestekoa, hil edo bizikoa,  
dela uste dugu euskera batasun bidean jartzea*

Koldo Mitxelena

## I. HIZKUNTZAREN ESTATUSA ETA CORPUSA<sup>1</sup>

Soziolinguistek bi alor zabal ezberdintzen dituzte hizkuntza baten aldeko hizkuntza politika indarrean jartzen denean, deitzen duten *hizkuntzaren plangintzan*. Alde batetik *status-plangintza*, bestetik *corpus-plangintza*. Heinz Kloss soziolinguistak ditu bi kontzeptu horiek sortu, *status planning* (estatus-plangintza) eta *corpus planning* (corpus-plangintza), biak loturik *language planning* osatzen dutelarik (1969, *Research possibilities on group bilingualism: a report*).

### I.1. Hizkuntzaren estatusa

Jardunaldian Euskal Konfederazioko kideak euskararen transmisioaz Ipar Euskal Herrian, erabileraz eta erabileraren aldeko motibazioaz mintzatu dira, Txepetxen triptikoa beren gain eginez<sup>2</sup>. Hiru ezaugarri horiei esker, besteak beste,

---

<sup>1</sup> Artikulu hau XXI. Jagon jardunaldian eman zen mintzaldiaren bertsio emendatua da, alderdi teorikoa lantzen duena erreferentziak emanez. Euskararen corpora Euskaltzaindiaren eginkizunetan dago, baina eginak eta beharrak hemen Ipar Euskal Herriatik ikusirik izanen dira.

<sup>2</sup> Sánchez Carrión «Txepetx»en «motibazioa / ezagutza / erabilera» triptiko horrek («*Un idioma se aprende por tres factores básicos que son la motivación (Eusk. motibapena), la percepción (Eusk. ezagutza), y el ejercicio o uso (Eusk. erabilpena)*»), in *Un futuro para nuestro pasado*: 35) arrakasta handia lortu zuen Euskal Herrian eta oraino ere erabilia da hizkuntza-plangintzan (Euskararen Erakunde Publikoak adibidez bere hizkuntza politika proiektuan), ekintza ezberdin batzuetan. Halere jakin behar da «Txepetx» norbanakoaren hizkuntza jabetzeari eta hizkuntza ikasteari aplikatzen zitzaizela, nahiz ama-hizkuntzarenari (lehen hizkuntza), nahiz bigarren hizkuntzarenari. Txepetxek triptiko hori Commins eta Faginen 1954ko *Principles of Educational Psychology*-tik etortzen zela azaltzen zuen (1987: 109). Triptiko horren mugak eztabaidatzeko lirateke hizkuntza politikari eta hizkuntza plangintzari aplikatzen zaienean.



hizkuntza baten bizindarra neurtzen da. Hizkuntza bat gero eta transmitituagoa baldin bada, gero eta erabiliagoa hizkuntza-komunitatean, haren aldeko motibazioa gero eta handiagoa gizaratean, orduan hizkuntza hori gero eta indartsuagoa izanen da.

Ezaugarri horiek hizkuntzaren estatusaren alorrean sartzen dira, hizkuntzak gizaratean duen lekuan. Legezko koadroak eta hizkuntza normalizatzeko egiten diren eta ez diren ekintzek denek hizkuntzaren estatusa eragiten dute<sup>3</sup>. Ekintza horiek hizkuntzak betetzen dituen gizarte-esparruak eta funtzioak gizaratean eragiten dituzte, hots, hizkuntzaren estatusa eragiten. Beraz, euskararen estatusa Ipar Euskal Herrian neurtuko dugu, alde batetik, eskualdetako hizkuntzek Frantzian duten legezko koadroaren arabera eta, bestetik, euskarak Iparraldeko gizaratean betetzen dituen gizarte-esparruen eta funtzioen bidez.

Estatus-plangintza alor horietan denetan eragiten saiatzen da, hizkuntza minorizatuak erabilera eremuak eta funtzio denak eskura ditzan. Hau da deitzen den normalizazioa, gure kasuan euskarak hizkuntza baten erabilera eremuak denak eta bete ditzakeen funtzio denak eskura edo berreskura ditzan.

## I.2. Hizkuntzaren corpora

Beste alorra, euskararen corpora, da hemen interesatzen zaiguna. Bi adiera ditu *corpus* hitzak. Bat da, euskararen kasuan, euskal testuek denek osatzen duten funtsa. Alor honetan, Euskaltzaindiak tresna bat baino gehiago garatzen du: xx. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa, 4.658.036 testu-hitzez osatua dena, Lexikoaren Behatokiaren Corpora, hainbat eremu jorratzen dituen, batez ere hedabideak, eta *Orotariko Euskal Hiztegia*, garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzen duena.

Baina corpus hitzak beste adiera badauka, hemen erabiliko duguna: corpora hizkuntza beraren forma, euskara beraren forma da ere. Beraz corpus-plangintzak hizkuntzaren forma eragiten du. Testuinguru sozial, kultural, politiko eta historiko berezi batean, corpus-plangintzak hizkuntzaren forma aldatzen du finkatu diren helburuen arabera. Corpus-planifikatzaileak hizkuntzaren egitura moldatzen du hizkuntza moldatuak funtzio berri zenbait bete ditzan: ortografia finkatzen da eskolan irakasteko, hizkuntza estandarizatzen da administrazioetan erabiltzeko, hiztunen behar berrietara egokitzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT) erabiltzeko, etab.<sup>4</sup>

<sup>3</sup> Hau da hizkuntza-normalizazioaren definizio bat: «Minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera borretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara bedatzeko prozesua» (UZEI, Soziolinguistika Klusterra, HPS, *Soziolinguistika Hiztegia*: 20. or.).

<sup>4</sup> Irakurleak Fishman-en *DO NOT Leave Your Language Alone...* liburua irakur lezake corpus-plangintzari buruzko teoria, kontzeptuak, denboran eta munduan zehar corpus-plangintza esperientziak ezagutzeko.

### 1.2.1. *Corpus-plangintza estatus-plangintzaren mendekoa da: euskara batuaren kasua*

Corpus-plangintza estatus-plangintzaren mendekoa da era batez, hautu politikoaren mendekoa da, hizkuntza-ideologiaren eta irudikapenen mendekoa (Fishman, 2006: X. or.). Euskara batuaren sorkuntzarekin, adibidez, corpusaren baitan eragin da, euskara idatzi komun eta bateratu bat eskuratzeko.

Baina euskara batu bat sortzeko motibazioek euskararen estatusarekin ikus-teko bazuten. Euskaltzaindia, bere 50. urtebetetzea ospatzeko, 1968ko urriaren 3an, 4an eta 5ean bildu zen Arantzazun (Gipuzkoa) eta orduan euskara batua behar zela sortu erabaki zen. Koldo Mitxelena euskaltzainak «*Ezin-bestekoa, hil edo bizikoa, dela uste dugu euskera batasun bidean jartzea. . . Nabi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsean behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. . . irakaste-lanean dugu beharrenek batasun hori. . .*» idatzi zuen (*Euskera*, XIII: 203). Beraz, Mitxelenaren hitzetan helburua euskara salbatzea zen eta euskara idatzi forma bat sortzea irakaskuntzan erabiltzeko<sup>5</sup>. Garai hartan, «*gure historia osoan lehen aldiz, eskola euskaldunak sortu ziren, ikastolak, eta jende helduak euskaraz ikasteko gau eskolak antolatu ziren*» (Zuazo, 2005: 150). Testuinguru soziala, alor horretan, euskara batuaren aldekoa zen. Halaber, Manuel Lekuonak biltzarraren irekitzeko «Euskeraren batasuna» aitzin-solasean bi publiko ikusten zituen euskara batuarendako: aldizkariak (batzuk aipatzen zituen *Zeruko argia, Anaitasuna, Jakin...*) eta ikastolak («*Ikastoletako Liburuetan eta jolasketetan*», *Euskera*, XIII: 139).

Bistan da, beste helburu batzuk bazituen euskara batuaren sortzeak, aipatuena behar bada euskalkidun ezberdinen arteko ezin ulermena gainditzea<sup>6</sup>.

### 1.2.2. *Corpus-plangintzaren alor nagusiak: «grafizazioa», «estandarizazioa» eta «modernizazioa»*

Charles Fergusonen arabera (Cooper, 1989: 125), hizkuntzak konpara daitezke «grafizazioa»-ren, «estandarizazioa»-ren eta «modernizazioa»-ren arabera.

**Grafizazioa** da hizkuntza bati idazteko ortografia ematea<sup>7</sup>. Grafizazioak lexikalizazioarekin eta gramatikalizazioarekin batera hizkuntzaren kodifikazioa (kodetzea) osatzen du. Hots, hizkuntzaren kodifikazioarekin hizkuntza idazteko gai da, oinarriko lexikoa finkatua da eta bai ere gramatika arau nagusiak. Hizkuntza kodifikatua literaturan, testu administratiboetan, irakaskuntzan, eta abarretan erabiltzeko gai da. Baina hizkuntzaren norma grafiko hori finkatua ondoan, gizarteratze lana egin

<sup>5</sup> xvi. eta xvii. mendeetan jadanik Leizarragak (*Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria*, 1571) eta Axularrek (*Gero*, 1643) euskararen ezberdintasun handiarengatik idazteko arazoa azpimarratzen zuten.

<sup>6</sup> Bere *Euskara batua Ezina ekinez egina* saiakeran, Koldo Zuazok zerrendatzen ditu zein diren bere us-tez euskara batuaren «onura» garrantzitsuenak (2005: 199-201).

<sup>7</sup> Hau da grafizazioaren definizio bat: «Hizkuntzaren ortografia-arauak finkatzea. Kode-tzearen hiru ataletako bat da» (UZEI, Soziolinguistika Klusterra, HPS, Soziolinguistika Hiztegia: 19. or.).

behar da, gizarte osoan, hizkuntza-komunitatean, eragin behar da norma berria onartua izan dadin. Norma hori preskriba daiteke administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan... Beraz, preskribatua den norma onartua eta erabilia izan behar da, eta gero egoten da beste norma batek haren lekua hartuko duen arte (Cooper, 1989: 144). Halere, indarrean den norma alda daiteke ere emeki-emeki beharren arabera.

**Estandarizazioa** da hizkuntza-norma bakar bat izatea, gizartean zabalki onartua dena, egokia eta aldaketa gutirekin erabilgarria helburu orotan (Cooper, 1989: 134)<sup>8</sup>. Era batez, kodifikazioa estandarizazioaren zati bat da.

**Modernizazioa** da Fergusonen hizkuntza-garapenaren hirugarren irizpidea (Cooper, 1989: 149). Eraldaketa prozesu baten bidez, hizkuntza erabiltzeko aldatzen da gizartearen bilakaerarekin batera, komunikazio-tresna egokia bilaka dadin diskurtso alor eta forma modernoetan erabiltzeko. Bistan da, prozesu hori etengabe-koa da, hizkuntza egokia atxikitzeko, gizartearen aldaketaren batera.

Datorren atalean so egingen dugu laburki euskara zein neurrian idazteko gai den, zein neurrian estandarizatu eta modernizatu den.

## 2. EUSKARAREN CORPUSA. EGINIK IZAN DENA: *EUSKARA BATUA*

Beraz euskararen corpora euskararen beraren forma da, eta forma horretan eragiten du hizkuntza politikaren adarra den corpus-plangintzak. Euskarak ahozko eta idatzizko forma ezberdin anitz baditu, erregistro ezberdinak, hiztun bakoitzaren hizkera, tokiko hizkerak, euskalkiak eta duela guti sortu den euskara batua bere aniztasunean.

### 2.1. Euskara batuaren etengabeko garapena

Euskara batuaren sortzearekin idatzizko kodea estandarizatu izan da, bereziki Euskaltzaindiari esker. Urrats anitz egin dira denbora gutitan<sup>9</sup>. Euskaltzaindiak euskararen corpora landu du eta lantzen du. Euskararen kodifikatzaile nagusia izan da eta da, eta ondorioz lehen preskribatzailea ere. Euskaltzaindiaren arauemaile lana behar-beharrezkoa da, euskararen normalizaziorako, euskara modernizatzeko. Has-tapenetik 2017ko martxoaren 5eko data arte, 180 arau berretsi ditu Euskaltzaindiak (ikus [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)). Alor ezberdinetan sailkatzen dira: ortografia-arauak, hitzen deklinabidea, aditz-formak, izen bereziak (euskal onomastika eta exonomastika...), etab. Lehen araua aipatu dugun Mitxelenaren 1968ko Ortografia testua izan da, arau anitz biltzen zituena. Azken arauak, adibide gisa, horiek dira: 178.a «Kantopoko leku-izenek dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpi-

<sup>8</sup> Hau da estandarizazioaren definizio bat: «Hizkuntza baten bariedade estandarra zehazteko, ezartzeko eta lantzeko helburua duen prozesu linguistiko eta soziala. Lau fase ditu: hautatzea, kodetzea, implementazioa eta elaborazioa.» (UZEI, Soziolinguistika Klusterra, HPS, Soziolinguistika Hiztegia: 19. or.).

<sup>9</sup> Euskara batuaren historia osoa ezagutzeko, hasikinak, gorabeherak, garapena, ikus adibidez Koldo Zuazoren *Euskara batua Ezina ekinez gina* saiakera.

deak», 179.a «Bizantziar Inperioko pertsona-izenak» eta 180.a «Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Germaniar jatorriko pertsona-izenak».

Zuazok aspaldidanik errepikatzen dena oroitarazten du: «*Hil edo bizikoa da hizkuntza etengabe berritzea*» (2005: 230). Bai eta desafioa Euskaltzaindiarentzat da euskal hizkuntza-komunitatearen beharrei erantzutea. Beraz, lehenik, behar horiek detektatu behar dira. Lexiko juridiko-parlamentarioa hartzen baldin badugu, adibidez, 2017an Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa argitaratu du akademiak, 1.400 hitzetik gorakoa, «*guztion adostasunarekin, guztiontzat aplikagarri eta erabilgarri den euskarazko formulazio bateratua*» eskainiz (2017: 8). Hori Eusko Legebiltzarrak, Nafarroako Parlamentuak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar nagusiek galdaturik, erabiltzeko helburuarekin.

Euskararen kode idatzi horren ezaugarri garrantzitsu bat azpimarratu nahi nuke: erabiltzeko erraztasuna. Erran dezakegu kode horren grafiaren, euskararen ortografiaren ikastea, irakurtzea, erabiltzea errazak direla. Hori da kode horren ezaugarri baikorra. Euskararen ortografia ikastea erraza da. Frantsesarenari konparatzen baldin badiogu, hori argi-argia da.

Baina, bitartekaririk gabe gizartean, euskararen erabiltzaileengan, lan hori alferrik litzateke. Corpusa gero eta landuagoa da eta hizkuntzaren erabilerara eramane behar da. Arau emate lan hori gizarteratu behar da, euskararen erabiltzaileengan joan dadin (2.2. ikus beheago). Lehen lerroan irakasleak, idazleak, kazetariak, itzultzaileak, administrazioak baditugu. Horiek dira euskararen hedatzaileak eta ondorioz, eta batez ere, preskribatzaileak.

Euskara batuaren gizarteratzearengatik, Oihartzabalek bi euskara mota bereizten ditu: *euskara batua* «(le basque unifié)» eta *euskara komuna* «(le basque commun)» (Oyharçabal, 2002: 136-137). *Euskara batua* da Euskaltzaindiak bere gomendio eta arauetan proposatzen duen euskararen forma. Aldiz, *euskara komuna* da euskara batutik, gomendio akademikoetarik baino urrunago joaten diren argitaratzaileek, prentsak, irakasleek erabiltzen duten euskara. Ondoko lerroaldean erakutsiko dugu pixka bat nola euskara batua, lehenik idatzia zena bakarrik, gizarteratu den ahozko eta ama-hizkuntza bilakatuz.

## 2.2. Euskara batuaren bilakaera eta gizarteratzea («vernakularizazioa»<sup>10</sup>)

Euskara batua erabiltzaile ezberdinek erabiltzen baitzuten, ahozko testuinguruetan ere, euskara idatzitik ahozko euskara bilakatu da, erabiltzaileen beharren arabera. Denborarekin, euskara batua moldatu da hezkuntzan, literaturan, komunikabideetan, teknologia berrietan, administrazioetan sar dadin eta sartu da. Euskararen kasuan ere, Cooper-en behaketa gauzatu da: estandarra usuenik idazteko onartua eta gero, irakaskuntza formalaren eta tokiz gaindiko komunikazioaren garapenarekin, lurralde ezberdinetako jendeak estandarra erabiltzen du, testuinguru komunikatiboek tokiz gaindiko baloreak azpimarratzen dituzten diskurtso ezber-

<sup>10</sup> Neologismo (itsusi) hori asmatu dut euskara batuak ezagutzen duen gizarteratze eta ahoskatze prozesua izendatzeko. Prozesu horretan, euskara batuarendako bilakaera garrantzitsuetarik bat da ama-hizkuntza bilakatzea.

dinetan (Cooper, 1989: 143). Erabilerarekin euskara batua molde ezberdinetan gauzatu da. Hedatzaile bakoitzak bere idatzizko edo ahozko ekoizpenean euskara batuaren forma bat baliatzen du preskribatzailea bilakatuz.

Eragile batzuk izan dira euskara batua ezberdintzeko: ahozko edo idatzizko erabileraren testuinguru ezberdinak (aldizkari zientifiko batean ez da telebistako joko batean bezala gauzatuko), lurraldea, tokiko euskalkia eta estatu-hizkuntza menderatzailea (erdara), erabiltzaileak berak. Oihartzabalen «euskara batua»-ren eta «euskara komuna»-ren arteko ezberdintasuna onar dezakegu (2.I. ikus), baina «euskara komuna» ez da uniformea. Beste irizpide batzuk behar ditugu. Bilboko euskara batua ez da Ipar Euskal Herrikoa. Alde batetik bizkaieraren eta gaztelaniaren eraginak baditugu, bestetik Iparraldeko euskalkien eta frantsesarenak. Ildo honetan, Zuazok «tokiko batuak», «batu jaso eta lagunarteko batua» ezberdintzen zituen (2005: 237-241). Hots, denborarekin, erabilera ezberdinekin, erabilera funtzio eta testuinguru ezberdinekin, euskara batua herri-hizkuntza bilakatzen ari da, bereziki euskalkirik gabeko lurraldeetan. Eta gazteek, gero eta gehiago, euskara batua ama-hizkuntza gisa dute (edo lehen-hizkuntza gisa, hobe).

Beraz, euskara batuaren beste ezaugarri garrantzitsu hori azpimarratu nahi nuke: lehen hizkuntza bilakatu da euskaldun zenbaitentzat, orain haur eta gazte zenbaiten ama-hizkuntza da. Beste kopuru handi batentzat, euskara batua bigarren hizkuntza da, ikastetxean ikasia eta ikasketa orotan zehar irakaskuntza-hizkuntza (izan) dena. Gero eta gehiago dira euskara batua ahozko eta eguneroko hizkuntza gisa dutenak, hiri handietan edo euskara galdu duten lurraldeetan. Bilakaera ezberdin horiek euskara batuaren arrakastaren frogak dira. Neurri handi batean Euskal Herriko gizarteak eta bereziki euskal hizkuntza-komunitateak euskara batua onartu dute, molde eta forma ezberdinetan, nahiz Hego Euskal Herrian, nahiz Ipar Euskal Herrian. Lana bukatua ez bada ere, euskara batua gai da, oro har, oraingo bizi modernoaren hizkuntza izateko eta euskal hizkuntza-komunitatearen zati handi batek horren berri badauka.

Dena den, euskara batua gizarteratzeko, corpusari buruzko aholku eta kontsulta zerbitzuetan zerbitzu-eskaintza hobetu behar da teknologia berriei esker. Hau da Euskaltzaindiaren lehentasunetarik bat.

Ipar Euskal Herriatik begira, galdera batzuk badira. Zertan dira euskararen formak Ipar Euskal Herrian eta zer nahi dugu, zoin erabili? Zoin da euskara batuaren lekua? Zoin euskara batu Iparraldean? Iparraldeko euskara batu propioa badugua? Tokiko hizkeren, euskalkien eta euskara batuaren elkarbizitza nola kudeatu? Eta abar.

### 2.3. Euskara batua kohesio-eragilea

Galdera horiei erantzun baino lehen, euskara batuaren beste ezaugarri bat biziki garrantzitsua nahi nuke azpimarratu. Usu, euskara batua euskalkidunen ez elkar uleretzea gaingintzeko tresna dela erraten da eta egia da.

Ildo honetan nahi nuke azpimarratu ere nola euskara batua kohesio eragilea den Ipar eta Hego Euskal Herrien artean, euskaldunen denen artean. Euskal hizkuntza-komunitatea egituratzen du, Euskal Herria eta euskal hizkuntza-komunitatea beren osota-

sunean kontuan hartzen baititu. Bistan da, euskara euskalkien bidez gauzatzen da toki zonbaitetan, ez denetan, baina ere euskara batuari esker gero eta gehiago, hiri handietan bereziki. Hori da gure kohesio-eragile nagusia, euskara batua da euskaldunen arteko bizitzeko tresna garrantzitsuena, euskal hizkuntza-komunitatearena.

Adibidez, orain berean, ez dut idazten ikasi dudan zubereraz baina euskara batu baten bidez, nire euskara batuaren bidez, erranen nuke.

Euskara batuak, iragana, euskararen historia luzea, eta geroa, hizkuntza egokia gizarte modernoan bizitzeko, lotuz, euskal hizkuntza-komunitatea erreberitzen eta indartzen du. Euskaldunentzat hori biziki garrantzitsua da. Beren hizkuntzaz harrotasuna ematen die, hizkuntza-komunitate bizi bateko kideak sentitzen baitira.

### 3. EUSKALTZAINDIAREN EGINAK ETA EGINKIZUNAK IPAR EUSKAL HERRIAN

Zoin dira, beraz, Euskaltzaindiaren eginkizunak? Euskaltzaindia da Euskal Herri osoko erakundea, euskararen lurralde guztiak aintzat hartzen dituen. Bere egitekoa izanen da, lehen izan zen bezala, hizkuntzaren batasunerako arauak, irizpenak eta gomendioak ematea, bai eta euskara zaintzea ere. Hots, euskararen corpusa lan-tzea, hizkuntzaren kalitatea zaintzea eta euskara bera begiratzea.

Eta Ipar Euskal Herriaz zer erran? Euskaltzaindiak orain arte euskararen eremu osoan eramaten duen lana nahi luke jarraiki baina, Ipar Euskal Herriari dagokionez, lan hori molde ikusgarriago batez egin behar du, lan hori indartuz, jauzi kuantitatibo eta kualitatiboak eginez. Zer egin duen eta zer egin dezakeen ikus dezagun, beraz<sup>11</sup>. Corpusaren alderdi ezberdinak aztertuko ditugu banan-banan, adibideak emanez, exhaustiboa izan gabe.

Lehenik **hiztegitintzan**. Euskaltzaindiak argitaratzen dituen hiztegitan Iparraldeko euskalkiak kontuan hartuak dira. Aurten publikatu duen *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* bigarren edizioan (2016), 2.716 hitz badira *Ipar*. laburdurarekin (Iparraldea), 56 *Lap*. laburdurarekin (Lapurtera), 46 *BNaf*. laburdurarekin (Behe- nafarrera) eta 37 *Zub*. laburdurarekin (Zuberera). Beraz 37.884 sarreratarik (gehi 6.944 azpisarrera), 2.855 iparraldekoak dira. Erran gabe doa beste hitz anitz komunak direla Euskal Herri osoan. Euskaltzaindiak publikatu duen *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren 16 tomoe-tan (1987-2005), euskaraz idatzi diren liburu gehien lexikoa jaso eta antolatu da, garai eta euskalki ezberdinetakoak<sup>12</sup>. Bistan da, Iparraldeko literatura osoa hiztegi historiko horretan sartu da. Hiztegitintzaren alor honetan, Ipar Euskal Herrian urrats bat egin da duela guti, Euskararen Erakunde Publikoaren finantzaketarekin, baina Euskaltzaindiaren parte-hartzerik gabe. *Nola Erran* frantses-euskara hiztegi elektronikoa on-line ezarri da (www.nolaerran.org, 2013an bururatua). Egileen arabera,

<sup>11</sup> Liburu honetan Xarles Videgainek idatzi duen «Euskaltzaindiak Euskal Herriko Garapen Kontseiluari» artikulua erakusten du Ipar Euskal Herrian Euskaltzaindiaren lan ildoak zein izan daitezkeen. Era batez, artikulua hau osatzen du.

<sup>12</sup> 2017an hiztegi horren bertsio elektronikoa publikatu du Euskaltzaindiak: «Internet bidezko zabaldunderako bi bertsio prestatu dira: bata, PDF formatuan, testu jarraitu moduan ordenagailura jaitz daitekeena; eta bestea, HTML formatuan, sarrera nagusiak bilatzeko aukera eskaintzen duena» (www.euskaltzaindia. eu).

euskara batua erabiltzen da baina «*Ipar Euskal Herriko bizkuntza ingurumenari egokitu*». Ildo honetan, hiztegi horrek beherago aipatuko dugun Iparraldeko batuaren estandarizazioan parte hartuko du, Ikas pedagogia zerbitzuak euskal eskola irakaskuntzaren-dako argitaratzen dituen liburuek eta dokumentuek bezala<sup>13</sup>.

**Gramatiketan** ere, euskara batua kodifikatzeko lanean, euskararen arau nagusiak aintzat hartzen ditu Euskaltzaindiak, baina euskalkiek dituzten ezaugarriak baztertu gabe. Har dezagun 6. araua adibide gisa, *Ene/Nire, Niri*, 1994ko urriaren 28an onartua: *ni* izenordainaren genitiboa *niri* dela erabakitzen da, baina bai ere Iparraldean erabilia den *ene* forma. Beste adibide bat: 2010ean Jüje Etxebarneren *Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz* liburua argitaratu du Euskaltzaindiak, zubereraren arau gramatikalak zehazten dituena. Halere, adibidez, nafar-lapurteraren gramatika modernorik ez dugu mementoko.

Gramatikaren alorrean Euskaltzaindiak egitasmo berezi bat badu Ipar Euskal Herriarendako, *Euskara eskuz esku* proiektua. Ipar Euskal Herriko hitzunei hizkuntza-aniztasuna kontuan hartuko lukeen euskara batuaren hedatzeko tresna linguistiko berria ematea du helburu. Gaurkotu den euskarri elektronikoa erabilgarria sortuz, xedea euskaldunen galderei erantzutea litzateke. Euskarri horrek Euskaltzaindiak ematen dituen gomendioak eta arauak proposatuko lituzke ordena alfabetikoan diren artikulu labur eta argien bidez, Ipar Euskal Herriko hizkuntza-aniztasunari dagozkionak azpimarratuz. Hizkuntza idatziari eta ahozkoari lotuak diren eremu guztiak kontuan hartuko lituzke: morfosintaxia, fonetika eta fonologia, hiztegi gintza, onomastika, dialektologia, literatura, euskara batua eta euskalkiak, euskara batua eta euskararen estatusa Iparraldean.

**Dialektologia:** Bistan da, Euskaltzaindiak argitaratzen duen Atlas linguistikoan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA), Iparraldeko euskalkiek beren leku osoa badute. EHHAko galde-sortak 2.857 galdera baditu. Hautatu izan ziren 145 inkesta lekuetarik, 45 iparraldekoak ziren: 15 Lapurdin, 18 Nafarroa-Beherean eta 12 Zuberoan. Galdera bakoitzari erantzunak mapa batean bilduak dira eta, bistan da, mapa denetan Iparraldeko euskalkiak edo hizkerak agertzen dira erantzun horien bidez.

Aurreikusitako ziren 12 tomoetarik zortzi argitaratuak dira 2017a arte (ikus *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, I., II., III., IV., V., VI., VII.; VIII.; tomoak). Atlas linguistiko hori obratzeko 4.000 oren baino gehiago grabatu ditu Euskaltzaindiak eta, bestalde, ahozko bilduma franko dauka artxibaturik.

Iparraldeko **literatura** ere zaintzen du Euskaltzaindiak, liburuak argitaratuz edo berrargitaratuz edizio berezietan. Ez ditugu hemen zerrendatuko. Luzeegi litzateke. 2015ean argitaratu duen *Euskal Literaturaren Antologia*-ren lehen tomoan, *Erdi Arotik Errenazimentura*, Iparraldeko idazleek leku handia hartzen dute Bernat Etxepare eta Joanes Leizarragarekin. Literaturaren arloan, lan perspektibak zabalak dira, nahiz ahozko literaturan, nahiz literatura idatzian. Mota askotako ikerketa beharra bada.

<sup>13</sup> IKAS pedagogia zerbitzua Frantziako 1901eko legepeko elkarte da. Euskararen Erakunde Publikoak eta Hezkuntza nazionalak izenpetu duten hitzarmenaren arabera, euskarazko ikasmaterialgintzako zerbitzu publikoa da.

Ahozko alor zabal horretan, Ipar Euskal Herriarendako, Euskaltzaindiak egitasmo berezi bat badu **oralitateaz**. Oralitatearen tokia are handiago izan behar litzateke, kode idatzia oso garatua izan ez zen gizarteetan. Euskal Herriko kasuan, xx. mendeko erdia arte euskarazko ekoizpen idatzia aski ahula izan zen. Eta orain ere, euskara idatzia zinez hedatu baldin bada ere gizarteko eremu eta genero anitzetan, oralitatearen ikertzeko premia badago. Idatziak ez du ahozkoa hurrupatu edo ezabatu, biek beren bidea egiten dute. Oraingo euskal gizarte modernoan ere, komunikabideen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez bereziki, oralitateak eragin handia izaten du hizkuntzaren garapenean eta bilakaeran. Bide horretan Euskaltzaindiak oralitatearen polo handi baten beharra ikusten du Ipar Euskal Herrian, aplikazio-alor desberdinekikoa, hemen zehazten ez ditugunak: oralitatea eta historia, soziologia, antropologia, etnologia, literatura, kantua eta bertsoarritza, linguistika, komunikabideak, IKT, pedagogia... (horri buruz ere X. Videgainen artikulua ikus).

**Terminologia** arloan ere bada lan egiteko Ipar Euskal Herriarendako. Beharrik handiak dira eta Euskaltzaindiak lan horretan parte hartu beharko luke Ikas pedagogia zerbitzuarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin (EEP) batera. Mementoko terminologia eta hizkuntza egokitze lan hori EEPk egiten du, edo euskara teknikarien sareak tokiko beharren arabera. Euskaltzaindiak, Euskal Herri osoa kontuan hartzen baitu euskara lantzen duenean eta alor honetan aspaldiko esperientzia baitu, partaide saihetsezina izan beharko luke Hego Euskal Herrian den bezala. Neologismoan, erran nahi baita hitz berriak eta hitz zaharren adiera berriak sortzea, beharrik handiak dira Ipar Euskal Herrian. Beharrezkoa da euskara eremu berrietan sartzen baita, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, gizarte-sareetan, administrazioetan, irakaskuntzan, komunikabideetan...

**Toponimia:** Ipar Euskal Herriko leku izenen eremuan lan egin du Euskaltzaindiak, Euskararen Erakunde Publikoarekin batera. Bere eginkizuna da toponimoak arautzea, eta Euskararen Erakunde Publikoak euskal toponimoez dituen baieztapen eskaerez arduratzen da. Bi kasu badira: toponimoa Euskaltzaindiak arautua da jadanik eta IGNeko datutegiko leku izenen artean dago<sup>14</sup>, edo arautua ez da oraino. Orduan Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak toponimo horren grafia arautzen du.

Euskaltzaindiak IGN-ekin lan egiten du ere, eta egiten dituen zerrendak eta proposamenak aintzat hartzen ditu IGNk, Ipar Euskal Herriko euskal toponimoak erabakitzeke orduan. IGN-k informazio geografikoa lantzen du Frantzia osoan eta mota askotariko mapak argitaratzen ditu, besteak beste. Leku-izenak biltzen dituen Toponimia batzordea badu, izen bakoitzak zein forma izan behar duen erabakitzen duena. Orotara, Euskaltzaindiak Ipar Euskal Herriko 12.000 toponimo aztertu ditu (2003-2005), 1:25000 eskalako mapetan agertzen direnak, euskal jatorria eta euskararen arauak toponimo horietan kontuan hartuz<sup>15</sup>. Ipar Euskal Herriko toponimo bakoitzari eman behar zaion forma erabaki aitzin, IGN-k kontsultatzen ditu.

<sup>14</sup> Institut national de l'information géographique et forestière (IGN, Oihan eta Geografia Informazioaren Erakunde Nazionala).

<sup>15</sup> xx. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoan sartuak dira.



Toponimiaren arloan aipa ditzagun ere Euskaltzaindiak duela guti argitaratu dituen bi izendegi. 2011n *Euskal Herriko Udalen Izendegia* argitaratu du, eta 2014an *Euskal Herriko Ibaiak* izendegia. *Izenak* bilduman, Ipar Euskal Herriko udal izenei arau izaera ematen da (euskal izena, izen ofiziala erdaraz, herritar izena eta kokatua dagoen lurraldearena edo eskualdearena), eskualde bakoitzaren arauak bilduz. Zuberokoak 92. (1998) eta 99. (1998) arauetan erabakiak izan ziren, Lapurdikoak 108. (2000) arauan eta Nafarroa Beherekoak 122. (2001-2002), 128. (2003) eta 133. (2003) arauetan. *Euskal Herriko Ibaiak* izendegian, Euskal Herriko 414 ibai nagusiren izenak bilduak dira. Horien artean, iparraldekoak deitu den «Lapurdiko kostaldean itsasoratzten diren ibaiak» zerrendan bilduak dira eta 91 dira (2014: 39-42).

Toponimian Iparraldeko beharrei erantzuteko, Euskaltzaindiak lanpostu berezi bat sortu du Baionako ordezkarietan 2017an. Euskararen Erakunde Publikoarekiko partaidetzan, formakuntzak beharren arabera antolatzen ditu, euskara teknikari-garrazzaileentzat eta euskarazko toponimia grafian lan egiten duten bestelako agenteentzat.

Azkenean **euskararen kalitateaz** axolatzen da Euskaltzaindia. Euskararen kalitatea sustatzeko, eta euskara batuaren eta Iparraldeko euskalkien arteko lotura hertsia agerrarazteko, beste erakundeekin sail honen indartzeko, argibideak proposatu nahi lituzke, diagnostiko zehatzean oinarrituak, eta beharren arabeko formakuntzak eskainiz Ipar Euskal Herrian. Ikas zentroak argitaratzen dituen euskarazko liburuen kalitatea bermatzeko nekezia badu, bereziki bigarren mailako dokumentuetan, ikasgai ezberdinetan euskaldun adituak urriak baitira. Egiaztapen hori ez da oraingoa. Aterabidea goi mailako lantalde bat sortzea litzateke. Hautatutako jendea euskara ongi dakiena izanen litzateke eta Iparraldeko ñabardurak ezagutuko litzukeena. Hautatutako jendeen artean gai tekniko bakoitza ezagutzen duena izanen da: matematika, biologia, fisika, kimika, geografia, kirola, eta abar. Proposatuko diren formakuntzak EGA (CI) baino goragoak izan beharko dira, C2koa Europako Hizkuntzetarako Erreferentzia Marko Bateratuaren sailkapenenean.

Tresnak eskaintzen ditu Euskaltzaindiak eta eskainiko ditu<sup>16</sup>, baina azkenean hitzunek, euskararen erabiltzaileek erabakitzen dute. Horri buruz uste dut, Koldo Zuazo dialektologoak erraten duen bezala, emeki-emeki Lapurdin eta Nafarroa Beherean euskalkiak bat egiten ari direla eta, era batez, Iparraldeko euskara batu bat sortzen ari dela, zuberotarrek ere erabiltzen dutena zuberotar ez direnekin mintzatzten ari direnean<sup>17</sup>. Orain berean egiten dudan bezala, artikulua hau idatziz. Pierre Lafitte-k «navarro-labourdin» (nafar-lapurtera) deitzen zuenaren oraingo idatzizko eta ahozko ondorioa, Hegoaldeko euskara batuaren eraginarengatik, besteak beste. Halere, euskara batu berri horrez gain euskalkiak bizi dira adineko euskal jendearen ahoan bereziki.

<sup>16</sup> Artikulu honetan aipatuak diren Euskaltzaindiaren argitalpenak denak, paperez gain, Akademiaren webgunean kontsultagarriak dira ([www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)).

<sup>17</sup> «Batasun bidea hartu dute euskalkiek eurek ere. Hori dio Koldo Zuazo hizkuntzalariak: “Baturantz ari dira ebo-luzionatzen. Berdintzen ari da Euskal Herri osoko euskara”. Batasun prozesu hori Lapurdin eta Nafarroa Beherean argi azaltzen ari dela adierazi du: batu bat sortzen ari dela bi herrialde borietan», Bigarren batasun bidea: euskalkiak, *Berria*, 2016ko urriaren 23a.

#### 4. BUKATZEKO

Bestetik eta bukatzeko, Euskaltzaindiak euskararen kalitateari eta araei buruzko aholku emaille ofiziala izatearen aitorpena galdatzen die Ipar Euskal Herriko herri-erakundeak, Euskal Elkargo berri horri bereziki. Erran bezala, batasunerako bidean ematen dituen arauak, gomendioak eta irizpenak euskararen lurralde guztietarako dira.

Baina Euskaltzaindiak badaki euskara indarberritzeko bidean ezin duela bakarrik, ez eta bakarka, aritu. Ezinbestekoa da Euskaltzaindiaren eta euskara-erabiltzaileen arteko informazioa, iritziak eta proposamenak trukatea eta egituratzea, hizkuntzaren kalitatearen eta araugintzaren bidean, euskal gizartearen, euskara hizkuntza komunitatearen beharrei erantzuteko.

Ezinbestekoa da ere hiztunen beharrak arretaz aztertzea eta erantzuten saiatzea, bai eta euskararen eremuan lanean ari direnekin lankidetzaren trinkoaz aritzea, Jagon jardunaldi honetan Euskal Konfederazioarekin egin den bezala.

#### ERREFERENTZIAK

- Cooper, Robert L., 1989, *Language Planning and Social Change*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Etxebarne, Jüje, 2010, *Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz*, Bilbo: Euskaltzaindia - [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)
- Euskaltzaindia, 2011, *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Izenak Bilduma I, Bilbo: Euskaltzaindia - [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)
- Euskaltzaindia, 2014, *Euskal Herriko Ibaiak*, Izenak Bilduma 4, hirueledun, Bilbo: Euskaltzaindia - [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)
- Euskaltzaindia, 2015, *Euskal Literaturaren Antologia 1: Erdi Arotik Errenazimentura*, Bilbo: Euskaltzaindia - [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)
- Euskaltzaindia, 2016, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2 tomo, Bilbo: Euskaltzaindia - [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)
- Euskaltzaindia, 2017, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, VIII. tomoa, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia, 2017, Arau guztiak, [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)
- Euskaltzaindia, 2017 (5. argitaraldia), *Orotariko Euskal Hiztegia*, argitaraldi numerikoa, [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)
- Euskaltzaindia, 2017, *Oinarriko hiztegi juridiko-parlamentarioa*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskararen Erakunde Publikoa, 2013, *Nola Erran* frantses-euskara hiztegi elektronikoa, [www.nolaerran.org](http://www.nolaerran.org).
- Fishman, Joshua, 2006, *DO NOT Leave Your Language Alone: The Hidden Status Agendas Within Corpus Planning in Language Policy*, Mahwah, New Jersey: Lawrence Erlbaum Associates.
- Kloss, Heinz, 1969, *Research possibilities on group bilingualism: a report*. Laval (Quebec): International Center for research on Bilingualism.
- Lafitte, Pierre, 1995 (1944), *Grammaire basque Navarro-labourdin littéraire*, Edition revue et corrigée, Donostia: Elkar.
- Lekuona, Manuel, 1968, Euskeraren batasuna, Arantzazu-ko biltzarrak, *Eusker*, XIII, Bilbo, 139-141 - [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)
- Mitxelena, Koldo, 1968, Ortografia, Arantzazu-ko biltzarrak, *Eusker*, XIII, Bilbo, 203-219 - [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)

- Oyharçabal, Bernard, 2002 L'unification orthographique et morphologique du basque standard, in *Codification des langues de France*, Dominique Caubet, Salem Chaker, Jean Sibille (ed.). Paris: L'Harmattan, 123-140.
- Sánchez Carrión «Txepetx», Jose Maria, 1987, *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, San Sebastián.
- UZEI, Soziolinguistika Klusterra, HPS, 2009, *Soziolinguistika Hiztegia*, Lexikoa SL hiztegia 20090318-UZEI-SLK-HPS.doc, argitaratu gabe.
- Videgain, Xarles, 2018, Euskaltzaindiak Euskal Herriko Garapen Kontseiluari, *Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa*, Jagon bilduma 67-79 Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo, 2005, *Euskara batua Ezina ekinez egina*, Donostia: Elkarlanean.

# HIZKUNTZA POLITIKAREN ERRONKAK

Aines Dufau, Marie-Andrée Ouret eta Sébastien Castet  
Euskal Konfederazioa

## SAR-HITZA

2017an argitaratuko diren VI. inkesta soziolinguistikoko emaitzen zain garen bitartean, azken inkesta soziolinguistiko guzietan Ipar Euskal Herrian hiztun kopuruak beherantz segitzen duela erakusten dute, nahiz eta 2011koak erakutsi duen 16-24 urteko adin tartean goititze bat badela. Erabilerari dagokionez ere, behe-itzeak ez du oraino etenik izan.

Datu kezkarri horiek are kezkarriago bilaka daitezke Ipar Euskal Herriko oraingo, eta bereziki heldu diren urteetako, demografiaren bilakaera kontuan hartzen ez badugu. Izan ere, 2016an 298.000 jende bizi zen Ipar Euskal Herrian, horien erdia Ipar Euskal Herrikan kanpo sortua delarik. Eta INSEE<sup>1</sup> egin inkestaren arabera, lau urteren buruan Ipar Euskal Herriak 8.000 biztanle gehiago izanen ditu (aurreikuspen apalenaren arabera), 42.000 gehiago aurreikuspen gorenaren arabera. Horien artean kopuru handia Euskal Herrikan kanpo hona bizitzera etorriko diren jendea direla aurreikusten denez, ezinbestekoa da jende horiek euskarara erakartzera, euskara ikasi, erabili eta transmititu dezaten. Eta hori lortu ahal izateko, baitezpadakoa da, lehen urrats gisa, hiztun kopurua nabarmen handitzea.

2013an Euskal Konfederazioak ikerketa lan bat egin zuen, haurren eskolatzeari zentratuz, ondoko helburuarekin: 2050ean jendetzaren %35 euskaraz aritzeko gai izatea, BI maila lortuz. Ikerketa horren emaitzak belaunaldiz belaunaldiko emaitza soziolinguistikoetan integratuz, ohartu ginen gaur egungo euskalduntze erritmoa atxikiz 2050ean jendetzaren %21 gehienez izan daitekeela elebidun, Unescoren arabera hizkuntza bat bizirik atxiki ahal izateko lurraldeko biztanleen %30 bederen mintzatzeko gai izan behar direlarik. Argi da, beraz, gaur egungo garapena ez dela nahikoa eta azkartu behar dela, hiztun gehiago irabaziz.

Baina eskola bidezko transmisioaz gain, beste transmisio bideak ere sustatzea eta garatzea beharrezkoa da, helduen irakaskuntza edota familia transmisioa adibidez. Eta, 1987ko Txepetxen teoria gogoan harturik<sup>2</sup>, bistan da ezagutzarekin batera era-

---

<sup>1</sup> *Institut national de la statistique et des études économiques* (INSEE, Estatistikaren eta ikerketa ekonomikoaren erakunde nazionala).

<sup>2</sup> Sánchez Carrión «Txepetx», Jose Maria, 1987, *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, San Sebastián.

bilera eta motibazioa ere bultzatu behar direla, hizkuntza baten berreskuratzea hiru adar horien elkar-elikatzetik pasatzen baita.

Ikus dezagun, beraz, hiru eremu horietan bultzada bat emateko arloz arlo heldu diren urteetako erronkak zein diren, hots, zein diren epe motz-ertainean gainditu beharreko blokatze egoerak eta eman beharreko urrats berriak hizkuntza politika orokorrean jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa gaurdanik emateko gisan.

## TRANSMISIOA

### Irakaskuntza

Beharrezkoa da arlo honetan jauzi kuantitatiboa ematea.

Azken urteetan ikastola berriak ireki dituzte. Seaskak 2020rako finkatu erronka 4.500 ikasle eskolatzea da 40 ikastolatan murgiltze erduan (34 lehen mailako ikastola, 4 kolegio, lizeo orokorra eta lizeo profesionala).

Bestalde, ikastolak aparte, ereduaren eraginkortasunaz oharturik, murgiltze eredu gero eta eskola publiko eta pribatu gehiagotan martxan ezarri dute ama eskolan. Murgiltze eredu lehen mailako eskola elebidun guzietara hedatu behar da.

Bigarren mailari dagokionez, eskaintza elebiduna eskola guzietan bermatu behar da, kolegio eta lizeo guzietan, sail profesionalean nahiz teknologikoan, ordutegi parekotasuna segurtatuz.



Ezkerretik eskuinera: Marie Andrée Ouret, Aines Dufau, Bernadette Soulé, Pantxika Maitia kazetaria eta «Battittu» Coyos

Goi ikasketak direla eta, euskal ikasketez gain goi mailako euskal irakaskuntza ere garatu behar da. Irakasleei dagokienez, ezinbestekoa da irakasle kopuru egokia segurtatzea, garapenaren beharrei aurre egiteko neurri ausartak emanez, hala nola formakuntza planak edota kontratatze moldeak.

Kantitatearekin batera, kalitatea ere bermatu behar da hainbat arlotan: hizkuntza mailari dagokionez, ebaluazio eta zertifikazio moldeak definitu behar dira agiri eta diplometan (euskaraz ikasia euskaraz ebaluatzea, euskara LVI batxilergoan...); ikasleek batxilergoraino eta zikloka erdietsi behar dituzten konpetentziak, jakitateak eta helburu horietara heltzeko programak finkatu behar dira; beharren araberrako ikastresnak gai eta maila guzietan hornitu behar dira; irakasleen oinarritzko formakuntza eta formakuntza jarraikia plantan eman behar dira, euskal irakaskuntzaren berezitasunak kontuan hartuz; Hego Euskal Herriko erakundeekiko loturak suspertu behar dira...

Ikus dezakegun bezala, anitz gelditzen da egiteko eskolatze bidezko transmisio eraginkorra segurtatu nahi bada. Baina kalitatezko irakaskuntza sistemak plantan eman bitartean, baitezpadakoa da orain arteko oztopoak behin betiko gainditzea. Ikastoletan inbertsioak egin nahi dituzten erakunde publikoei horretarako ahala eman behar zaie. Irakasle postu kopuruaz, gelen irekitzeaz... eta abar errazkiago kudeatzeko, Ipar Euskal Herrirako ikuskari bat izendatu behar da. Bestalde, lizeoko azken urtean diren ikasleentzat bi traba nagusi gainditu behar dira: batxilergoa osoki euskaraz pasatzeko ezintasuna, eta unibertsitatean sartzerakoan selektibitatearen arazoa.

## Helduen irakaskuntza

Eskola bidezko transmisioarekin batera, helduen irakaskuntza funtsezko arloa dugu hiztun berriak sortzeko, ezagutza bermatzeko.

Gaur egun Ipar Euskal Herrian 1.200 bat helduk ikasten dute euskara. Finkatua den helburu orokorra ondoko 6 urteetan hiztun kopuru berrien kopurua %25 emendatzea da. Lortu beharreko mailari dagokionez, helburua da 800 lagunek A2 maila lortzea, 720k BI, 300k B2 eta 200k CI.

Baina helburu horiek lortzeko, helduen irakaskuntza **antolatu, diruztatu eta garatu** behar da. Eskaintzari dagokionez, irakaskuntza lekuen sarea osatzea beharrezkoa da. Sarea osatzeaz gain, jendea gau eskoletara erakarri behar da, eta erakar-garritasuna areagotzeko sustapen kanpaina instituzionalak antolatu behar dira, jandaneko egiten den komunikazioa osatuz. Bestalde, beharrezkoa da irakaskuntza egituren finantzamendu sistema plantan jartzea eta formatzaileak profesionalizatzea eta haien formatzeko ikastaroak unibertsitatean antolatzea. Klaseen finantzamendua dela eta, euskara ikasi nahi duen orori baldintzak bermatzea erronka handia da (beka sistema, formakuntza profesionalaren bidezko diruztatzea...).

Gero eta gehiago dira euskarazko formakuntza segitzen duten zerbitzu publikoetako langileak. Horiei ere erraztasunak eskaini behar zaizkie, formakuntza lan teneoretan segiaraziz, adibidez.

Euskara mailari dagokionez, beharrezkoa da maila guztietako ziurtagiriak finkatzea, izan ikaslea bere ikas-prozesuan animatzeko, izan lanpostu jakina betetzeko lortu beharreko euskara maila ziurtagiri bidez lortua dela baieztatzeko.

Bestalde, beharrezkoa da ere ikasmoldeak berritu eta egokitzea, eta hizkuntza jarduera aldatzeko tresnak sortzea, bideak ondokoak izan daitezkeelarik: ikastaro trinko luzeak (6-9 hilabetez) iraunkortzea profesionalak formatzeko; irakaskuntza molde konbinatuak garatzea (presentziala, birtuala, autoikaskuntza...); teknologia berrien bidezko formakuntzak eta araberako tresnak sortzea, tutoretza eta *coaching* sistemak laguntzea; lana euskaraz egiten dutenen arteko loturak sortzea (foroak, formakuntzak, elkar-laguntza...).

## ERABILERA

### Euskarazko aisialdiak

Eskola erreformarekin eta ikastoletan eta eskola elebidunetan emendatuz doan ikasle kopuruarekin, aisialdi arloa funtsezko bilakatu da euskara eskolatik kanpo ateratzeko eta haurrak eguneroko bizian euskaraz bizitzen laguntzeko.

Euskarazko animazio eskaintza garatu behar da bilgune berriak lurralde osoan irekiz, 2020ri begira helburua 6 zentro berri irekitzea delarik. Irekitzeekin batera, badira hainbat elementu zaindu beharrekoak, hala nola II-I5 urtekoentzat egitura egokiak proposatzea edota adimen urriko haurrei euskarazko harrera eskaintzea. Betiere eskaintzari loturiko beste puntu bat, labelizazioa: haurtzaindegietan egiten den bezala, beharrezkoa da aisialdi arloan ere zentroak labelizatzea proposatzen duten eskaintzaren arabera. Langileriari dagokionez, inportantea da animazio arloko euskarazko formakuntzak garatzea eta euskarazko formakuntza profesionalak (BPJEPS<sup>3</sup>, etab.) sortzea, eta bistan dena, euskarazko material pedagogikoa garatzea (animazioei eta formakuntzei egokitu tresnak).

Eta diplomei dagokienez, beharrezkoa da mugaz gaindiko baliokidetasuna sortzea animazio arloko frantses eta espainol diplomen artean.

### Hedabideak

Hedabideek ere rol handia dute euskararen zabalkuntzan eguneroko bizian. Gaur egun euskarazko hedabideak sendotu eta profesionalizatu dira. Haien garapena lagundu behar da, besteak beste inbertsiorako laguntzak segurtatuz.

Hedabide pribatuetan baino haratago, hedabide publikoetan ere (bai irratian, bai telebistan) euskararen presentzia azkartu behar da, kuotak ezarriz.

Hedabideen arloan ditugun presazko beste bi erronka handi: lurralde euskarazko telebista baten sortzea eta ikus-entzunezko ekoizpenerako zentroa (Media Center) zutik ezartzea.

---

<sup>3</sup> *Brevet Professionnel de la Jeunesse, de l'Éducation Populaire et du Sport* (BPJEPS, Gazteriaren, Herri Hezkuntzaren eta Kirolaren Ziburtagiri Profesionala).

## Euskara bizi publikoan

Erronka garrantzitsua dugu hau eta helburu argia: euskaraz aritzeko guneak biderkatzea eta euskararen ikusgarritasuna areagotzea, horiek eragina baitute norbanakoetan euskara ikas eta erabili dezaten. Bizi publikoa aipatzen dugularik, bi eremu nagusi desberdin daitezke: administrazioak eta zerbitzu publikoak alde batetik, eta arlo sozioekonomikoa bestetik.

### *Administrazioak eta zerbitzu publikoak*

Administrazioari dagokionez, badira herriko etxe anitz euskara garatu eta erabiltzeko desmartxa batean engaiatuak direnak (Euskararen Erakunde Publikoarekin izenpetu hobekuntza kontratu bidez edota Euskal Konfederazioarekin 2000 eta 2004 artean izenpetu hitzarmen bidez). Arlo horretan, helburua da hemendik 2020ra herriko etxe guziek euskara plan bana adostu eta martxan jartzea, hots, euskara garatzeko desmartxan engaiatuak izatea helburu kualitatiboak eta kuantitatiboak denboran finkatuz.

Beste instituzioei dagokienez, Estatuko, Eskualdeko eta Departamenduko zerbitzuek euskarari buruz desmartxa hedatu behar dute, tokiko zerbitzuetan komunikazioa eta seinaletika euskaraz ere segurtatuz, harrera langileentzako formakuntza planak eginez...

Eta zerbitzu parapublikoei begira, euskararen aldeko desmartxa batean oraino engaiatuak diren/ez diren egitura guzietan euskararen erabilera plantatu eta garatu behar dira: SNCFn<sup>4</sup>, Postan, Pôle Emploi, Merkatal Ganbaran, CAFn<sup>5</sup>, Baionako Ospitalean...

### *Arlo sozioekonomikoa*

Bizi publikoan euskararen garatzea aipatzen delarik, administrazioei eta zerbitzu publikoei bakarrik egiten diegu erreferentzia maiz, enpresen munta ahantziz. Alta, arlo sozioekonomikoa ere garrantzi handikoa da, gure eguneroko bizian presente baita.

Gaur egun, Ipar Euskal Herrian, 200 bat entitate pribatu engaiatu dira euskararen alde Bai Euskarari desmartxarekin bat eginez. Entitate horien artean, enpresa eta saltegi anitz. Beharrezkoa da Bai Euskarari ziurtagiri kopurua biderkatzea eta proiektuan Ipar Euskal Herri osoko gero eta entitate gehiago sartzea.

Orokorki, eragile pribatuekin hitzarmenak garatu behar dira, orekaz Ipar Euskal Herri osoan, jende anitz biltzen duten gunetan lehentasuna ezarriz (hipermerkatuetan, komertzioetan, bankuetan...). Horietan egin beharreko lehen lana kanpo komunikazioa euskaraz egiten laguntzea da (iragarkiak, seinaletika, etiketatzea, web-guneak...).

<sup>4</sup> *Société nationale des chemins de fer français* (SNCF, Frantses Trenbideen Sozietate Nazionala).

<sup>5</sup> *Caisse allocations familiales* (CAF, Familia Laguntzen Kutxa).



## MOTIBAZIOA

Ezagutza eta erabilerarekin batera motibazioa da kontuan hartu beharreko hirugarren elementua hizkuntza baten berreskuratze prozesuan. Eta agian landu beharreko lehena da kontuan hartzen badugu motibaziorik gabe arrazoirik ez dela hizkuntza bat ikasi, erabili edo transmititzeko.

Zergatik eta zertarako ikasten eta mintzatzen da hizkuntza bat? Zein dira hizkuntza bat ikasi, landu eta erabiltzeko arrazoiak? Hizkuntza motibazioa aztertzeke, lau arrazoi nagusi aipatzen dira: bi hiztunaren kanpokoak (legearen larderia eta behar soziala) eta bi hiztunaren barnekoak (plazera eta nortasun kolektiboaren kontzientzia). Euskarari dagokionez, Ipar Euskal Herrian, frantses legediak ez du deusetarako behartzen. Euskara ikasi, erabili eta transmititzeko gogoia izateko, beraz, behar sozialaren, plazeraren eta nortasun kolektiboaren kontzientziaren bidez piztu behar da. Sar-hitzean aipatu dugun bezala, ezagutza, erabilera eta motibazioa elkar-elikatzen duten hiru zutabe dira. Ikus ditzagun orain neurri konkretu batzuk norbanakoen motibazioa sustatzeko, euskara ikasi, erabili eta transmititu dezaten.

### Norbanakoen motibazioa sustatu euskara ikasi dezaten (helduen irakaskuntza)

Euskal Elkargoak eta orokorki egitura publikoek sustapen eta sentsibilizazio kanpaina instituzionalak antolatzen ahal dituzte, kanpotik etorri helduei zuzendu kit bat proposatuz, adibidez, herri mugimenduak egiten duen sentsibilizazio lana osatuz, euskara ikasteko gogoia emateko.

Euskal Elkargoak egin dezakeen beste gauza bat da zenbait eskualdetan mar txan ezarria den beka sistema orokortzea, dirua ez dadila traba bilakatu euskara ikasi nahi duenarentzat.

Euskarazko kultur ekitaldiek (bertso saioak, euskarazko antzerkiak, filmak eta kabalkadak...) ere garrantzi handia dute: behin pertsona baten interesa piztu eta, pertsona horrek euskara ikasteko gogoia izanen du kultur ekitaldi hauek ulertzeko.

### Norbanakoen motibazioa sustatu euskara erabili dezaten

Hizkuntza ohitura aldaketari buruzko formakuntzak antolatzen segitu behar da (TELP<sup>6</sup>, bezalako tailerrak), euskal hiztunak euskararekiko zer harreman duen ikus dezan.

Euskaraz aritzeko guneak biderkatu behar dira eremu publikoan zein pribatuan: arnagune berriak sortuz, euskararen erabilera erraztuko da, eta eguneroko bizian presentzia areagotuko den heinean euskal hiztunak euskara erabiltzeko duen motibazioa ere azkartuko da.

---

<sup>6</sup> «TELP tailerrak norberaren inguruan euskararen erabilera areagotzeko tresna baliagarria dira. Norberaren hizkuntza eta ohituren kontzientzia bartzera laguntzen baitu eta euskaraz gebiago eta erosoago egiteko baliabideak eskaintzen baititu» ([www.lantalan.eus/telp/telp-tailerrak-lan-munduan](http://www.lantalan.eus/telp/telp-tailerrak-lan-munduan)).

Plazerari lotu ekimenak biderkatu behar dira: Mintzalasai bezalako ekimenak, Glisseguna, mintzapraktika taldeak (kafe baten inguruan bilduz, mendi ateraldian...).

### **Norbanakoen motibazioa sustatzea euskara transmititu dezaten**

«Kit euskara» sortu berrien guraso guzietan sistematikoki helarazi behar zaie (sentsibilizatzea, informazio praktikoak). Halaber, elebitasunaren onuraz sentsibilizatzeke ekintzak antolatu behar dira (elebitasun goiztiarrari buruzko mintzaldiak...).

### **BURURAPENA**

Ezagutza, erabilera, motibazioa dira, adituek diotenez, eta euskaletzek egun guzietan frogatzen duenez, hizkuntzaren biziraupenaren gakoak.

Hauek dira etorkizuneko hizkuntza politikak landu baino gehiago irauli behar dituen atalak. Puntu edo behar guzi-guziak ez badira hemen zerrendatu ahal izan ere, ekintza altxagarriak identifikatuak dira. Areago, helburuen maila da hemen finkatua. Hizkuntza politika bat antolatzekotan, egoera berria eta erakundeen indarrak mobilizaturik, maila hori da bistatik galdu behar ez dena: horretan dago arronka nagusia.



# ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK ETA EUSKARAREN ETORKIZUNA IPARRALDEAN<sup>1</sup>

Mathieu Bergé

Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria<sup>2</sup>

## I. LEHEN ALDIZ IPAR EUSKAL HERRIAN EUSKALDUN KOPURUAREN GAINBEHERA GELDITU DA

2016ko inkesta soziolinguistikoaren arabera, Ipar Euskal Herrian 51.000 euskaldun daude. Hauek 16 urtetik gorako biztanleen %20,5 osatzen dute (EAE-n %34 eta Nafarroan %13). 2011n kopuru bera zen baina biztanleriaren %21,4 osatzen zuten.

Hiztunen zati erlatiboak behera egiten segitzen duen arren, balio absolutuaren egonkortzea eta belausaldira gazteenetan ematen den gorakada, eta baita ere gizarteak adierazten duen eredu guztien (murgiltzea edo elebidun parekatua) aldeko eskaera azkarra ikusirik, hasiera batean elkarrekin eta, ondoren, Iparraldeko hizkuntza politika publiko gaztearen laguntzarekin eraman diren euskararen aldeko ekintzek beren lehen emaitzak eskaintzen dituzte.

Euskararen politika publikoak zilegitasuna irabazi du, bai, baina gaur egun bere hazkundera loturiko zailtasunei aurre egin eta egokitu behar zaie.

Adibide gisa, euskarazko irakaskuntzaren aldeko eskaera soziala etengabe emendatzen den ber, azken bi urteotan Hezkuntza Nazionalak plazaratu dituen 24 irakasle postuetatik 10 besterik ez dira bete. Horrek agerian uzten du lekuko euskarazko irakasle edo irakaslegaien harrobia ez dela aski emankorra.

Profesional euskaldunen behar hori hizkuntza politikaren arlo guztietan ematen da: haurtzaroan tipikoki komunikabide eta ikus-entzunezkoa.

Ipar Euskal Herrian Euskal Elkargoaren sortzeak, eta honek euskara zein gascoiaren aldeko hizkuntza politikaren eskumen partekatua hartu eta Euskararen Erakunde Publikoan sartzeko Frantziako Estatuarekin, Akitania Berriko Eskualdearekin eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekin, erakunde arteko politika publikoari bultzada bat eman behar dio.

---

<sup>1</sup> Artikulu hau *Hermes* aldizkarian frantsesez agertu da: Bergé, Mathieu, 2017, «Relations interinstitutionnelles et avenir de l'euskara en Iparralde», *Hermes*, 77, Bilbao, Sabino Arana Fundazioa, 18-24.

<sup>2</sup> Mathieu Bergé XXI. Jagon jardunaldian parte hartu zuenean Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria zen. Geroztik Beñat Arrabitek, Euskal Elkargoko euskara arduradunak, lehendakaritza hori bere gain hartu du.

Era berean, Nafarroa, euroeskualdean sartu eta hizkuntza politikaren alorrean hiru aldeko hitzarmena izenpetu duenetik, Euskara azkartu eta bere lekua sendotzeko mugaz gaindiko esparru bat osatzen ari da.

Hazkunde hau hazkunde krisialdi bilaka ez dadin, eta eraginkortasun handienaren beharraz, dagoeneko hizkuntza politikaren eragile diren erakundeei, elkarteei eta gizarte zibilarri dagokie kontsentsu soziala sendotzea, bakoitzaren jardun esparrua zehaztea eta eragileak gero eta gehiago profesionalizatzea.

## 2. ALDEKO TESTUINGURU POLITIKO ETA SOZIALA

### 2.1. Kontsentsu politiko eta instituzionala

#### 2.1.1. Lurraldeko kontsentsu bat

1970eko hamarkadan elkarrekin zuten nagusiki euskararen gaia eramaten. 1990-2000. urteetan berriz, botere publikoak beren ardurak hartzen hasi ziren, euskara eta euskal kultura 1993ko «Euskal Herria 2010» deituriko prospektiba lanean kontuan hartzearekin, 1997ko Ipar Euskal Herriko antolamendu eta garapen eskemaren baitan hizkuntza antolamendu eskema bat onetsi eta 2000ko Hitzarmen Berezian euskarari buruzko atal bat onartzearekin, eta aldi berean 2004an EEP sortu zen arte, hizkuntza politika publikoa pixkanaka erakundeetara hedatuz, eztabaida publikoa baita euskararen aldeko kontzientzia soziala eta politikoa piztu ziren.

Kontsentsu horren lehen adierazpen nabarmena 2006ko abenduan gertatu zen, EEPko administrazio kontseiluak (Frantziako Estatuak, Akitania Berriko Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, eta herrien ordezkariak) aho batez hizkuntza politika egitasmoa onartu zuenean.

Hizkuntza politika proiektu hura hiztun kopuruaren gainbehera azkarra ematen zen unean kokatu behar da (15.000 galera 1991 eta 2001 artean). Bazituen, hurrenez hurren, helburu nagusi bat eta lehentasunezko itu bat: hiztun osoak (euskara menperatzen dutenak eta lanean, etxean, zein jendartearen erabil dezaketenak) eta belaunaldi gazteak, hauen artean euskararen berpizte bat ikus daitekeelarik.

Urraspidea handinahia eta ausarta zen. Eragileak beren kabuz lotu baitzaizkio eta indarrean den lege koadro batean kokaturik, 2006ean finkatu zen estrategia gaur egun oraindik, eragile guztiek partekaturik daramate. Horri zor zaio ahobatezkoaren kultura bat, (erakunde eta alderdi guztien artean), nahiz eta batzuetan diru eta legezko oztipoek ez duten osoki garatzen uzten.

#### 2.1.2. XXI. mendeko Frantziako Errepublikarentzako ezinbesteko nabia

«Federalismoak eta sineskeriak bretoieraz hitz egiten dute, emigratioak eta Errepublikaren gorrotoak alemanez, kontra-iraultzak italieraz (okzitanieraz) eta fanatismoak euskaraz (...). Fanatiko eta kontra-iraultzaileen aldekoak baizik izan daitezkeen kalte eta erru tresnak suntsi ditzagun. Monarkiak Babelgo dorrea beza-

lakoia izan nahi zuen, eta ez zitzaion arrazoirik falta». Hauxe da Frantziako Errepublikaren II. urteko «pluviôse»-aren 8an (1794ko urtarrilaren 27an) Barère jaunak Menditarren Konbentzioan salbamendu publikorako komitearen izenean bota zuen mintzaldia.

Lerro hauek, luzaz iraun duen nazionalismo jakobinistaren lekuko izanik ere, Frantziako Errepublika bere hizkuntzak berriz deskubritzen ari da. Orain, lekuan lekuko, pragmatismoz, hauen biziberritzeari ekiten dio, nazio mailako borondaterik ez erakutsi arren.

Bizkitartean, hizkuntza politikak Frantzian estatusik ez duela erratea erru bat litzateke. Ezen, bere Konstituzioaren 2. artikulua «Errepublikako hizkuntza frantsesa dela» dioen bezalaxe, 2008ko uztailaren 23an berridatzi zenean gehitu zitzaion 75-I. artikulua «eskualdeetako hizkuntzak Frantziaren ondare direla» zehazten baitu. Beraz, Frantses Iraultza hasi zenetik bi mende iragan eta, azken artikulua honek «eskualdeetako hizkuntzak» konstituzioan sartu zituen.

1994ko agorrilaren 4ko frantses hizkuntzaren erabilerari buruzko 94-665 legeak «irakaskuntza, lan, truke eta zerbitzu publikoetako hizkuntza» izendatu zuen frantsesa. Baina, 21. artikulua honela zehazten du: «frantses hizkuntza erabiltzeko neurriak Frantziako eskualdeetako hizkuntzei buruzko legedi eta arauak bermatuz aplikatuko direla eta ez dutela hauen erabilpena oztopatzen». Eta gainera, lege horretako 2. artikulua ez du gehiago debekatu zerbitzu publikoetan itzulpenak erabiltzea.

Hezkuntzari dagokionez, frantses hezkuntza kodeko L 312-10 artikulua hauxe dio: «Frantziaren ondare diren eskualdeetako hizkuntza eta kulturen irakaskuntza beren usaiazko eskualdeetan eginen da lehentasunez. Irakaskuntza hau eskolaratze garai osoan zehar eman daiteke Estatuaren eta hizkuntza hauek erabiltzen diren lurraldeetako kolektibitateen arteko hitzarmen bidez zehazturiko baldintzetan.

Eskualdeetako hizkuntza eta kulturen hautuzko irakaskuntza honako bi eredu-tako batean eskaintzen da:

1. Eskualdeko hizkuntza eta kulturaren irakaskuntza.
2. Irakaskuntza elebiduna, frantsesez eta eskualdeko hizkuntzetan».

Testu hauek, exhaustiboak ez izaki, hizkuntza politikaren jokagaiez zatika, nazio borondaterik gabe eta traba eginez ari zaizkigu. Horrela, lurraldeen eta Frantziako Estatuaren lekuko ordezkarien (Prefeten) esku uzten dute sorkuntzaz eta ingeniartzaz lege koadroaren malgutasuna urratzeko ardura.

xxi. mendeko Frantziako Errepublikak hizkuntza horiekiko borondate ona erakutsi behar du, lege berezi batekin eta lurraldeen arteko berdintasuna bermatuko lukeen nazio mailako bultzada politiko batekin.

## 2.2. Jendarteko kontsentsua

### 2.2.1. Hizkuntza politika publiko baten indarra

Hastapen batean, elkarteek egin zuten lana lagunduz eta garatuz, eta kontsentsu instituzional eta politikoak lagundurik, politika publikoak euskararen aldeko jendar-

tearen kontsentsua eraikitzen lagundu du. Horren adierazle nabarmenena dugu haurrak euskaraz eskolaratzeko gizartearen eskaera.

Eredu guztiak kontuan hartuz (murgiltzea, elebidunak, publikoa, elkarteak eta giristinoa), ama eskolako haurren % 45ek euskarazko irakaskuntza du (murgiltze elebiduna edo oren parekotasuna) eta lurraldeko eskolen % 65ek irakaskuntza elebiduna eskaintzen du.

Kopuru hauek urtez urte emendatzen doaz, alde batetik, irakaskuntza elebidunaren eskaintza garatzen delako, eta, bestetik, gurasoek eta gizarteak oro har libreki horretara jotzen dutelako. Izan ere, legediak ez du horretarako beharmendurik ezartzen.

### 2.2.2. *Une historikoa*

2017ko urtarrilean Euskal Elkargoaren sortzeak, honek hizkuntza eskumen partekatua hartzeak eta EEPn borondatez sartzeak (Frantziako Estatuaren, Akitania Berriko Eskualdearen eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren hein berean dirua ekarriz) hizkuntza politikari bultzada berri bat eman beharko liokete.

Hizkuntza politikaren eskumena partekatua izateak Iparraldeko jardun publikoaren maila guztiei dei egiten die, herrietatik Frantziako Estaturaino, kontsentsu instituzional, politiko eta soziala mantentzera, horrela kausituko baita hizkuntza politikaren egituraketa, artikulazioa eta diru zein teknika baliabideen emendatzea, bai EEPren baitan, baita bakoitzaren eskumen alorretan.

EEPren aurrekontuaren emendatzea eta horrekin batera Euskal Elkargoan hizkuntza politika zerbitzu on baten egituratzea ezinbesteko bi tresna osagarri ditugu politika publikoa azkartu eta politika hori gauzatzen duten eragile pribatuak laguntzeko.

Badirudi gaur egun Iparraldean erakundeen arteko loturen gaia dela erronkarik nagusia, baldin eta eraginkortasunik galdu nahi ez badugu; aldi berean, euroeskualdeko eta Europako testuinguruan aukera bikaina izan daiteke.

## 3. HIZKUNTZA POLITIKA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO LOTURAK

### 3.1. Ipar Euskal Herrian

#### 3.1.1. *Eskubide arrunta, eragileen profesionalizatzea eta hizkuntza politika*

Frantziako Estatuak, Akitania Berriko Eskualdeak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak eta Euskal Elkargoak, denak EEPn bildurik, elkarren artean zehazten dute Hizkuntza Politika Proiektua. Proiektu hau da eraman beharreko politikaren koadro amankomuna.

EEPko kide diren erakundeek eta Frantziako Estatuak bakoitzak bere hizkuntza politika estrategia berezia zehazten du, bere eskumen esparruan gauzatzeko. Estrategia berezi hauek elkarren artean adosturiko estrategia orokorrekarekin bat egiten dute, eta nahi izanez gero, EEPren laguntza ukan dezakete beren proiektuak bideratzeko.

Horiek horrela, erakunde bakoitzak hizkuntza politikaren alde ezar dezakeen laguntza publikoa honela gauza liteke:

- EEP diruztatuz eta bere gobernantzan parte hartuz.
- Bere eskumen esparruan hizkuntza politika zerbitzu bat eta estrategia bat egituratuz, esku hartze araudi propio batekin.
- Eskubide arrunta ahal bezainbat baliatuz, hizkuntza politikaren eragile pribatuei laguntza ekartzeko.

Eskubide arruntaren nozioak kolektibitateek hizkuntza politikara bideratzen dituzten diru kopuruak baino handiagoak ekar ditzake. Beste onura bat ere badu: maiz elkartetan antolatuak diren hizkuntza politikako eragileak egituraketa eta profesionalizazio logika batean sartzea, hain zuzen.

Adibide gisa, Seaskaren Baionako Lizeoa, AEK-ren bidez antolatu diren langabetuen aldeko formakuntza intentsiboak, eta Iparraldeko telebista operadoreen aldeko laguntzak, Akitania Berriko sustapen, formakuntza eta numerikorako zerbitzuetako eskubide arrunteko baliabideetatik diruztatu ziren.

### 3.1.2. EEP, EHE eta Herrien arteko artikulazioa

Euskal Hirigune Elkargoak (EHE) hartu duen hizkuntza eskumena partekatua dela eta, herri bakoitzak bere eskumenetatik hizkuntza estrategia eta politika berezkoak gara ditzake.

Hortaz, Iparraldean hizkuntza politika egituratzeko erronka nagusiak EEPren, Euskal Elkargoaren, eta herrien arteko lotura egokian datza.

EEPk estrategia amankomuna partaideekin zehazten eta egokitzen segitu beharko luke. Horrez gain, honakoak ere egingo lituzke:

- proiektuak sustatzen dituzten bere kideentzako laguntza eginkizun bat eskaini (beren eskariz, bakoitzaren eskumenen baitan hizkuntza politika zehaztu eta gauza dezaten),
- botere publikoetako maila desberdinekin zer ikustekorik duten zeharkako baliabide kolektiboak kudeatu,
- erakundeek eskubide arruntetik ematen dituzten finantzamenduak azkartzeko diru laguntzak eskaini,
- eta, herri nahiz herri-elkargo mailatik gorako operadoreak euskararen erabilerara garatzen lagundu.

Azkenik, datu soziolinguistikoen, hizkuntza politikaren adierazleen eta politika publikoen eraginkortasunaren behatoki eginkizuna ere bete beharko luke.

Euskal Elkargoak bere eskumen eta ekintza esparruetan hizkuntza politika bat garatu beharko luke. Gainera, kide dituen herriak, beren eskumen eta ekintza esparruetan, hizkuntza politika gauzatzen lagundu beharko lituzke eta horretarako diru laguntzak (eskubide arrunt edo berezikoak) esleitu. Horrekin, herri eta herri-elkargoetako eragileak euskararen erabilpena garatzen lagundu beharko lituzke, eta herrien mailan gauzatu diren politiken behatoki eginkizuna bete.



Herriek, beren hizkuntza politikarako zerbitzuen bidez edo Euskal Elkargoaren gidaritzapean, euren eskumen esparruetako politika gauzatu beharko lukete eta, behar izanez gero, herriko eragileei diru laguntzak eman.

Hiru maila hauen arteko artikulazio proposamen honek etengabeko elkarrizketa batean eta osagarritasun zein eraginkortasun xede batekin soilik funtziona dezake.

## 3.2. Euroeskualdeko koadroa eta testuingurua

### 3.2.1. Euroeskualdeko hitzarmenak eta plan estrategikoa

*Aldebiko eta hiru aldeko hitzarmenak:*

—Eusko Jaurlaritzak eta EEPren arteko aldebiko hitzarmena: 2017ko martxoaren 29an, Bingen Zupiria Gorostidi Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburuak, Miren Dobaran sailburuordeaz lagundurik, eta Erakunde Publikoko lehendakariak hizkuntza politikarako lankidetzak hitzarmen bat izenpetu zuten 2017-2022 aldirako, aurreko akordioaren ildo beretik.

Eusko Jaurlaritzak eta Iparraldeak mugaz gaindiko hizkuntza lankidetzaren alorrean sakontzeko duten nahia esker eraberritu ahal izan da mugaz gaindiko aldebiko akordio hau (2006an Miren Azkaratek, Patxi Baztarrikak eta Max Brisson-ek bultzatua). Lankidetzak horrekin bideratu ziren 1991ko mugaz gaindiko lehen inkesta soziolinguistikoa eta lehenagotik operadoreentzako laguntzak.

Hitzarmen horrek bi lankidetzak ardatz ditu. Lehena, bi administrazioen arteko urteroko lan plangintza batean oinarritua, eta bigarrena, berriz, Ipar Euskal Herriko elkarte eta eragile pribatuei diru laguntza emateko fondo amankomun bat ezartzen eta laguntza hauek (1.930.000 €ko aurrekontutik Eusko Jaurlaritzaren ekarpena 400.000 €koa da) esleitzeko urteroko proiektu deialdi bat antolatzen dituen.

- Aldebiko erakunde arteko lankidetzak aukera ezin hobea da hizkuntza politikarentzat. Errealitate linguistikoa, soziolinguistikoa, politiko eta juridikoez elika daiteke, bere tresnak eta estrategiak ondorengo arloetara egokitu eta osatzeko: hizkuntzaren transmisioa (baliokidetzak, egiaztapenak), ezagutza (inkesta soziolinguistikoa, adierazle sistemak), kalitatea (hizkuntza balioztatzea) eta hitz egiteko gogoia (komunikazioa).

—Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikarako sailburuordetzaren, Euskarabidea-Nafarroako Foru Komunitateko Euskararen Institutuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hiru aldeko hitzarmena:

2017ko uztailaren 3an, «Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa» Euro-eskualdeak bideratutako lankidetzaren izpirituarekin, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzak

akordio bat izenpetu zuten Ana Ollo Hualdek, Bingen Zupiria Gorostidik eta EEPko lehendakariak.

Akordio horren oinarrietako bat, «erakundeen arteko errespetua, lurraldeetako errealitate politiko zein soziolinguistikoak, eta partaide bakoitzaren lege koadroa aintzat hartzea da».

- Hiru erakundeen arteko akordio honek, 2014ean hizkuntza adierazleen EAS proiektua sortu zuen dinamikaren eta inkesta soziolinguistikoaren kari egin zen elkarlanaren ildoak segitzen du. Aurrekaria izan zen euskararen lurralde guztietan hizkuntza politikaren alorrean.
- Eraginkortasuna, baliabideak eta bizipenak partekatzeko beharrak bost arlo azpimarratzen ditu hitzarmenen horretan:
  1. Hezkuntza eta helduentzako euskara irakaskuntza.
  2. Euskararen erabilera azkartu (aisiak, IKTak eta arlo sozioekonomikoa).
  3. Euskara eta bere sustapenari buruzko gogoetak.
  4. Ikerketa soziolinguistikoak eta hizkuntza corpusak.
  5. Europa mailako lankidetzak.

Ipar Euskal Herriaren egoera bezalaxe, 2018. urtea mugarri izanen da hizkuntza politikaren mugaz gaindiko erakundeen arteko lankidetzan, hiru aldeko hitzarmena gauzatzen hasiko baita.

*Euroeskualdearen Plan Estrategikoa, hizkuntza politika eta euroeskualdeko herritartasuna:*

2014ko abenduaren 19an Iñigo Urkullu lehendakariak eta Alain Rousset presidentek izenpetu zuten euroeskualdearen Plan estrategikoa haxe zioen euroeskualdeko herritartasunari buruz:

«Akitania-Euskadi Euro-eskualdeko lau hizkuntzek (euskara, okzitania, gaztelera eta frantsesa) Euro-eskualdearen funtsezko balore bat osatzen dute (...).

Euskarak Euro-eskualdean duen lekuak aipamen berezia merezi du. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko hizkuntza bat da, 1982ko euskara normalizatzeko legearen arabera. Horretaz gain, Akitanian hitzunak baditu, frantses Hezkuntza Nazionalak bere irakaskuntza sostengatzen du, baita Akitaniako erakunde publikoek ere (...).

Kausitu beharreko erroka da Euro-eskualdeko herritarrak hizkuntzaren bidez konektatuak izatea da (...). Europar herritartasuna eleaniztasunaren inguruan eraikitzen da, eta Akitania-Euskadi Euro-eskualdeak aberastasun hori badu jadanik».

2017ko martxoaren 6an Nafarroa euroeskualdeko eremuan eta erakundeetan sartu denez, paragrafo hau eguneratuko da 2018. urtean, Nafarroa euroeskualdeko hiru aldeko dokumentu estrategikoa ager dadin, eta elkarren arteko lankidetzak hizkuntza politikaren eta euskararen rola azkartuko ditu.

EEP, Akitania Berria eskualdea, Euskadi eta Nafarroako erakundeen arteko lankidetzak hitzarmen eta ekintzen bidez azkartuz, gobernuek Europar Batasunera begiratu beharko dute, bereziki bere lankidetzarako lurralde funtsetara. Honela, hizkuntza politika mugaz gaindiko lankidetzarako helburu estrategiko eta finantzamendu ardatz bezala ikusiko dute.

### 3.2.2. *Mugaz gaindiko lankidetzatik hizkuntza lankidetzara Europa mailan*

Hiru lurralde hauek, historikoki lurralde arteko lankidetzan partaide izateagatik, Iberiar penintsula EEEn (Europako Ekonomia Erkidegoan) integratzen laguntzen dute.

1980 eta 1983 artean, mugaz gaindiko lankidetzari buruzko Europar Koadro Hitzarmenaren dinamikari jarraikiz, hiru lurraldeek Pirinioetako Lan Elkartearen (PLE) egituraketan parte hartu zuten. Elkarte horretan bildu ziren ere Andorrako printzerria, Pirinioetako eskualde eta autonomia erkidegoak, Pirinio mendilerroaren garapenean jarduteko, bereziki Europa mailako ekintza partekatu eta egituratzaileak bideratuz.

PLE-k 2005ean kontsorzioaren nortasun juridikoa eskuratu eta 2007tik goiti POCTEFA-ren kudeatzaile bilakatu zen.

POCTEFA Programme Opérationnel de Coopération Transfrontalière Espagne-France-Andorre izenaren sigla da (Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilea) (interreg). Pirinioen bi aldeetako muga hegiko lurraldeen garapen iraunkorra sustatzeko mugaz gaindiko lankidetzarako programa europarra da.

2014-2020ko POCTEFA (Interreg VA) muga eremu horren integrazio ekonomiko eta soziala Europako diruarekin laguntzeko bosgarren belaunaldia da.

189 milioi €ko zuzkidura batekin, Europako Batzordearen 2020ko helburuak segituz eta lekuko gobernuen estrategiekin adostasunean, bost lankidetzarako ardatz diruztatzen ditu:

1. Berrikuntza eta lehiakortasuna.
2. Klima aldaketari egokitzea eta arriskuen kudeaketa.
3. Lurraldeen babesa, balioztatzea eta erabilpen iraunkorra.
4. Ondasunen eta pertsonen joan-etorriak erraztu.
5. Lurraldeetan eskumenak eta inklusioa azkartu.

Ardatz hauek helburu estrategiko eta inbertsio lehentasunetan zehaztuak dira, eta hizkuntza politika ez dute formalki lehentasuntzat hartzen.

Lehentasuna ez bada ere, horrek ez du oztopatzen funtsetako proiektu deialdi prozeduretan diruztatze eskaerak egitea ardatz hauetako batean, baina orduan hizkuntza politika proiektuak beste hainbat alorretako proiektuekin lehia aurkitzen dira.

Honela, 2016ko maiatzean, hizkuntza adierazleei buruzko EAS proiektua lehen programazioko 3. ardatzean atxikia izan zen eta 6c inbertsio lehentasunean «natura eta kultura ondarearen baloratzea». Halaber, Irakaslegaiak proiektua, mugaz gaindiko

irakasleen formakuntzari buruzkoa (Iparraldeko irakasle eskasiari aurre egiteko), euroeskualdeak aurkeztu zuen bigarren deialdian, 5. ardatzean eta 8e inbertsio lehentasunean «lanerako sarbidea hobetzeko, mugaz gaindiko pertsonen gaitasunak, formakuntza sistemak eta barneko potentziala garatu» asmoz.

Halere, ez dakigu ea 2020-2026 aldiko POCTEFA programazioetan Pirinioetako eta kostaldeko muga eremuetan hizkuntza politiketarako inbertsio lehentasunik eta dagozkien krediturik izango ote den.

Nahiz eta Programa Eragilea Europako Batzordeak finkatu dituen lehentasunetan kokatu behar den, programan zer ikustekorik duten lurraldeek aurretik adosten dituzte diruztatuko diren lehentasunak eta diru kopuruak.

Erakunde-lankidetzaren baitan, euroeskualdeko eta PLE-ko hiru lurraldeek interes handia lukete hizkuntza politika lehentasunetan sartzeko, beren egitasmo amankomunei balizko baliabideak emateko. Baliabide hauek mugaz gaindiko hizkuntza politikaren eragileek erabiliko lituzkete, baita euroeskualdeak berak ere, Lurralde Lankidetzarako Europako Taldearen estatusa duelako.

Hor, Iparraldez eman dudak gaurko eta, beharbada, geroko erakundeen arteko artikulazioaren panorama osoak (mugaz gaindikoa barne) agerian ezartzen ditu egitekoaren konplexutasuna eta zailtasuna, bai eta, hortaz, xume izatera, lankidetzan hartzera eta kontsentsu instituzional zein politikora dei egiten digu, Euskarari opa diongun biziberritzeak hala eskatzen baitu.



# IPAR EUSKAL HERRIAN, EUSKARARENTZAKO ERRONKA BERRIAK

Allande Socarros  
Zuberoako Herri Alkargoko euskara arduraduna<sup>1</sup>

Baionan, Euskal Erakustokiaren barrualde ederretan, egin ziren 2016ko Jagon jardunaldietan parte hartu nuen, arratsaldeko mahai-inguruan solaskide egonda. Garai hartan, Euskal Hirigune Elkargoa ez zen oraindik plantan ezarria eta orduko go-goetak gaur egungo egoerarekin ez dira beharbada erabat egoki azalduko.

Dena den, testuinguru aldaketa hori kontutan harturik, hona eztabaida hartarako prestatu nuen argudio multzoa, hauetatik batzuk ez baintuen aditzerat eman ere.

## HIZKUNTZA POLITIKARAKO ESKUDUNTZA... JARDULE POLITIKOEN ESKUETAN!

Euskal Hirigune Elkargoaren sorrerak eta honek hizkuntza politikarako eskuduntza hartzeak aukera ematen du, lehendabiziko aldiz, Ipar Euskal Herriaren eremu guztian, euskararen —edo zenbait lurraldetan okzitaniera-gaskoia— suspertzeko eta biziberritzeko hizkuntza politika indartsu eta ondoriotsu bat eztabaidatzeko, xedatzeko eta obratzeko. Euskal Elkargoa egon aurretik, hamar hiri edo herri elkargo bazeuden eta bakoitzak bere nahiera edo ahaletara bideratzen zituen euskararen aldeko urratsak. Hauetatik bitan gainerat, okerrean ez banago behintzat, ez zen euskararen aldeko urratsik batere bideratzen. Euskara dut soilik aipatuko, Ipar Euskal Herriko jatorri hizkuntza nagusia delako, baina adierazpen hauek balio dute, jakina, gaskoi mintzadarrarentzako ere.

Nire iritzian —eta espero dut hala dela sail honetako arduradunen aburuan ere— Euskararen Erakunde Publikoak behar du —nola ez ?— hizkuntza politika baten xedatze bidean partaide izan. Izan ere, Ipar Euskal Herrian, sail horretan egitekorik baduten beste instituzioak ere —Estatua, Eskualdea, Departamendua— EEPn

---

<sup>1</sup> Allande Socarrosek XXI. Jagon jardunaldian parte hartu zuenean, Zuberoako Herri Alkargoko euskara arduraduna zen. 2017ko urtarrilaren Iean Ipar Euskal Herriko herri elkargo denak desagertu dira Euskal Elkargoa (Communauté d'agglomération Pays Basque) sortuz. Ordudanik, Allande Socarros kolektibitate berri horren «Hizkuntza politikak eta kultur partaidetzak» batzordeko kidea da. «Hizkuntza politikak» alorreko Gidaritza batzordean ere parte hartzen du (editorearen oharra).

partaide daude. Hortaz, euskararen garapen arloa zeharkakoa denez gero, EEPk badu zereginik. Alabaina, hizkuntza politika baten xedatzean eta bideratzean, erabakiak hartzea eta hauek gauzatzea Euskal Hirigune Elkargoaren esku dira, honek baitu eskuduntza eta hautetsi erakunde batek baitu horretarako zilegitasunik. Honek argi behar du geratu denen gogoan...

EEPren jokabideaz kritiko agertu naiz behin eta berriro. Idatzizko iritziez gain, jendaurrean ere azaldu dut jarrera hori, hala Baigorri 2016ko urrian antolatu zen mahai-inguru batean nola 2017ko azaroan Baionan gertatu ziren Jagon jardunaldiak. Zergatik-eta erakunde honen kontura kritiko agertu naizen? Erantzuna argi da. Nire aburuz, euskararen bultzatzeko politika baten jardule nagusi gisa jarri baitzen, horretarako zilegitasun eskasean zegoelarik. Egia da, EEPko presidente kargutan egon zen Mathieu Bergé Eskualde hautetsiak adierazi izan duen bezala, erakunde hau sustrai eta eginkizun politikoetako dela, jada izendatu ditudan instituzioak bertan partaide direnez gero. Bai baina... EEPren eguneroko gidaritzak politikoa hautetsi bat presidente kargutan egotera mugatzen denez gero, zuzendaritzak politikoa hori aski ahula dela deritzot. Gauzak horrela, EEPko administrazio jarduleek zuten euskararen garapenerako politika baten xedatzeko eta bideratzeko benetako ardura eskuetan hartua. Eta hau ez da ez arauzkoa ez eta bidezkoa, zeren eta ardura horrek jardule politikoen eskuetan behar baitu izan, eta ez administrazio egitura baten eskuetan!... Zuberoako Herri Elkargoan «Euskara» batzordeburu gisa jardutearen esperientziak erraten ahal dut behin baino gehiagotan pentsaketan egoten nintzela gure lurraldean bideratzen genituen euskararen aldeko jokabideak ez ote zituen EEPk, nola edo hala, «baldintzatu» nahi, diru-laguntzak banatzeko aitzakiaz...

Areago denez, inpresio hori geratu zen EEPren diru-laguntzak agortu egin ondotik ere! Egoera ezegoki hau, egia erran, errazagoa egiten zuen Ipar Euskal Herriko egituraketa instituzionala hamar hiri eta herri elkargotan sakabanatuta egoteak. Dena den, 2017ko urtarrilaren 1az geroztik, Euskal Hirigune Elkargoa eratu denetik, egituraketa instituzionala funtsez aldatua da. Euskal Hirigune Elkargoak du euskararen sustengurako eta garapenerako politika jokabide baten xedatzeko eta bideratzeko eskuduntza, Ipar Euskal Herriko eremu osoan. EEPrekiko elkarlana —jada erran dudana bezala—, beharrezkoa da eta eginkizunen «partiketa» bat egon dadin arauzko baldin bada ere, ardura politikoa hautetsi instituzioak du beteko eta beste inork ez.

## HIZKUNTZA POLITIKA, LEGE BERMEA, GIZARTE BABESA

Euskararen salbatzeko, indarberritzeko eta garatzeko hizkuntza politika indardun eta eraginkor bat beharko da bultzatu... baina hau ez da berez nahikoa izango. Legezotasuna lortu beharko da, nahitaez, hots, Parisen aldetik legezko eta arauzko ezagupena. Baina hau bera ere, nahiz eta egundoko aitzinurratsa izango litzatekeen, ez da nahikoa izango euskararen iraupena eta garapena bermatzeko. Euskal Herriko jendarteak euskara erabili behar diren gogoan hartzea bera ere behar-beharrezkoa izango da. Gizarte kontzientzia eta onespen hau gabe, legea, araua, hautetsien nahikundea, diru-sartzeak egonda eta bateratuta ere, euskara nekez litzateke salbatuko.

Beraz, hizkuntza politika ausart bat, legearen bermea eta gizartearen babesa eta konpromisoa, denak batera, baitezpadakoak dira euskararen biziraupen, biziberritze eta garapenerako.

Legezkotasuna lortzeko asmoan, Euskal Hirigune Elkargoak, hautetsi gehiengo ahal bezain zabal batean bermatuz, beharko luke Parisekin argi eta ozen mintzatu eta itzulingururik gabe erran euskarak eskubide osoa daukala Ipar Euskal Herrian hizkuntza ofiziala izateko eta halaber gaskoiak, doazkion eskualdeetan. Hautetsien nahikunde argi hori ez dela nahikoa izango badakigu, baina. Hortxe daukagu lekuko Korsikako Lurralde Biltzarraren adibidea, honek garaian aho batez onartu baitzuen korsikeraren koofizialtasunaren eskaera... baina Parisek muzin egin baitio eskabide ozen honi. Hala eta guztiz ere, Ipar Euskal Herriko hautetsien jarrerara irmorik ez bada egoten, Paris are gutxiago mugituko da...

Gaur egungo errealitatetik eta legeditik abiatuta, Estatuarengandik euskararen ofizialtasun ezagupena epe laburrera lortzea oso zaila dirudi, haatik. Hori dela-eta, Frantziako administrazio egituraketari aldaketak ekarri dizkion NOTRe legeak da-goeneko eskaintzen dituen bideetatik abiatzeko aukerak badira. Hala, Jagon jardunaldi-tako goizeko mahai-inguruetatik batean parte hartu zuen Argitxu Etxandi legelariak ohartarazi zuen Euskal Hirigune Elkargoak eskubiderik balukeela euskararentzat «Lurralde hizkuntza» estatutu baten eskaria egiteko. Dena den, Euskal Hirigune Elkarteak aditu bati eskatua dio jada legezko ahalbideen aukera hauetaz azterketa bat egiteko, eta honen emaitzak eztabaidagai jarriko dira.

Ipar Euskal Herria, lehenbiziko aldiz, osotasunean ordezkatzeko duen instituzioaren nahikunde argi eta ozen horrek, haatik, euskalgintzako egituren eta herri-tar kopuru ahal bezain handienaren sustapena eta akuilua ezinbestekoak izango ditu. Baldintza hau, haatik, beteta egongo dela pentsatzeko motiborik badago.



Eskerretik eskuinera, Allande Socarros, Jean-Claude Iriart, Xarles Videgain, Jojo Bidart kazetaria eta Mathieu Bergé



## HERRI TELEBISTA BAT IPAR EUSKAL HERRIARENTZAKO

Hizkuntza politika eraginkor batentzako, zein lirateke hasieratik gauzatu beharreko neurriak?

Lehenik eta behin, orain artean euskararen bizirik atxikitzeo eta garatzeko lanetan ari diren egiturak —Seaska, AEK, Euskal Irratiak, bestelako euskarazko hedabideak...— nabarmen gehiago sustatu eta diruz lagundu behar liratekeela iritzi diot.

Jakin badakit ez dela, hasiera honetan behintzat, Euskal Hirigune Elkar-goaren eskuduntzetan, baina, nire ustez, lehenbailehen beharko dira gauza batzuk argiki erran, hala nola Ikastolak behar duela, bihar ez bada etzi, euskal eskola publiko bilakatu, euskarari lehentasunezko ikasbide batekin, murgiltze sistema batekin, noski.

Halaber, administrazioetan euskararen erabilpena arauzkoa izatera iritsi beharko da eta horretan ere Euskal Hirigune Elkargoak badu, bai eredu izaterik, baina baita bere eskuduntzapeko ez diren alorretan ere aitzinurratsetarako bultzatzaile gisa jokatzetik.

Hedabide publikoen sailean, berriz, euskarazko programak ukanen dituen Ipar Euskal Herriko telebista kate bat plantan ezartzera pentsatu beharko da, Korsikan France 3 Via Stella baden bezala. Helburu horretarako ez da Euskal Telebitatan kontatu behar... zeren eta nahi izan bazuen egin, egiteko ahala aspaldian baitzukeen!

## EGOERA DIGLOSIKOAN ELEBITASUNIK EZIN DA EGON!

Orain nahi nuke nire pentsakera argiki azaldu elebitasuna deritzoten horretaz, zeren eta gero eta gehiago erraten baita Ipar Euskal Herrian elebitasuna sustatu behar dela, eta egitasmo honen alde ba omen direlako kargudun gehienak eta jendartearen parte handiena.

Argi eta garbi behingoz erran dadin Ipar Euskal Herrian —ez eta euren jatorri hizkuntzak dauzkaten beste lurralde batzuetan: Alsazian, Britainian, Korsikan, Okzitanian...— elebitasunik, egiakzi, ez dela eta ez daitekeela izan... hizkuntza batek —frantsesak— legezko eta arauzko baliabide guzti-guztiak baidituelarik eta beste batek —euskarak, gure kasuan— eskubide eta ahalbide horiek ez dituelarik!

Benetako elebitasuna da, lurralde jakin batean, bi mintzaira eskubide eta baliabide berberen jabe izan daitezen. Eta ez da, inondik inola ere, horrelakorik Ipar Euskal Herrian. Beraz, ez dezagun erran hemen elebitasunik badela; hemen dagoena diglosia da. Gauzak horrela, eta aurren aipatu ditudan baldintzak batuta eta beteta egongo ez diren bitartean, Ipar Euskal Herria etorkizunean ere egoera diglosikoan geratuko da... euskararen kaltetan, jakina.

Are txarrago, elebitasun faltsu horren izenean, gainerat, orain artean euskarak zeuzkan «eremu gerizatuetan», gero eta gehiago frantsesa ere sarraraztea galdeginik da! Hori da zenbaitsuren iritzirako elebitasuna, hots, euskaraz orain arte egin dena

frantseserat ere ezartzea! Horrek guztiak erran nahi du diglosia beti aitzina doala eta euskararenak ziren sailetara ere zabaltzen ari dela. Hau ez da, neholara ere, jendarte elebidun bati buruz joatea, oso alderantziz baizik!

Bukatzeko erran dezadan, hala eta guztiz ere, Euskal Hirigune Elkargoaren sorrerak euskararen onurarako hizkuntza politika emankor baterako aukerak emanen dituelako itxaropenik badudala, eta eginbehar premiatsu horretan jardule izateko prest nagoela.



# EUSKALTZAINDIAK EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUARI

Xarles Videgain  
Euskaltzainburuordea eta Iparraldeko ordezkaria<sup>1</sup>

2016ko uztailearen 11ko gutunaren bidez, Caroline Phillips andereak Euskaltzaindiak Garapen Kontseiluko geroaz bere ikusmoldea jakinaraz dezala galdatzen zuen, gero hurbilean Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa probintziei buruzko epemugak ikusiz, «Euskal Herri Aglomerazio Elkargoa» deituko den lurralde kolektibitate berriko koadroan.

Euskaltzaindia ez da Garapen Kontseiluko Biltzar Nagusiko kide, Jean-Baptiste Coyos euskaltzaina pertsona kalifikatuen Kolegioan kide gisa ari delarik bakarrik.

Testuinguru honetan, engoitik eztabaidan argikiago parte hartuko duela deliberratu du Euskaltzaindiak, bere ikusmoldeak eta proposamenak jakinarazteko. Beraz, idazki hau etorkizunean dugun konfiantza arrazoituan oinarritzen da.

Dokumentu honek Jean-Claude Iriart Euskal kultura sostengatzen duen herriarteko sindikataren lehendakariari 2016ko maiatzean igorri genion gutunaren edukaren zati bat berriz hartzen du, baina euskararen lekuari eta garapenari buruzko hausnarketa proposatzen du ere, Aglomerazio Elkargo berria eta Garapen Kontseiluko bilakaera kontuan hartuz.

## EUSKALTZAINDIAREN EGOERA ADMINISTRATIBOA ETA ESKUMENAK

Euskaltzaindiak mugako bi aldetarik hogeita hamar euskaltzain biltzen ditu (gaur egun zazpi dira frantses herritartasunekoak), euskararen lurralde eta aldaera guztiak ordezkartzen dituztenak, bizkaieratik zubererara. Lurralde orotako ordezkari horien presentzia kasik ehun urteko den erakundearen sortegunetik badago, Euskaltzaindiak mendeurren hori 2019an ospatuko duelarik. Dударik ez da mugaz gaindiko egituraketa hori lagungarri dela euskararen egoeraren azterketa orokorrendako, baina ere bere garapenerako tresna onuragarriak sortzeko, gomen-dio soziolinguistikokoak hedatzeko, berezitasun historiko, administratibo, gizarteko

---

<sup>1</sup> 2016ko irailaren 19an Euskaltzaindiak Xarles Videgainek prestatu zuen testu hau Euskal Herriko Garapen Kontseiluari igorri zion. XXI. Jagon jardunaldian parte hartu zuenean, Xarles Videgainek bere mintzaldia egiteko oinarri gisa hartu zuen (editorearen oharra).

eta politikoak kontuan hartuz. Eta hori Ipar Euskal Herrian nola hedadura handiagoko lurraldeetan, hala nola Akitania-Berrian, Euskadin edo Nafarroan.

Hego Euskal Herrian Gobernamentu espainolak, Euskal gobernamentuak, Nafarroako gobernamentuak, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiek Euskaltzaindia diruztatzen dute. Ipar Euskal Herrian, Euskararen Erakunde Publikoak Euskaltzaindiari diru laguntza ematen dio eta azken urteetan laguntza hori bera izan da. Gehitu behar zaio udal eta enpresa batzuek ematen duten laguntza. Orogen buru, Iparraldean Euskaltzaindiak hartzen duen diru-laguntza Euskaltzaindiaren aitzin-kontu orokorraren % 5 da.

Hego Euskal Herrian, 1976ko otsailaren 26ko Errege Dekretuaren bidez, Euskararen Errege Akademia gisa ezagutua da Euskaltzaindia, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Euskal Autonomia Erkidegoan «*euskararen erakunde aholku-emaile ofiziala*» da, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutueta 6.4 artikulua-  
ren arabera.

Nafarroan, erakunde aholku emaile ofizialaren kalitate hori 1986ko abenduaren 15eko 18/1986 Euskararen Foru Legeak aitortzen du: «Hizkuntz arauen ezartze ondorioetarako, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku emaile ofiziala, eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko atalean ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak».

Ipar Euskal Herrian, Frantses Errepublikaren 1995eko dekretu baten bidez onura publikoko establezimendu gisa aitortua da Euskaltzaindia. Bere 2006ko abenduaren 21eko bilkuran, Euskararen Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluak hori zehaztu zuen bere Hizkuntza politika proiektuan: «Euskaltzaindiak, hizkuntzaren kalitatea zaindu eta hizkuntza arauak jarri behar dituen erakundeak, funtsezko eragina ukan du hizkuntzari eman behar zaion egokipenean, eta ildo horretatik jarraitzen du. Euskararen Erakundeak abian jarriko dituen antolaketa eragin-korrak eramateko, erreferentziatzko solaskidea izanen du Euskaltzaindia, bere esku-duntza eremuan».

Euskaltzaindiak dio Garapen Kontseiluko dokumentuan aipatzen diren erakunde berriek euskararen kalitateaz eta arauetaz aholku emaile funtzio hori kontuan hartu beharko dutela. Hori testu honen ondorioetan errepikatuko dugu.

## EUSKALTZAINDIA ETA EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILU BERRIAK PROPOSATZEN DITUEN NORABIDE NAGUSIAK

« Quel avenir pour le Conseil de Développement du Pays Basque » (10 or.) deitu dokumentuan dauden Garapen Kontseiluaren ohar gehienak onartzen ditugu.

EHGKko oharra, ardatzak, egitasmoak gizarte plural baten barnean kontuan hartzeko dira eta nahiz gure proposamenek euskararen geroarekin, oraingo eta gero-  
roko euskaldunekin berezikiago egitekorik baduten ere, testuinguru zabal hori ez dugu ahazten.

Ildo honetan, uste dugu EHGKko **hiru zeregin nagusiak**, hala nola lehenik el-karrizketagune baten irekitzea, gero balioztatze mobilizazioa, eta, azkenik, lurralde proiektuak eta garapen kontratuak elkarrekin eraikitzea ardatz egokiak direla. Gure

aldetik, euskararen eremuak balioztatze sakonak merezi eta hartzen dituela aldarrikatzen dugu. Aditu lan horietan Euskaltzaindiak berak parte hartu nahi du, edo zuzenki, edo bil ditzakeen adituen sarearen bidez.

EHGKko **hiru ezaugarri funtzionalak** onartzen ditugu, Euskaltzaindia EHGKren barnean ordezkari hobe eskuratuko duela aiduru dagoelarik. Segur aski orok onartuko duten bidezko tasun hori emanen dio Euskaltzaindiari lan ikusgarriagoa egiteak.

Garapen Kontseiluko dokumentuak ikergai ezberdinen buruzko **gogoeta labo-  
rategia** aipatzen du, hala nola hondakinak, lur funtsak, ekonomia, hizkuntza, kultura, mugaz gaindiko harremanak, mendia. Formakuntza bera gehi genezake.

Hemen, Euskaltzaindiak dokumentuan aipatuak diren proiektuetan bi molde parte hartu nahi du: alde batetik, gizartearen eremu guzietan euskarak behar duen presentziaren axolatu, bestetik, hizkuntza garapenerako tresna baliagarriak sortzeko indar berezia eginez. Holaxe, Euskaltzaindiak gorago seinatuak diren ikergaiei buruz bere ikuskerak ekarri nahi luke, nahiz euskararen presentziaz, nahiz hizkuntza horren kalitateaz. Adibidez, formakuntza Akademiaren egin-beharretan ez bada sartzen ere, obra pedagogikoen hizkuntza kalitatea bere eginbidea du, irakaskuntza egituretan euskarak duen lekuak arranguratzen du, bai eta ere formakuntzetan euskararen erabilerari eta kalitateari buruzko emaitzek. Beste molde batez, aldiz, mendia EHGKko lan ardatza baldin bada, Leader programan mendi artzaintzari buruzko egitasmo bat aurkeztu zuen Euskaltzaindiak eta ez zen onartua izan, agian Euskaltzaindiaren proposamenak hizkuntza hunkitzen baitzuen ekonomia hutsa baino, ez da dudarik alor horretan jarraikiko gara hizkuntzaren lekua azpimarratuz. Eta uste dugu adibidetzat ematen dugun proiektu horren bere pertinentzia ez duela galdu. Gure xedea ez da eremu horren arduradunei ekonomia iraunkorrerako edo garapenerako lehentasunak zein diren diktatzea, baina artzaingoaren euskararen iraupena sustatzea (eta diruztatzea) egokitzat daukagu.

Ikergai batzuen kasuan, eta berezikiago, hizkuntzaren, kulturaren, mugaz gaindiko harremanen kasuan, gure ikuskerak horrek hizkuntza ikertuko baldin badu ere, indarrean jartzeko diren egitasmoen edukiaz ere axolatu da Euskaltzaindia.

NOTRe legeaz legetariek egin dituzten oharrek EHGK tokiko **demokrazia parte hartzailearen oinarria** bilaka dadin justifikatzen dutelako iritzia gure egiten dugu.

Geroari buruz, dokumentuaren 8. orrialdean azaldu diren galderei erantzuteko, kulturaren eta hizkuntzaren alorrak erakunde berriaren eskumenetan parte izan behar direla uste dugu. Dokumentuak berak ere agerian ematen dituen puntu horietaz eta bere eremuan Euskaltzaindia ez daiteke batera soraio izan eta ondoko oharrek egiten ditu:

- Hiri Elkargoaren politika publikoa **goi-mailako irakaskuntzan eta ikerkuntzan**: ikerketaren behar gorrian dago euskararen garapena, unibertsitate-ikerketek oraingo ikerlekuen pisua eta eragina emendatu behar bailituzkete. Beherago aipatuko ditugu Euskaltzaindiak unibertsitatearekin eta ikerketa zentroekin izenpetu gai dituen hitzarmenak eta partaidetzak. Ipar

- Euskal Herrian, Unibertsitate mailako indarren eta gaitasunen garatzea korolariorik nabarmena dela iruditzen zaigu, tokiko sustantzia grisa eta burumuina beharrezkoa baitzaio lurraldearen garapen egokiari. Tituludun gazteen exodoa ez da ondorioz gabe eta hori axola zaigu.
- Tokiko eragileekin estrategien partekatzea, lurraldearen **kultur-egitasmo** baten lantzea, haren barruan euskal kulturak eta hizkuntzak beren leku osoa izateko gisan.
  - Eztabaida publikoaren sustatzea **hurbileko lurraldeetan**: kostaldearen eta barnealdearen arteko artikulazioa gogoan dugu bereziki, eta horren ondorioak kulturaren nola hizkuntzan.
  - **Adinekoen** (haien artean, euskaldunen) eraginari buruzko **gai soziologikoak** aztertzea heldu diren urteendako, hazten ari den hiri kulturaren eta irauten duen baserri-munduaren arteko loturei kasu eginez.
  - EHGGko dokumentuak zuzenki aipatzen ez badu ere, Euskal Herrira etortzen den jendearen jatorria diskriminatu gabe, euskararen **masa-ikaskuntzaren** aldeko neurriak aitzinikustea beharrezkoa iruditzen zaigu, erantzukizun hori izanen duten erakundeek baitezpadako izanen zaien logistika osoarekin.

EHGGrekin hemendik aitzina lan egin beharko luketen eragileen zerrendan, EHGGkarekilako solaskide gisa bere burua aurkezten du Euskaltzaindiak eta epe laburrik barne, artistek, idazleek, sortzaileek, ekarpen emankorra izanen duten lagunek parte hartzea begi onez ikusten du Euskaltzaindiak.

Aitzineko lerro hauetan, EHGGk aitzinikusi dituen lan ardatz eta moldeak demokratikoki eta bizkorki haz daitezela nahi dugula agian aski garbi ulertarazi dugu. Ordu da dokumentuaren IO. orrialdeko galderei erantzuteko asmoz, Euskaltzaindiak EHGGn parte-hartzeko bideak aurkez ditzan.

## EUSKALTZAINDIAREN EKARPENAK, ENGAIAMENDUAK, PROIEKTUAK

Euskaltzaindiak orain arte euskararen eremu osoan eramaten duen lana nahi luke jarraiki, Ipar Euskal Herriari dagokionez, lan hori molde ikusgarriago batez egin behar du, lan hori indartuz, euskararen egoeran ikus dadila jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa ematen ari garela. Erran gabe doa Euskaltzaindiak ez dela izanen egin beharreko indar-joko horren oinarri bakarra; Euskaltzaindiak dudarik ez du beste erakunde eta aktoreekin akomeatuko dela arazorik gabe, bereziki kultura eta hizkuntza eremuetan. Bistakoa baita egiten ditugun gomendioak ez dituela Euskaltzaindiak bakarrik landuko ez baldin bada beste erakunde anitzekin.

Bestalde, Euskaltzaindiaren lan eremua mugaz bi aldeetako baldin bada ere, **Ipar Euskal Herrian** dira egin beharko **indar bereziak**: Euskaltzaindiari eskainiko zaizkion ahalbide berrien araberako hausnarketa egin beharko da, Ipar Euskal Herriari eta bere egoera soziopolitikoari egokitua, hizkuntzaren errealitatea kontuan hartuko dituzten tresnak asmatuz, beste aktore eta erakundeekilako lankidetzeta arta-

tsua biziaraziz, asmo honi egutegiak ematen dizkion epe ezberdinek lan urratsa marikatuko baitute, hizkuntza politika eraginkorragoa eta meneratukoagoa zaluago jarri nahiz.

Euskaltzaindiaren ekarpena oinarrituko da, beraz, bere jardueren zabaltzean eta beste eremu batzuen sortzean. Dagoena zabalduko da, ez dagoena sortuko. Bidean ditugun jarduerak laburki oroitarazten ditugu EHGKk hobeki ikus dezan zein elkarrekintza nahigarri eta egingarri izaten ahalko diren etorkizun hurbil batean.

Euskaltzaindiak hiru eremu jorratzen ditu gehienik, **jarduera akademiko zientifikoarena, jagon jarduerarena** eta azkenik **berezko batzordeena**. Hiru eremu horietaz gain, Akademiak zerbitzu multzoa badauka, zerbitzu gehienak Bilboko egoitzan daudela Donostiako, Gasteizeko, Iruñeko eta Baionako ordezkartzekin. Hilabete oroz ospatzen diren osoki bilkurei esker, euskaltzainek lanen aitzinamendua jarraikitzen dute, batzorde berezituak maizago biltzen direlarik.

Euskaltzaindiaren **jarduera zientifikoa** agertzen da nagusiki liburu argitalpenen bidez, liburu horiek euskararen tresnak izaten baitira:

- **Hiztegi gintzan**, Euskaltzaindiak hiztegi gotor bat argitaratu du, *Orotariko Euskal Hiztegia* deitua, 16 liburukitan emanikako lan luzea, Interneten kontsultagarri dena. Hiztegi nagusi hori osatuko du *Euskaltzaindiaren hiztegiak*, 2016ko udazkenean argitaratu dena paperezko eta digitalizatutako euskarrietan. Hiztegi horren metahizkuntza euskara izanen da. Bestalde, aspaldian berantetsi ginen egiazko **hiztegi etimologikoa** noiz aterako genuen, eta negu honetan argitaratuko da. Bestalde, lexikografiaren sail honen xedeetarik bat da ere **gaur egungo lexikoaren behatokia** indartzea. Ohartarazi behar dugu lan hauek eramaten direla unibertsitarioen (euskaltzainak barne) jakintzari esker, baita ere UZEI, Elhuyar, IXA bezalako talde berezituak laguntzarekin. **Corpusak** osatzen dituzten testuak ematen dizkiote Euskaltzaindiari euskalgintzako hedabide ezberdinek eta argialetxeek. Hortaz, beharrezkoa da ohar bat egitea Ipar Euskal Herriaren ahuleziaz. Ipar Euskal Herriko egitura berrien esparruan puntu hau nahi genuke aipatu, mugaz honaindiko euskalkiak eta hiztunak hobeki ager daitezten antolatzen ditugun corpus horietan. Alde batetik **Iparraldeko ikerlarrien eta adituen** kopurua handiago izan behar liteke corpusgintzako lanetan, eta bestalde corpusetan Iparraldeko euskarazko testu ekoizleen pisua handiago izan behar liteke. Proporzioa jadanik ahula delarik, damugarri liteke Ipar Euskal Herriko ekoizpenaren pisua oraindik murriztago izatea testu hauen eskuragarritasun nekearengatik. Euskaltzaindiak lokarri honen segurtatzeko hitzarmen multzo bat garatu du, baina baliabide zabalagoak beharko ditu bide horretatik aitzina joateko.
- **Gramatika** arloan, euskararen gramatikaren gai nagusiak lantzen ditu batzorde berezitu batek. Liburukiak atera ditu jadanik. Ipar Euskal Herriaz den bezainbatean, Euskaltzaindiak egitasmo bat indarrean jarri du gramatikako lanak (hauetarik zenbaitek arauak ongi erabiltzeko bideak proposatzen dituzte) eta modu orokor batean euskara batuaren sortzea erraztu zuen ibilbidea ezaguterrazak izan dituen **Ipar Euskal Herriko**



- hiztunentzat.** Egitasmo honek dialektika interesgarri dauka, hizkuntzaren arau nagusiak aintzat hartuz, alde batetik, eta, bestaldetik, Euskal Herriko euskalkiek dituzketen ezaugarriak gaitzetsi gabe, ahalaz. Duela zenbait hilabete EHGKren aitzinean aurkeztu genuen proiektua ez baldin bada ere onartua izan, uste dugu ondoko hilabeteetan hobeki agertuko dela mota honetako proiektu baten beharra. Delako proiektuak webgune baten sortzea helburua zuen. Jadanik JAGONET webgunea erabiltzen du Euskaltzaindiak, hizkuntzari buruzko arauak hitzunei azaltzeko eta hizkuntzaren aldeko segurtasun eskasa baztertzeko. Webgunea berritzen ari gara eta nahi genuke Iparraldeko herritarrari hurbileraxago izan balekio, Iparralderako aipatu dugun webgunea xutik ezarri arte. Arautze eta kodifikatze lan hau baitezpadakoa da edozein hizkuntza modernoren etorkizunarentzat.
- Euskaltzaindiaren zereginetan sartzen baldin bada euskararen batasunaren zaintzea eta erakustea, bere gain hartu du euskalki guztiak eta eremuaren araberrako aldaketak aztertzen dituen **atlas linguistiko** gotorra (EHHA) sustatzea, laguntza handienak Hegoaldean erdietsirik. Egitekoak diren hamabi liburuetarik zortzi argitaratu dira mementoko. Atlas linguistiko hori ezaguna izaten hasia da hor-hemenka. Baina, argitaratu ditugun 1.500 mapez gain, atlasaren datu-basea 4.000 ordutako gaitzeko soinu-base batean oinarritzen da, gure ustez, hemendik aitzina lo utzi gabe, baliatu behar duguna. EHGKren aitzinean **oralitateari** edo **ahozkoari** buruzko proiektu bat aurkeztu zuen Euskaltzaindiak, adineko euskaldun zaharren grabaketak ustiari nahiz. Pentsatzen dugu, linguistikaren nola entziklopediaren aldetik horrelako proiektu birmoldatu bat interesgarri izaten ahal dela hiztunentzat, partikularki eskolako euskara ikasten dutenentzat eta burasoen-gandik euskara entzun ez dutenentzat. Euskara ikasteko merezi handia duten horiek anitz irabaz lezakete, gure ustez, euskaldun zaharrek emandako ahozko testuak ezagutuz eta landuz. Euskal kultur erakundeak horrelako proiektu batean bere indarra eman lezake, bildu dugun informazioa ez baita bakarrik linguistikoa baina entziklopedikoa ere, ondorioz sartzen baita mami joriko ondare immaterialean. Ethnopôle deitu proiektuan sar diteke gure asmoa. Bestalde, atlas linguistikoaz gain, euskalkietako batzorde batek euskalkietako atera daitezkeen fenomeno linguistiko aberasgarriak proposatzen ditu euskara batuan txertatzeko. Euskaltzaindiak lan hau jarraiki behar du, baina Ipar Euskal Herriko euskalkien ekarpena indartzeko xedearekin, euskalki hauek toki murriztua baitute proiektu horretan.
  - **Toponimia** arloan, gero eta nasaiago da Ipar Euskal Herrian agertzen den eskaera, bai herritarrengandik, bai tokiko administrazioengandik. **Institut Géographique National** erakundearekin hitzarmena izenpetu du Euskaltzaindiak Saint-Médard-en-Jalles-en IGNek duen adarrarekin. Euskaltzaindia konturatzen da lurraldean dauden edo sortu behar diren toponimoen formaren kalitate ona segurtatzeko egiazko beharra eta nahia agertzen dela. Betiere, jarduera honek beharrezkoa du dokumentazio historiko edo geo-

grafikoa zehatz biltzea eta ongi antolatzea. Bilketa honek denbora asko eskatzen du alde batetik, baina ber denboran arduradun politikoeak eta administratiboek nahi lukete aldi oroz gure erantzun zalua. Euskaltzaindiak nahi du arlo hori bere gain hartzea orain artio bezala, hizkuntza-teknikariei formakuntza emanez konparazione, baina langile adituak beharko ditu galdera hauei behar bezala erantzuteko. Toponimiak, eta, oro har, onomastikak duen balio sinbolikoa ez zaio nehoi ere arrotz hizkuntza arloko paisaian eta maina handiz erabiltzeko gaia dugu. Bestalde ECO deitu datu-base toponimikoa bazkatzeko langileak badauzka Euskaltzaindiak, eta bereziki Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa hunkitzen dituen dokumentazio historiko zabala sartzen ari da datu-base horretan. Uste izateko da EHGGK, EEP eta IGN gurekin ohartzen direla presa handia duela gai horretan egitura eraginkorrak ezartzeak, denen onetan. Proposatzen dugu **euskal toponimoen tratatzeko metodologiazko arazoak zorroztea**, Euskaltzaindiaren datu-basearen garapena eta jarraipena segurtatzea, kontsultatzeko moduak erraztea, dagokien erakundeekin informazio trukaketa aberastea, eta azkenik webgune baten sortzea. Hori guztia ikuspuntu teorikoago batetik abiatu, toponimia hunkitzen duen oro barnatu nahi genuke hausnarketa jardunaldi bereziak antolaturik.

- **Literatura** arloa da beste eremu garrantzitsu bat Euskaltzaindiaren jarduera zientifikoetan, Ipar Euskal Herriak toki egokia duelarik bai herri literaturan (ipuinak, kantu herrikoiak, erran zaharrak, bertsolariak) nola literatura jakintsuan. Gaur egun euskal literaturaren historia lantzen ari da bereziki (liburuki batzuk agertu eta agertuko dira); literatura hiztegia eginik izan da, eta kolokioak antolatzen ditu batzordeak idazle baten edo literatura generoen aipatzeko. Gogoeta bat proposatzen du Euskaltzaindiak Ipar Euskal Herriko liburu ekoizpenari buruz, azken urte hauetan EEPren laguntzarekin daraman politikaz. Dударik ez da beste formak ere asmatu behar direla, hala nola literatura sarien berrantolaketa, eta bereziki gazteei zuzenduko zaizkien sariak sortuz, ikusten baitugu Ipar Euskal Herriko hiztun gazteak gero eta gutiago agertzen direla literatura sarietan, guk, beste erakundeek eta eskolek aztertu behar ditugun arrazoiengatik. Ez dugu literatura arloa uzten ahal oroitaz gabe, Bernardo Atxaga euskaltzainaren zuzendaritzapean, Euskaltzaindiak *Erlea* deitu literatura aldizkaria argitaratzen duela. *Erlea* aldizkari horrekin euskal irakurle jakintsuek ezta dasta dezakete eta aldizkari horretan Ipar Euskal Herriko idazle zenbaitek idazten dute. Azkenik, ONCE erakundearekin batera, Euskaltzaindia hasi da euskal literaturako liburu zenbaiten Braille bertsioa pertsona itsuentzat prestatzen. Alor berean, Euskaltzaindiak soinu-liburu sail berri bat ireki nahi du.
- Azken urte hauetan, estatus ahula duten hizkuntzentzat baitezpadakoa den normalizazioaren beharrezko den azterketarengatik, Euskaltzaindiak egitasmo bat garatu du **euskararen historia sozialaz**. Lan hau ez da nahasi behar hizkuntzaren gramatika historiko batekin, aztertzen baititu euskal gizartearen aldaketa historikoen eta hizkuntzan duten balizko eraginaren arteko loturak, hala nola, konparazione, Berpizkunde denboran, Frantziako

iraultzan, 20. mendeko gerletan, digitalaren aroan, etab. Gai honetan ere Ipar Euskal Herriari buruzko informazio aberatsak modu egoki batean erabiliak izan daitezten, tokiko pertsona aditu zenbaiten laguntza bildu behar du. Sei liburuki gotor agertu dira, horietarik batek zehazten duelarik proiektu zabal honek jarraituz duen metodologia. Erreferentziako lan tresnak ematea du helburu euskararen historia sozialaren proiektuak.

- **Terminologia arloan**, Euskaltzaindiak ikerketa multzo bat eramaten du eta hitzun jakintsu haboroenak onartzen ahalko dituzten hitzak proposatzen ditu. Ipar Euskal Herriaz den bezainbatean, lehenik tresnatu behar diren eremu terminologikoak hautatu behar ditugu, aukera teknikoak irizpideak nabarmen utzi behar ditugu, hitzak berak ongi hautatu eta kontsultagarri eman, azkenean hitz hauen onartze maila eta arrakasta izartuz. Ofizialeen hiztegi teknikoak gogoan ditugu bereziki eta sail honetako erakundeekin, horien artean Ofizialeen Ganbararekin, lan egin nahi genuke. Euskaltzaindia lantalde horren buruzagietarik izan liteke IKASekin eta EEPrekin.
- Jagon sailean (ikus urrunago), hots, euskararen defentsa eta garapena xedetzat daukan batzorde berezia badauka Euskaltzaindiak, **hizkuntzaren kalitatea** lantzen duena. Zinkurinak eta auhenak gelditu gabe entzuten dira horretaz, baizik eta euskararen tornuak bere itxura galtzen duela: zinkurinak zinkurin, egia da euskara aldatzen dela beste hizkuntza guztiak bezala, baina, sorddes dena, egia da ere, arranguratua izateko arrazoirik ez zaigula falta: belaunaldien arteko transmisioa nekez egiten da eta galera handiak gertatzen dira mintzairaren mamian nola azalean, euskaldunen alfabetatzea doi bat eskasa da, diglosia deitu egoeraren ondorio kaltegarriek hizkuntzaren higadura dakartela errazki ikusten da non eta atzerrian ezagunak diren *death language* fenomenoak gogora etortzen baitzaizkigu. Euskaltzaindiak neurriak hartu nahi ditu, beste erakundeekin sail honen azkartzeko, diagnostiko eguneratu bat eginez, aterabideak proposatuz, eta kasuan kasuko formakuntzak antolatuz, hizkuntzaren kalitatearen eremua sustatzeko. Gidaliburu bat sortzea gure xedea da partikulariki Ipar Euskal Herriko euskal hitzunei zuzendua. Dokumentu honi esker hobeki ageriko da euskara batuaren arauen historia- ren bide luzea, bai eta ere erreferentziako informazioak non bil ematea. Orain arte han-hemenka eta bilerrazak ez diren dokumentuak bildu, antolatu, moldatu, sarean ezarri beharko ditu Euskaltzaindiak eta laguntza eskatuko du horren. Gehiago dena, hizkuntza kalitatearen aholku emaile eta erantzule ofizial gisa, bere iritziak eta zuzenketak ematen ditu jadanik euskarazko ekoizpen parte batean, eta molde zehatz batean IKASekin. Sail hori azkartzekoa da. Lan horiek frankotan itzulpen lanak dira. Proposatzen dugu HELEPEk asma eta susta dezan Ipar Euskal Herriko beharren araberrako **itzulpengintzaz** arduratuko den saila. Hunkitua izanen den publikoa irakasleek, kazetariak, dokumentalistek, hizkuntza teknikariek osatzen dute. Azkenik, maizetan hartzen dugun eskaerari erantzun nahiz, euskarazko ahozko komunikazioa landuko duen gunea abian jarri nahi dugu, horren eskasa saminki sentitzen baita. Hizkuntza kalita-

teari buruzko gogoeta horien ondotik, euskararen ezagutzaren atarien eta alartzeen arteko zurubiak jartzea beharrezkotzat daukagu: hots, euskaldunen mintzaira maila hobekitzeko tresnak. Azken urte hauetan Euskaltzaindiak EGA tituluaren ardura ez du gehiago bere gain, baina euskarazko alfabetatzearen edo eskolatzearen bitartez lortzen diren emaitzak aztertzeko interesa baduela adierazi nahi du, ondorioz ikasleendako nola formatzaileendako zein bide ikusgai, erakargarri eta irakaspen probetxugarriko hartu behar litezkeen ondoko urteetan.

Dokumentu honetan orain arte aipatutako jarduerak Euskaltzaindiaren egituretan oinarritzen dira. Langile gehienak Bilbon daude eta Akademia osoa ibilarazten dute ahal bezain ongi. Baionan ordezkariak badago, Baionako Herriko Etxeak lagundurik. Egiturak aipatzekotan, alde batetik, Euskaltzaindiak liburutegi handi bat eta artxiiboak badauzka Bilbon, bere egoitzan. Ipar Euskal Herrian, gure gaitasuna eskaintzen dugu funts pribatuak salbatzeko, digitalizatzeko eta katalogatzeko, hauen galtzea gerta baitaiteke, axolagabekeriarengatik izan dadin edo suntsitzearengatik. Euskaltzaindiak jatorrizko dokumentuak eskuratzea ez du ezinbestekotzat jotzen, baina eskatzen du hauen kopiak gorderik egon daitezen, kontsultagarri izan daitezen ikerlari eta publikoarentzat, indarrean den deontologiaren errespetu osoan. Harremanetan izanen da Mediatekarekin, bibliotekekin, artxiibo-zerbitzuekin, Euskal Museoarekin... Beste batzorde batek zaintzen ditu Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT). Interneten bitartez ekoizten duen parte bat lehenago aipatua izan da. Euskaltzaindia engaiatzen da zerbitzu hauek modu eraginkorrago batean jartzera Ipar Euskal Herriko herritarrentzat, izan dadin toponimia arloan ala kodifikatze eta hizkuntzari buruzko informazio orokorreko arloetan. Beste erakunde berezituak lokarriak (unibertsitatea, ikerketa erakundeak, dokumentu artxiiboak eta funtsak) tinkatuko dira. Molde berezi batean, HELEP esparruan, mediatekarekin eta departamenduko artxiboekilako sinbiosi osoan, funts ezberdinez eta haien kontsultagarritasunaz hausnarketa egitea proposatzen dugu.

Jarduera hauetan guztietan, jende adituak edo Euskaltzaindiarenak berak dira edo unibertsitarioak edo arlo hauetako profesionalak. Euskal Herriko ikerketa egitura azkarren sortzeari buruzko gogoetan nahi genuke Euskaltzaindiak parte har lezan osoki, partikulariki giza- eta sozial zientzietan, baina ez horietan bakarrik. Ipar Euskal Herriko Unibertsitateko egiturak azkartzeko aldarrikapenak bere egiten ditu Euskaltzaindiak. Konkretuki, Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) Gasteizen edo Bilbon, hitzarmenak izenpetuak baldin baditugu, HELEPen laguntzarekin nahi genituzke lankidetzak garatu Bordeleko Unibertsitatearekin, Michel de Montaigne Bordeleko Unibertsitatearekin, Paue & Aturrialdeko Unibertsitatearekin, eta berdin Pirinioetako eremuan lan egiten ari diren Tolosako unibertsitateekin. Hego Euskal Herriko tesi hoberenei sariak ematen dira, zeinetan Euskaltzaindiak parte hartzen baitu, eta nahi genuke sari horietan parte har lezaten Ipar Euskal Herriko ikasleek. Azkenik, jakin behar da **ikerlari gaztearen estatusa** sortu duela Euskaltzaindiak, tesiraino eramaten dituzten proiektu zientifikoetan oinarritzen diren lanak eta ikerlariak laguntzeko, uniber-

tsitateko zuzendariak bere eskumena galtzen ez duelarik. Aukera hori Euskaltzaindiak Ipar Euskal Herrian ezarri nahi du. Egituren artean, proiektu zientifiko zenbaitetan (ANR edo Akitania-Euskadi) parte hartu nahi du Euskaltzaindiak hala nola CNRS bezalako ikerketa egiturekin.

Euskaltzaindiaren jarduera zientifikoa nola garatu nahi dugun larri-larria bastan utzirik, ondotik finkiago josi beharko baita, ordu da Jagon sailak aurreikusi duen lanari so egin diezaiozun, euskararen zaintzea eta haren estatusa gora ematea Jagon sailaren arrangura nagusiak direlarik.

Ikuspuntu horretatik, Euskaltzaindia prest da elkarlan biziena eskaintzeko kultura, politika, lurraldeko ekonomia arloetan, izan dadin bere adituen gaitasuna berme ezarriz edo izan dadin mugaz bi aldeetako bere sarea baliatuz. Espainiako egiturekin harreman hertsia baldin badauzkate ere beste erakunde zenbaitek, arlo horretan Euskaltzaindiak gauzak errazten ahal ditu HELEPeko eskumenetako sail askotan.

Euskaltzaindia guziz ados da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian euskararen osagarria ez dela batere bera adierazten duen diagnostikoarekin. Azken hamarkadetan eramana izan den hizkuntza politikari esker, eta triunfalismoan erori gabe, Euskal Autonomia Erkidegoan euskal hiztunen kopurua emendatu dela azpimarratu behar da. Ipar Euskal Herrian berriz, tai gabe apaltzen da euskara, eta premiazko neurriak baitezpadakoak dauzka hizkuntzaren heriotzaren lekuko ez baldin badugu izan nahi. Euskaltzaindiak lantzen duen normalizazioak hizkuntzak behar dituen tresnak ematen eta emanen baldin baditu ere, Ipar Euskal Herrian guziz beharrezko da hizkuntzaren normalizazioari buruzko gogoeta, eta Euskaltzaindia prest da bere laguntza eskaintzeko HELEPeko gizarte eragile eta erakundeekin.

## OFIZIALTASUNAZ

Nahitaez, gai bat behar dugu hemen aipatu; alderdi franko badauzka, ideologikoak, juridikoak, politikoak, administratiboak, psikologikoak, funtsean baztertzen ahal ez ditugunak. Puntu hau euskararen **ofizialtasuna** da: honen inguruko gogoeta sano eta eguneratua eskaini behar dugu.

Hemendik aitzina jarriko den egitura berriak euskararen ofizialtasunaren erronkak seriozki azter ditzan proposatzen dugu. Behartuak gara hizkuntzaren ofizialtasunaren alde onak (edo gerta daitezkeen alde txarrak) Europako testuinguru ezberdinetan ikertzeraz, Euskal Autonomiaren kasua, Nafarroarena edo Kataluniarena barne. Ofizialtasunak administrazioko sail ezberdinetan, kontratuetan, lehiaketetan, eskaintza deialdietan dukeen eragina aztertuko da. HELEPeko eragileen arteko mota askotako harreman eta trukaketa andana bat pentsatu beharko dugu. Frantziako Errepublikak jartzen ohi dituen poxelu juridikoak ofizialtasunak gainditezkotan, erran gabe doa lan zorrotza eta malguta eramane beharko dela legelariekin eta erraztaileekin, zeinahi izanik ere ofizialtasun bideari emanak izanen zaizkion etiketak. Konstituzioaren 2. artikulua kontuan hartuko duen aterabide bat kausitu beharko da. Hauxe dio: *Errepublikaren hizkuntza frantsesa da*. Horra 75-I. Artikuluak dioena: *Lurraldeko hizkuntzak Frantziako ondarearenak dira*.

Hizkuntza baten ofizialtasuna ez da tabu bat izan behar, ez eta bandera, ez eta ere okaztatzaile. **Hizkuntza ofiziala** diogunean, euskara komunikatzeko bide normal gisa botere publikoek onartu behar dutela adierazi nahi dugu, izan dadin erakundeen artean ala erakundeen eta pertsona pribatuen artean, behar den baliozkotasun eta efektu juridiko osoz. Ez gutiago, ez haboro. Gaia ez dela gibelatu behar uste dugu. *Gero dioenak Bego dio*, zioen Axularrek. Aitzitik, egitura berriaren arranguretarik bat izan behar da. Ofizialtasunaren ondorio guztiak, ekonomikoak barne (hizkuntza politika aitzinatu baten alde ematen den sosa diru xahutzea eta enpoiltzea delako ideia datza leku anitzetan). Agerian uztekoak dira. Hego Euskal Herrian eramana izan den esperientziak —baina beste leku zenbaitetakoak ere duarik gabe— mugimendu sendoa, iraunkorra, eztitua eta adimentsua izaten ahal dela erakusten duke.

Ofizialtasunari buruzko lanen emaitzak igurikatu gabe, proposatzen dugu EHGGk eta HELEPek beren kontu har dezaten ondoko adierazpena: «Euskarari, frantsesari bezala, ezagutzen zaio Ipar Euskal Herriko hizkuntza izatea.» Horrelako formulazio batek, behin-behinekoa izanik ere, laguntza eman lezake hizkuntza politika azkar baten abiarazteko. Horretan Korsikako eta Ekialdeko Pirinioetako Departamenduko kasuak aintzat hartzea ez liteke debaldetako.

Hizkuntzaren ofizialtasunaz, edo ezagutza edo aitortza beste mota bati buruz nahikatzen dugun gogoeta horren kariatara, uste dugu, euskalgintzaren parte handi batek adierazten duen bezala, **euskarari buruzko diskurtsoa** berritzea edo zorroztea beharrezkoa dela, eta HELEP izan behar dela berritze horren lekukoa eta eragilea. Euskaltzaindiak horretan parte hartu nahi du. «Leloak» edo biltzarrentzako edo panfletoentzako esaldiak aipatu ordez, hizkuntzari buruzko herritarren nahiak eta arrangurak entzunak izatea nahi dugu: partikulari euskara ikasten ari diren pertsonen motibazioaz erraten dena aipatu nahi dugu, IKERen eta EEPren lanetan azpimarratua izan den haritik. Egia da gogoeta horretatik ez dela urrun egoten ahal, izan dadin nortasunari, identifikazioari, eskolako, Interneteko eta beste tokietako ibilmolde linguistikoari buruzko arrangura. Eramanikako lanek motibazioa ez dela bakarrik politikoa eta arrazionala izaten erakusten dute: sentimenduak hunki dezake, banakako eta familiako memoriak eragina badute motibazioan, memoria luzea gaitzetsi gabe (gogoan ditugu euskara ikasi nahi duten gazteetan euskararen erabilera eskolan estigmatizatzeke «sinboloa» bezalako neurriek markatu dituztenak; alta aitonen denborakoak dira horiek, beraz gazteek ez dute berek larrutik ordaindu, baina burasoen oroitza penak euskara ikasi nahi duten edo ez duten jendeen kontzientzian eta jarrean eragina badu).

Erran bezala diskurtso berri bat eraiki behar da. Diskurtso horretan, engoitik ondoko nozioak aipa ditzakegu: koexistentzia, demokrazia, eleaniztasunaren kudeaketa adimentsua, maila indibiduala (gaitasuna, motibazioa), maila makrosoziala (gizarte-sostengua, hizkuntzaren estatusa), maila mikrosoziala (hizkuntza-dentsitatea eta sareak, hizkuntza hautatzeko gaitasuna, hizkuntza-maila), hori guztia lan berriek argiturik.

Hizkuntzei buruzko diskurtso orokor berritu baten beharrek batera, prest da Euskaltzaindia lankidetzan aritzeko euskararen ikuspena lagunduko duten jarduera guztietan, hala nola: besta egunak, kolokioak, jardunaldiak, erakusketak, funts prestaketak, liburuak, artxiiboak, eta beste.

Informazioko teknologia berriek Euskaltzaindia kezkatzen dute: ongi bada-kigu nolako garrantzia duen sail honek. Pentsatzen dugu HELEPEk laguntza eman beharko duela webgunean sartzeko diren euskarazko mami berriak emanak izan dai-tezen beharra agertu arau. Euskaltzaindiak nahi du horretan parte hartu, Euskal Wi-kipedia bezalako webgune zenbaiten edukia aberastuz, urritasun guzieren gaintetik. Bestalde, publikoarentzat dauzkan baliabideak sarean jartzeko nahia badauka Euskal-tzaindiak. Aipatu publikoa oraindik euskalduna da bakarrik: HELEPEkilako haus-narketa baitezpadakoa da euskara ez dakitenentzat baliabide hauen jartzea ez ote de-netz interesgarri izanen.

## AZKEN HITZAK

Dokumentu honek Euskaltzaindia gaur egun eta geroari begira zertan den era-kutsi nahi du. Egiten duenaz gain, egin gogo eta egingai duena aipatzen dugu.

Euskal Herriko Garapen Kontseiluak egin dituen proposamenak kontuan har-tzen ditu Euskaltzaindiak eta dauzkan ahalen arabera bere laguntza eman nahi du.

Euskaltzaindiak eskatzen du kontuan harturik izatea HELEPEn eta Garapen Kontseiluan hizkuntza kalitateari buruzko erreferentziako erakundea den aldetik. Eskaera horrela adierazi nahi genuke: «Euskaltzaindia da hizkuntza kalitateari eta araei buruzko aholku emaile ofiziala eta botere publikoek Euskaltzaindiari eskatuko dizkiote behar diren txostenak eta erabakiak. Botere publikoek hitzematzen dute Eus-kaltzaindiak finkatu dituen hizkuntzaren arauak errespetatuko dituztela».

Bestalde, Ipar Euskal Herriko, Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkide-goko euskaltzainak biltzen dituen Euskaltzaindia honek, bere eskuetan daukan mugaz gaindiko egiturazko antolakuntza Ipar Euskal Herrian baliatu nahi du hizkuntzaren garapenaren alde.

Oinarri hauetan, proposatzen dugu euskararen normatibizazioan (kodifika-tzean) eta normalizazioan (erabileran) lan egin dezan Euskaltzaindiak, eta hori HELEPEkilako eta hunkituak diren beste erakundeekilako lankidetzan, horren beha-rra agertuko den aldi oroz, modu mugatu batean edo mugagabe batean.

Jarduera hauen artean, zientzia eta arautze mailan, Euskaltzaindiak dauzkan tresnak garatu nahi ditu (hiztegiak, gramatikak, atlasa, literatura, toponimia, termino-logia), paperezko euskarrian edo elektronikoan, betiere Ipar Euskal Herriko errealita-teari egokituz, hunkituak diren erakundeekin batera. Lankidetzan multzo bat proposa-tzen da jarduerak sakontzeko erakunde zenbaitekin, hala nola unibertsitateak, kultura munduko eragile nagusiak, herriko etxeak, EEP, EKE, IGN eta beste.

Gizarte mailan, Euskaltzaindia prest da lankidetzan sartzeko euskararen egiazko erabilera sustatuko dituzten neurriak, gomendioak asmatzeko eta zorrozteko. Parti-kulariki, Euskaltzaindiari oso garrantzitsua zaio gogoeta bat eramatea euskararen ofi-zialtasunaz. Lehen urrats batean, Euskaltzaindiak eskatzen die EHGRi eta HELEPEi beren gain har dezaten ondoko adierazpena: «**Euskarari, frantsesari bezala, ezagu-tzen zaio Ipar Euskal Herriko hizkuntza izatea**».

Antolakuntzaren aldetik, Garapen Kontseiluko partaide da Euskaltzaindia. Jende kalifikatuen Kolegioan euskaltzain bat badauka partaide, Jean-Baptiste Coyos.

Hemendik aitzina, Euskaltzaindiak nahi luke bere partaidetza onartua izatea Garapen Kontseiluko erabaki-istantzietan, ahalaz bere zuzendaritzan.

Euskaltzaindiak berak edo beste egiturekin batera garatzeko puntuak hauek dira. Programa horiek eskatzen dituzten ahalbide ekonomikoak trenkatzeoak izanen dira:

- Tokiko demokraziaren ardatz izan behar diren EHGKn eta HELEPen parte hartzea,
- Kopuru handiko jendeek euskararen ikasteko ahala izatea,
- Hiztegi-gintza: hizkuntza-hiztegiak, hiztegi etimologikoa, corpora eta hizkuntzaren behatokia,
- Gramatika: hizkuntzari buruzko arauak ulertzeko eta hedatzeko Ipar Euskal Herriko hiztunei zuzendu tresna egitea,
- Atlas linguistikoa eta ahozkoari buruzko proiektua,
- Ipar Euskal Herriko toponimiako zerbitzu eraginkorra abiatzea,
- Literatura: literaturazko eta kritika liburuen garatzea, Ipar Euskal Herriko liburuen ekoizpena segurtatzea, *Erlea* aldizkaria, Braille bertsioko liburuak eta soinu liburuak laguntzea,
- Hizkuntza kalitatearen zerbitzuaren garatzea Ipar Euskal Herriari zuzendua; itzulpen zerbitzua eta ebaluazio zerbitzuak,
- Euskaltzaindiaren funtsak salbatzea eta antolatzea, funts pribatuak ere bai sail honetako egiturekin batera (Artxibo-zerbitzu, Museo, Mediateka).
- Unibertsitateko eta ikerketako jardueren garatzea, ikerguneekilako eta unibertsitateekilako lankidetzak (Bordele, UBM, UPPA, Tolosa). Ikerlariari laguntza eskaintzea,
- Euskararen egoeraren diagnostikoan parte hartzea,
- Euskararen ofizialtasunari buruzko gogoeta,
- Hizkuntzari buruzko diskurtso berriak haztea, partikularki euskaldun izan nahi dutenen aldera,
- Informazioko teknologia berriak indartzea.

Euskaltzaindia prest da testu hau aztertzeko EHGKrekin.

*Obarra:* Euskaltzaindiak ongi badaki dokumentu honetan aurkeztutako gai batzuk beste erakundeek ez zaizkiela arrotz, eta alferrikako konkurrentziarik erakunde haiekin sortzerik izan dadin ez dugu nahi. Bakarriz kezkaten gaituzten arranguratarik zenbait eta lankidetzan garatu nahi ditugun jarduerak nahi izan ditugu azpimarratu, orain ditugun ahalekin eta geroan izanen ditugun ahalekin menturan. Gai hauek nahi dugu EHGKk eta HELEPe gogoan izan ditzaten, ez baitira bigarren mailako aferak. Gogoeta hartze dute, aintzinkontuak beharresten dituzte. Baina diru-kontuak ez ditu aipatzen testuak, hori proposamenen eta erabakien ondotik etorriko dela sinesten baitugu.





# EUSKALTZAINDIAREN ETA EUSKAL KONFEDERAZIOAREN ADIERAZPENAREN AURKEZPENA: EUSKARAREN BIZIBERRITZEA INDARTZEKO AUKERA HISTORIKOA

Erramun Osa  
Sustapen batzordearen idazkaria

Lerro hauek idazten ari naiz Macron Frantziako Errepublikako presidentek Korsikara egin berri duen bisitan «Frantziako Errepublikan hizkuntza ofizial bakarra dago, eta hori frantsesa da; elebitasuna ez da koofizialtasuna» azpimarratu eta gero. Hitz horiekin, beraz, atek itxi dizkio korsikeraren, bai eta Frantziak barruratzen duen gainerako hiztun-elkarte txikietako hizkuntzen ofizialkidetasuna onartzeari. Ez hori bakarrik, aditzera eman baitu, hizkuntza-aniztasunak herritarrak desberdintzen dituela... eta hizkuntza bakarra izateak, berriz, berdindu. Pentsatzekoa da halakoak esaten dituenak hizkuntza-aniztasuna mehatxu gisa antzematen duela, sustatu eta denboran mantendu behar den ondare bezala ikusi beharrean.

Tamalez, Frantzian eskualde-hizkuntzekiko jarrera hori ez da oraingoa, aspalditik datorren kontua baizik. Jada xiv. mendearen bukaeran eta xv.aren hasieran hainbat ordenantza eman ziren latinaren erabilera baztertu eta eskualdeetako hizkuntzen erabilera ziurtatze aldera, esate baterako, administrazioan eta justizian. Alabaina, egoera horrek ez zuen denbora luzean iraun, 1539. urtean beste ordenantza bat eman baitzen, agiri publikoetan frantsesaren erabilera behartzen zuena. Ordutik aurrera, frantsesa bilakatu zen zuzenbidearen eta administrazioaren hizkuntza ofizial bakarra.

«Katalan hizkuntzaren erabilera arbuiagarria eta frantziar nazioaren ohorearen kontrakoa» zela iritzi zion Louis XIV.ak 1700. urtean eman zuen Dekretu batean. Ez da harriztekoa, beraz, Parisen eta inguruan bizi zen gizarteak —orduko hartan, biztanleria osoaren %10 inguru zena— hitz egiten zuen hizkuntza, denborarekin, zabaltzea eta bestelako hizkuntzak ordeztzen joatea.

Frantziako Iraultzaren hasieran eskualde-hizkuntzei erreparatu zitzaizkien, Iraultzaren printzipioak herritarrengana ahalik lasterren zabaltzeko. Baina egoera horrek oso denbora laburra iraun zuen, Iraultzaren helbururik, obsesiorik, behinene-takoa frantziar nazio batasuna lortzea bihurtu baitzen berehalakoan. Inguruabar horretan, eskualde batzuetan zirauten erakundeak desagerrarazi ziren, hizkuntzaz nola historiaz iragan desberdina zuten erkidegoak departamendu berean elkartuz, urtuz

eta abar. Eskualde-hizkuntzetan aritzea Iraultzaren kontrakoa, ezjakinen kontua eta abar zen Iraultzaren printzipioen defendatzaile askorentzat.

1794. urtean Errepublikaren lurraldean ezin idatzi zitekeen dokumentu publiko bat, frantsesez ez bazen; ezin zitekeen dokumentu bat erregistratu, publikoa edo pribatua, frantsesez idatzita ez bazegoen; funtzionario bat, frantsesa ez zen hizkuntza bazerabilen, sei hilabetez egon zitekeen kartzelan, lanpostua galdu eta abar. Etengabeko jokabide horrek ekarri du Frantzian diren hizkuntz elkarte txikiek atzera egitea. Zerbaitegatik zioen Koldo Mitxelena hizkuntzalariak «egiazko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria» esaldia.

Hego Euskal Herrian bezala Ipar Euskal Herrian ere, herritarren engaiamendua izan da euskara belaunez belaun transmititu izanaren, gaur egunera arte ekarri izanaren, mirariaren helduleku nagusia. Engaiamendu horrek ahalbidetu du, zailtasun guztien gaineratik zein azpitik, etorkizunari beste begi batzuekin begiratu ahal izatea, eta, orobat, azkenaldian, euskara biziberritzeko pauso esanguratsuak ematea. Pasa den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadaz geroztik beste kontzientzia bat joan baita iltzatzen, emeki-emeki, herritarren burmuinetan, «ez gara inor baino gehiago, ez eta gutxiago, gure hizkuntzari eustearren, euskaraz aritzearren» esaldian laburbildu daitekeena, ezen, euskararen bidez baikara garena, Frantzian nola baita munduan barrena!

Lehenengo aldia da Ipar Euskal Herriko udalerrri guztiak biltzen dituen erakunde bat sortu dena, besteak beste, hizkuntza politikaren eremuan eskumenak izango dituen. Aukera historikoa sortu da, beraz, euskararen biziberritzeari indar berriz ekiteko: alde batetik, euskarari —eta okzitaniarari, Ipar Euskal Herriaren zati batean— nolabaiteko ezagutza emanaz; beste aldetik, erakunde sortu berriaren eta euskararen alorrean lanean ari diren elkarten eta erakundeen artean lankidetzaz hezurramituz; eta azkenik, mugaz bi aldeetako erakundeen artean, euskarari bultzada berri bat emateko, jarraibideak eta egitasmoak partekatuz.

Aukera hau baliatu nahi izan zuen Euskaltzaindiak Euskal Konfederazioarekin batera «Euskararen geroa eta Euskal Elkargoaren sortzea» XXI. Jagon jardunaldia Baionako Euskal Erakustokian antolatu zuenean, 2016ko azaroaren 19an. Irekitzen den aldi berrian behar-beharrezkoa ikusten baitu Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak euskararen geroa ahalbidetzeko lanean ari garenon arteko lankidetzaz, 2016ko otsailean Andres Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman zuen iritziarekin bat eginez: «euskararen aldeko jardunak denok behar gaitu, batu egin behar gaitu, sakabarnatu orde», eta espiritu horrek bultzatu gintuen sortzear zegoen Euskal Hirigune Elkargoaren bezperetan adierazpen bateratu bat egitera, hezurramitu nahi genuen lankidetzaren adierazgarri eta indargarri, denon artean egin dezakegun bide berriaren zimentarri.

# EUSKALTZAINDIAREN ETA EUSKAL KONFEDERAZIOAREN ADIERAZPENA, IPAR EUSKAL HERRIAN EUSKARA GALZORITIK ATERA ETA INDARBERRITZEKO-BIDEAN PARATZEKO

Baionako Euskal Erakustokian

Frantziako Estatuko lurraldeetako hizkuntzen egoera kezkarria da, ez baita egiten lege, diru eta langile egokiz hornituriko hizkuntza politika publiko eraginkorrik.

Euskararen Erakunde Publikoaren sortzearekin batera, hizkuntza politika publikoa 2006an egituratzen hasi zen Ipar Euskal Herri mailan, herri mugimenduaren lana osatuz. Bizkitartean, orain arte euskararen salbatzeko bideratu baliabideak eta neurriak ahulegi izan dira; ondorioz, euskal hiztunen kopurua eta euskararen erabilera gero eta apalagoak dira, inkesta soziolinguistikoeek agerian eman dituzten datuen arabera.

Egoera larri hau iraulezina ez bada ere, baitezpadakoa da hizkuntza politika berri eta ausarta gaurdanik egiten hastea eta, orobat, transmisioan, erabileran, motibazioan eta corpusean positiboki eragitea, edozein hizkuntza osoki berreskuratzeko prozesuak ezinbestekoak dituen alorretan.

Hizkuntza politika eraginkor hori zutik ezartzeko, nahitaezkoa da erakunde publiko guztiak (herriak, eskualdeak, *Euskal Elkargoa*, departamendua, Estatu) engaitzea eta arduraz jokatzeta.

Ipar Euskal Herrian erakunde aldaketa gertatuko da 2017ko urtarriletik goiti. Hortaz, Euskaltzaindiari eta Euskal Konfederazioari iruditzen zaie garai ezin egokiagoa dela hizkuntza politika berri hori garatzen hastea.

Erakunde publiko bakoitzak ardurak bere gain hartu beharko baditu ere, *Euskal Elkargoak* euskara indarberritzeko hizkuntza politika horren bultzatzaile nagusia izan beharko du, euskararen eremuan lanean ari diren elkarte eta erakundeekin elkarlanean. Hala, bere eskumeneko alorretan eta gaietan ausart jokatu eta, orobat, beste erakundeak ber gauza egitera animatu beharko ditu.

Horretarako, funtsezkoak dira ondoko puntu hauek:

- Sortzen den mementotik beretik hasita, Elkargoaren estatutueta euskararen hizkuntza-eskumena jasotzea;
- Korsikan, Bretainian eta Ipar Katalunian egin bezala, Ipar Euskal Herrian ere euskarari nolabaiteko izaera ofiziala aitortzea; eta
- Baliabide aski paratzea eta hizkuntza politikarako aurrekontu propioa bideratzea.

Oinarrizko hiru erabaki horiek hartu ondoan, *Euskal Elkargoa* hizkuntza politika eraginkorra diseinatzeko, lantzen eta garatzen hasten ahalko da, euskararen eremuko gizarte-eragileen iritzietan eta ekarpenetan oinarrituz eta gainerako erakundeekin elkarlan estuan arituz. Euskararen berreskurapena indartzeko asmoz, zenbait alorretan hauteman blokeatze-egoerak gainditu eta aitzinamendu berriak ematea ezinbestekoa da, hala nola, irakaskuntza arruntean, helduen irakaskuntzan, hedabideetan, aisialdian, ikasmaterialetan, alor sozioekonomikoan, bizi publikoan, euskararen erabileran eta hizkuntzaren kalitatean (horren barnean Euskaltzaindiari egin beharreko aitormena egonik).

Ezin dugu ukatu erronka eder bezain gaitza dela hau. Halarik ere, Euskaltzaindia eta Euskal Konfederazioa segur dira erronka hau gainditzeko modukoa dela, eta euskara galzoritik atera eta indarberritze-bidean jauzia egiteko parada dugula.

Baionako Euskal Erakustokian, 2016ko azaroaren 19an.



Maidar Hegi eta Xarles Videgain adierazpena irakurtzen ari

## DÉCLARATION DE L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE ET D'EUSKAL KONFEDERAZIOA : STOPPER LE DÉCLIN DE LA LANGUE BASQUE ET RENFORCER SON PROCESSUS DE REVITALISATION EN PAYS BASQUE NORD

La situation des langues territoriales en France est très critique, aucune politique linguistique dotée de moyens juridiques, humains et matériels adéquats n'étant mise en œuvre.

En Pays Basque Nord, la politique linguistique publique a véritablement commencé à se structurer en 2006, au lendemain de la création de l'Office public de la langue basque, venant compléter le travail mené par le mouvement associatif. Cependant, les moyens et mesures mis en application jusqu'à présent sont insuffisants, le nombre de locuteurs et l'usage de la langue continuant de diminuer, comme l'indiquent les enquêtes sociolinguistiques.

Cette situation n'est pas irréversible, mais il est indispensable de mettre en œuvre dès à présent une politique linguistique audacieuse et plus volontariste, afin d'agir sur la transmission, l'usage, la motivation et le corpus de la langue basque, piliers indispensables à la réappropriation de toute langue minorisée.

La mise en œuvre de cette politique linguistique audacieuse passe nécessairement par l'implication de toutes les collectivités publiques concernées : communes, Communauté Pays Basque, Département, Région, Etat.

L'évolution institutionnelle qui s'opérera en janvier 2017 avec la création de la Communauté Pays Basque constitue un moment on ne peut plus opportun pour commencer à développer cette nouvelle politique linguistique publique.

Si chaque collectivité publique devra prendre ses responsabilités, la Communauté Pays Basque devra être le véritable chef de file de cette nouvelle politique de revitalisation de la langue basque, en menant un étroit travail de collaboration avec l'ensemble des associations et institutions œuvrant en faveur de la langue basque. Ainsi, en plus d'agir dans ses propres domaines de compétence, elle incitera les autres collectivités publiques à faire de même.

Dans cette perspective, les points suivants sont fondamentaux :

- La Communauté Pays Basque inscrira dès sa création la compétence linguistique dans ses statuts ;
- A l'instar des institutions de Corse, de Bretagne et de Catalogne Nord, elle accordera une reconnaissance officielle à la langue basque en Pays Basque Nord ;
- Des moyens suffisants et un budget spécifique seront alloués à la politique linguistique.

Ce n'est qu'à la suite de ces trois résolutions que la Communauté Pays Basque pourra concevoir et développer une politique linguistique plus efficace, s'appuyant sur l'expertise et les contributions des acteurs associatifs et en collaboration étroite avec les autres institutions. Mais en préalable à de nouvelles avancées dans les domaines de l'enseignement, l'enseignement aux adultes, les médias, les loisirs, le matériel pédagogique, la vie socio-économique, la vie publique, l'usage et la qualité de la langue (avec la reconnaissance de l'Académie de la langue basque dans ce dernier domaine), il est indispensable de dépasser les actuelles situations de blocage dans les domaines susdits.

La difficulté du défi est à la hauteur de l'enjeu. Cependant, l'Académie de la langue basque et Euskal Konfederazioa sont convaincus qu'il est possible de le relever, que le déclin de la langue basque n'est pas une fatalité, et que nous avons l'opportunité de la mener sur la voie de la revitalisation.

Au Musée Basque de Bayonne, le 19 novembre 2016

## I. ERANSKINA

Bilbon, 2017ko urtarrilaren 19an

Gaia: **Ipar Euskal Herriko udalerrien egituraketa administratibo berriaren izenaz.**

Ipar Euskal Herriko egituraketa administratibo bateratua sortzeko eginiko urratsen inguruabarrean, egituraketa berriak hartu beharreko euskal izenaz gogoeta egin zuten 2016ko irail-urrietan Euskaltzaindiak eta Ipar Euskal Herriko euskalgintza batzen duen Euskal Konfederazioak. Gogoetak bi hari mutur zituen. Batetik, hedabideek azalduko zalantzak, hedabideek egitura berria izendatzean izen desberdinak erabiltzen baitzituzten. Bestetik, Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak 2016ko azaroaren 19an Baionako Euskal Erakustokian antolatzen ari ziren XXI. Jagon jardunaldian erakunde berria izendatzeko erabili beharreko izena.

Aukera desberdinen artean bat proposatzeko garaian, kontuan hartu zuten Euskaltzaindiak Abadiñon, 2003ko uztailaren 18an, emaniko 139. araua, «Euskal Herria» izenari buruzkoa dena. Arau horrek honako hau dio: «Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa batera izendatzeko erabil bedi Euskal Herria izena».

Ondorioz, Ipar Euskal Herriaren egituraketa administratibo bateratuaren izena **Euskal Elkargoa** izatea proposatu zuten Baionan, 2016ko urriaren 17an eginiko bilkuran. Proposamena publiko egin zuten Baionan, 2016ko azaroaren 8an, bai eta 2016ko azaroaren 19an bi erakundeek eginiko adierazpen bateratuan ere.

Besterik gabe, adeitasunez,

Xabier Kintana Urtiaga

Idazkaria



